\*\* 2019ari dagokion BEGd-aren datua (EJSN-2009) aurrerapena izan da.

Iturria: Eustat (Kontu Ekonomikoak).

Garraioaren azpisektoreak sortutako BEGd-k garraio eta posta-jardueren sektorearen BEGd osoan izandako parte-hartzea % 92,8koa izan da (2018an % 93,2koa); zifra absolutuetan, garraio-sektoreari dagokion BEGd 3.297,8 milioi eurotara iritsi da eta posta-jarduerak 254,1 milioi euroko ekarpena egin dute.

1.2. grafikoa BEGd-ren<sup>1</sup> banaketa EAEko garraioaren eta posta-jardueren sektorean 2019an<sup>2</sup> (%).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra**
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak




<sup>1</sup> Europako Kontu Sisteman (EKS-10) ezarritako metodologiaren arabera eskuratuko datuak: I+G alorreko eta kontsumo propiorako gastuak, besteak beste. 2010-2013 bitarteko urteetan, gastu horiek %1,3ko urteko gehikuntza ekarri zuten garraio- eta biltegiatze-azpisektorean.

<sup>2</sup> 2019ari dagokion BEGd-aren datua aurrerapena izan zen. Iturria: Eustat (Kontu Ekonomikoak, EJSN-2009 eta EKS -10).

Okupazioari dagokionez, 2019an sektore orokor horren langileen % 89,8k garraioaren sektorean jardun du, eta gainerako % 10,2k posta-jardueretan. Datu horiek aurreko ekitaldiko datuen oso berdintsuak dira (2018an garraioaren partaidetza makrosektore horretako partaidetzaren % 89,9koa izan zen).

1.3. grafikoa Enpleguaren banaketa EAEko garraioaren eta posta-jardueren sektorean 2019an (%).



Iturria: Eusko Jaurlaritzia.

### 1.3. Garraioaren sektorea Euskadin

Jarraian, azterketak EJSN-2009ko 49 eta 52 dibisioak batzen dituen garraio-sektoreari emango dio arreta.

#### a) Garraio-sektorearen magnitude ekonomiko nagusiak


2019an hauek dira EAEn garraio-sektoreak nabarmentzeko alderdiak:

- 10.092 establezimendu daude, zeinak EAeko ekonomia osoaren % 5,8 hartzen baitu (2018ko kuota berbera). Okupatutako langileak 39.194 pertsona izatera iristen dira, hain justu, Euskadiko langile guztien % 4,3ko partaidetza izan baitu (aurreko ekitaldiaren antzeko garrantzia). 2019an sortutako Balio Erantsi Gordina 3.298 milioi eurokoa zen; horrek esan nahi du sektoreak EAeko ekonomia osoaren % 4,61 hartzen duela, eta aurreko ekitaldian erregistratutakoa baino garrantzi zerbait txikiagoa duela (2018an % 4,65koa).

Generoaren araberako enplegu-banaketari<sup>1</sup> dagokionez, garraioaren sektorean okupatutako populazioaren % 80,9 (16 urtetik gorakoek osatzen dute) gizonezkoak izan dira, eta % 19,1 emakumezkoak (2018an proportzioa % 81,9 eta % 18,1ekoa izan da, hurrenez hurren).

Hurrengo grafikoan sektore honek BEGd-an duen partaidetza eta enplegua erakusten ditu Euskadin, eta datuok Europako beste herrialde batzuekin konparatzen ditu. Datuak 2017koak dira, ordukoak baitira azken datuak.

1.4. grafikoa Garraio-sektorearen partaidetza BEGd-ean eta enpleguan Euskadin, eta beste herrialde batzuekin konparaketa. 2017 (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Jarduera Ekonomikoen Gidazerrenda eta Kontu Ekonomikoak, EAeko datuei buruzkoak; Structural Business Statistics, EU Energy and Transport in Figures. Statistical Pocketbook 2019, eta Economy and Finance Statistics (Eurostat), Estaturako eta gainerako herrialdeetarako. Behatokiak egina.

EAEn garraioaren sektoreak BEGd-an izan duen pisua Estaturakoa eta EB-28koa baino handiagoa izan da. Zehazki, BEGd-k Estaturako sektore osoan duen kuota Euskadin hartzen duen kuota baino bi puntu baxuagoa izan da, eta sei puntu baxuagoa gaineko partaidetza Euskadikoa baino altuagoa

<sup>1</sup> Iturria: Eustat, "Biztanleria jardueraren arabera sailkatzeko inkesta". Xehetasun gehiago izateko, kontsultatu OTEUSen webgunean Garraio Informazio Sistemako «1.3. Lan merkatua» taldeko adierazleak: I. TITULUA: ANTOLAKETA ADMINISTRATIBOA



duen herrialde bakarra. Okupazioari dagokionez Europan. Danimarka da garraioaren sektorean BEGd-aren, enpleguaren partaidetza EAEko totalaren gainean bi puntu bat altuagoa izan da Estatuan zein EB-28ko batezbestekoan duen garrantzi erlatiboan baino.

**i) Jardueraren azpisektorearen arabera**

Salgaien errepide bidezko garraioa izan da establezimendu eta lanpostu gehien hartzen dituen azpisektorea; hain justu, % 64ko eta % 41,4ko partaidetza izan du, hurrenez hurren, sektoreko totalarekiko. Bigarren postuan dago bidaiarien lurreko garraioa: garraio-sektoreko establezimenduen % 23,7 hartu du, eta sektoreko langileen % 23,4. Garraioari atxikitako jarduerak leudeke hirugarren postuan: establezimenduen % 11 hartu dute, eta sektoreko enplegatuen % 29,8.

Aipatutako hiru talde horien baturak EAEko garraioaren sektoreko establezimenduen % 98,7 hartu du, eta langileei dagokienez, % 94,6.

1.1. taula EAEko garraio-sektoreko establezimenduak eta enplegua azpisektoreka. EAE. 2018-2019

	Establezimenduak				Enplegua			
	2018		2019		2018		2019	
	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
Bidaiarien lurreko garraioa*	2.430	23,9	2.389	23,7	8.811	23,3	9.189	23,4
Salgaien errepideko garraioa	6.492	63,9	6.454	64,0	16.058	42,4	16.219	41,4
Bidaiarien arteko hirien arteko garraioa trenez	63	0,6	74	0,7	1.170	3,1	1.285	3,3
Salgaien garraioa trenez	15	0,2	15	0,1	81	0,2	(***)	(***)
Hodi-sare bidezko garraioa	5	0,0	5	0,0	22	0,1	22	0,1
Bidaiarien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	12	0,2	24	0,2	49	0,1	61	0,2
Salgaien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	15	0,1	14	0,1	320	0,8	313	0,8
Bidaiarien aireko garraioa	10	0,1	9	0,1	298	0,8	330	0,8
Salgaien aireko garraioa	3	0,0	2	0,0	3	0,0	(***)	(***)
Lurreko garraioari atxikitako jarduerak	245	2,4	245	2,4	2.392	6,3	2.358	6,0
Itsas garraioari eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoari atxikitako jarduerak	103	1,0	100	1,0	1.079	2,9	1.097	2,8
Aireko garraioari atxikitako jarduerak	22	0,2	19	0,2	561	1,5	629	1,6
Lurreko garraioari atxikitako gainerako jarduerak**	741	7,3	742	7,4	6.994	18,5	7.591	19,4
<b>GUZTIRA</b>	<b>10.156</b>	<b>100,0</b>	<b>10.092</b>	<b>100,0</b>	<b>37.838</b>	<b>100,0</b>	<b>39.194</b>	<b>100,0</b>

(\*) Barnean hartzen ditu hiriko eta hirien arteko garraioa errepidez eta beste lurreko garraio-mota batzuk (trena, funikularrak eta abar), betiere hirikoak eta hirialdekoak badira.

(\*\*) Barnean hartzen ditu garraiatzeko hainbat modurekin uztartutako jarduerak, bidaiarienak nahiz salgaienak (EJSN 2009ko talde hauek: 5210, 5224 eta 5229).

(\*\*\*) Informazio hori ez da eman, estatistika-sekretua gordetzeko. EAEko datuetan gehituta dago.

Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Azpisektoreei erreparatuta, parte-hartze handiena garraioari lotutako jarduerari dagokie: sektoreko BEGd-ren % 37,2 osatzen dute. Bigarren lekuan dago salgaien lurreko garraioa<sup>2</sup> % 34,0ko parte-hartzearekin, eta hirugarren postuan bidaiarien lurreko garraioa<sup>3</sup> dugu, % 18,4ko kuotarekin. Pisu

<sup>2</sup> Salgaien lurreko garraioa: errepide bidezko salgaien garraioa, mudantza-zerbitzuak eta hodi bidezko garraioa.


<sup>3</sup> Bidaiarien lurreko garraioa: bidaiarien hiriko eta hiri inguruko lurreko garraioa, taxi bidezko garraioa eta beste inon sailkatu gabeko bidaiarien lurreko beste garraio-mota bat.





txikiagoa dute gainerako hiru azpisektoreek: tren-garraioak % 6,0, aireko garraioak % 2,6 eta itsasoko garraioak % 1,8.

1.5. grafikoa EAEko garraio-sektorearen BEGd-aren<sup>1</sup> banaketa azpisektoreen arabera. 2019<sup>2</sup> (%)



<sup>1</sup> Europako Kontu Sisteman (EKS-10) ezarritako metodologiaren arabera eskuratutako datuak: I+G alorreko eta kontsumo propiorako gastuak, besteak beste. 2010-2013 bitarteko urteetan, gastu horiek %1,3ko urteko gehikuntza ekarri zuten garraio- eta biltegiatze-azpisektorean.

<sup>2</sup> 2019ko BEGd-aren datua aurrerapen bat da.

\* Lurreko bidaiariak: bidaiarien hiriko eta hiri inguruko lurreko garraioa, taxi bidezko garraioa eta nonbait sailkatu gabeko bidaiarien lurreko beste garraio mota bat.

\*\* Salgaien lurreko garraioa: salgaien garraioa errepide bidez, mudantza-zerbitzua eta hoditeria bidezko garraioa.

Iturria: Eustat (Kontu Ekonomikoak, EJSN-2009 eta EKS -10).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra**
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraibide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

ii) Lurralde mailako presentzia

1.2. taula Garraio-sektoreko establezimenduak eta enplegua, azpisektoreen eta lurralde historikoen arabera. EAE. 2019



	Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
<b>Establezimenduak</b>								
Bidaiarien lurreko garraioa*	287	12,0	1.388	58,1	714	29,9	2.389	100,0
Salgaien errepideko garraioa	896	13,9	3.514	54,4	2.044	31,7	6.454	100,0
Bidaiarien hirien arteko garraioa trenez	2	2,7	50	67,6	22	29,7	74	100,0
Salgaien garraioa trenez	1	6,7	11	73,3	3	20,0	15	100,0
Hodi-sare bidezko garraioa	2	40,0	2	40,0	1	20,0	5	100,0
Bidaiarien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	1	4,2	14	58,3	9	37,5	24	100,0
Salgaien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	0,0	0,0	11	78,6	3	21,4	14	100,0
Bidaiarien aireko garraioa	2	22,2	5	55,6	2	22,2	9	100,0
Salgaien aireko garraioa	0,0	0,0	1	50,0	1	50,0	2	100,0
Lurreko garraioari atxikitako jarduerak	49	20,0	125	51,0	71	29,0	245	100,0
Itsas garraioari eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoari atxikitako jarduerak	0,0	0,0	74	74,0	26	26,0	100	100,0
Aireko garraioari atxikitako jarduerak	6	31,6	8	42,1	5	26,3	19	100,0
Lurreko garraioari atxikitako gainerako jarduerak**	102	13,7	400	53,9	240	32,3	742	100,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.348</b>	<b>13,4</b>	<b>5.603</b>	<b>55,5</b>	<b>3.141</b>	<b>31,1</b>	<b>10.092</b>	<b>100,0</b>
<b>Enplegua</b>								
Bidaiarien lurreko garraioa*	1.331	14,5	5.345	58,2	2.513	27,3	9.189	100,0
Salgaien errepideko garraioa	2.519	15,5	7.391	45,6	6.309	38,9	16.219	100,0
Bidaiarien hirien arteko garraioa trenez	(***)	(***)	919	71,5	(***)	(***)	1.285	100,0
Salgaien garraioa trenez	(***)	(***)	60	(***)	37	(***)	(***)	100,0
Hodi-sare bidezko garraioa	(***)	(***)	(***)	(***)	(***)	(***)	22	100,0
Bidaiarien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	(***)	(***)	(***)	(***)	9	14,8	61	100,0
Salgaien itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	0,0	0,0	297	94,9	16	5,1	313	100,0
Bidaiarien aireko garraioa	(***)	(***)	292	88,5	(***)	(***)	330	100,0
Salgaien aireko garraioa	0,0	0,0	(***)	(***)	(***)	(***)	(***)	(***)
Lurreko garraioari atxikitako jarduerak	242	10,3	1.210	51,3	906	38,4	2.358	100,0
Itsas garraioari eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoari atxikitako jarduerak	0,0	0,0	912	83,1	185	16,9	1.097	100,0
Aireko garraioari atxikitako jarduerak	356	56,6	225	35,8	48	7,6	629	100,0
Lurreko garraioari atxikitako gainerako jarduerak**	1.741	22,9	4.051	53,4	1.799	23,7	7.591	100,0
<b>GUZTIRA</b>	<b>6.223</b>	<b>15,9 y (***)</b>	<b>20.741</b>	<b>52,9 y (***)</b>	<b>12.230</b>	<b>31,2 y (***)</b>	<b>39.194</b>	<b>100,0</b>

(\*) Barnean hartzen ditu hiriko eta hirien arteko garraioa errepidez eta beste lurreko garraio-mota batzuk (trena, funikularrak eta abar), betiere hirikoak eta hirialdekoak badira.

(\*\*) Barnean hartzen ditu garraiatzeko hainbat modurekin uztartutako jarduerak, bidaiariak nahiz salgaienak (EJSN 2009ko talde hauek: 5210, 5224 eta 5229).

(\*\*\*) Informazio hori ez da eman, estatistika-sekretua gordetzeko. EAEko datuetan gehituta dago.

Iturria: Eusko Jaurlaritzak.

Hiru lurralde historikoetako zifrei behatuta, nabarmentzekoa da sektore honetako establezimenduen eta enpleguen erdia baino gehiago Bizkaian dagoela, guztira 20.741 pertsona kontratatzen dituzten 5.603 zentro baitaude bertan. Gipuzkoan sektorearen herena baino gehiago biltzen du, zehazki, 12.230 lagun enplegatzen dituzten 3.141 establezimendu baitaude bertan.

Azkenik, establezimenduen % 13,4 eta okupatuena % 15,9 Araban daude erregistratuta. Horietan 6.223 enplegatu dituzten 1.348 zentro daude.

Komenigarria da kontuan izatea lurraldeka bereizitako enpleguaren kopurueta ez ditugula aintzat hartu estatistika-sekretuaren babesagatik taulan adierazi gabeko kopuruak; edonola ere, garrantzi erlatibo oso txikia zuten.

Garraio-sektoreko magnitude ekonomikoen analisia garraio-enpresen eta -baimenen kopuruaren informazioarekin osatuko da, eta hala, garraio-lanak egiten dituzten enpresen –garraio-sektorearen zati garrantzitsua hartzen dute– jarduera ekonomikoaren koiuntura eta bilakaera islatzea da helburua. Baimenek garraio-jarduerarako baimena duten erregistratutako ibilgailu kopurua adierazten dute, ibilgailu motaren eta baimen-txartel motaren arabera bereizita.

1.3. taula Bidaiarien garraiorako enpresak eta baimenak nola dauden banatuta Lurralde Historikoetan. EAE. 2019

		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
		Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
ID: Autobus Diskrezionala	Enpresak	24	14,5	93	56,4	48	29,1	165	100,0
	Baimenak	404	18,0	1.214	54,1	624	27,8	2.242	100,0
TI: Taxiak, A edo B motako baimenak	Enpresak	242	11,3	1.249	58,1	658	30,6	2.149	100,0
	Baimenak	244	11,3	1.249	58,1	658	30,6	2.151	100,0
OI: Anbulantzia	Enpresak	2	33,3	0	0,0	4	66,7	6	100,0
	Baimenak	10	4,0	0	0,0	241	96,0	251	100,0
GGA: Gidaririk gabeko alokairua	Enpresak	0	--	0	--	0	--	0	--
	Baimenak	0	--	0	--	0	--	0	--
TIC: Taxiak, C motako baimena	Enpresak	10	37,0	12	44,4	5	18,5	27	100,0
	Baimenak	108	62,8	37	21,5	27	15,7	172	100,0
<b>Guztira EAE</b>	<b>Enpresak</b>	<b>278</b>	<b>11,8</b>	<b>1.354</b>	<b>57,7</b>	<b>715</b>	<b>30,5</b>	<b>2.347</b>	<b>100,0</b>
	<b>Baimenak</b>	<b>766</b>	<b>15,9</b>	<b>2.500</b>	<b>51,9</b>	<b>1.550</b>	<b>32,2</b>	<b>4.816</b>	<b>100,0</b>

Iturria: Sustapen ministerioa.

Lurralde historikoen araberrako banaketak erakusten duenez, bidaiarien garraiorako enpresen kontzentrazioak handiena Bizkaia du, enpresen erdia baino gehiago bertan daudenez gero (% 57,7); termino absolutuetan, 2.500 baimen dituzten 1.354 enpresa daude guztira (% 51,9). Gipuzkoan dago bidaiarien garraioan aritzen den hiru enpresatetik bat (% 30,5); izan ere, lurralde horretan 715 enpresa daude, zeinak guztira 1.550 baimen baitituzte (% 32,2). Azkenik, Arabari dagokio gainerako % 11,8a; 278 enpresa daude lurralde horretan, eta 766 baimen dituzte (EAEk eman dituen baimenen % 15,9a).



1.4. taula Salgaien garraiorako enpresak eta baimenak nola dauden banatuta Lurralde Historikoetan. EAE. 2019

		Araba		Bizkaia		Gipuzkoa		EAE	
		Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%	Kop.	%
SDA: salgai diskrezional arinak	Enpresak	269	14,1	1.080	56,7	556	29,2	1.905	100,0
	Baimenak	404	15,1	1.519	56,8	751	28,1	2.674	100,0
SDA: salgai diskrezional astunak	Enpresak	544	13,8	2.095	53,1	1.309	33,2	3.948	100,0
	Baimenak	1.850	14,8	5.588	44,6	5.100	40,7	12.538	100,0
GO: Garraio-operadorea (garraio-kudeatzaileak eta biltegizainak)	Enpresak	58	11,9	220	45,2	209	42,9	487	100,0
	Baimenak	58	11,9	220	45,2	209	42,9	487	100,0
Guztira EAEn	Enpresak	871	13,7	3.395	53,5	2.074	32,7	6.340	100,0
	Baimenak	2.312	14,7	7.327	46,7	6.060	38,6	15.699	100,0

Iturria: Sustapen ministerioa.

Salgaien garraioaren esparruan, Bizkaiak hartzen du EAEn erregistratutako enpresen erdia baino gehiago: osotara 3.395 enpresa daude lurralde horretan (% 53,3), zeinak 7.327 baimen baitituzte (totalaren % 46,7). Gipuzkoan daude izena emanda Euskadiko garraio-enpresen herena baino gehiago (% 32,7); osotara, 6.060 baimen dituzten 2.074 sozietate daude, hau da, baimenen totalaren % 38,6 hartzen ditu Gipuzkoak. Arabak kargen garraioan aritzen diren 871 enpresa ditu; EAEn sektore horrek duen jardueraren % 13,7ko kuota du, eta guztira 2.312 baimen (EAEn eman diren guztien artean, % 14,7).

1.5. taula Bidaiarien eta salgaien garraiorako enpresen eta baimenen bilakaera EAEn. 2013-2019

		EAE								
		2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	Δ 19/13	Δ 19/18
Bidaiarien garraioa	Enpresak	2.350	2.394	2.400	2.405	2.307	2.355	2.347	-0,1	-0,3
	Baimenak	4.674	5.042	5.112	5.107	5.306	5.339	4.816	3,0	-9,8
Salgaien garraioa	Enpresak	6.925	6.668	6.831	6.559	6.643	6.170	6.340	-8,4	2,8
	Baimenak	15.425	14.372	15.201	14.782	15.492	14.772	15.699	1,8	6,3
Guztira EAEn	Enpresak	9.275	9.062	9.231	8.964	8.950	8.525	8.687	-6,3	1,9
	Baimenak	20.099	19.414	20.313	19.889	20.798	20.111	20.515	2,1	2,0

Iturria: Sustapen ministerioa

Bidaiarien garraioak urtetik urterako aldakuntza negatiboa izan du enpresa-kopuruari dagokionez (2018aren aldean, -% 0,3ko eta 8 enpresako jaitsiera), baita baimenetan ere (% 9,8ko jaitsiera, hots, 523 baimen gutxiago). Salgaien garraioan hazkundea egon da, izena emanda dauden enpresen kopurua % 2,8 hazi delako (170 konpainia gehiago 2018aren aldean), eta baimen-kopurua ere igo egin delako (zehazki % 6,3, 927 baimen gehiago egon direlako). 2013-2019 tartean bidaiarien garraiorako enpresak % 0,1 gutxitu dira; baimenak, berriz, % 3 handitu dira. Era berean, salgaien garraiorako enpresak % 8,4 jaitsi ziren, eta, hala ere, haiekin lotutako baimenak 2013an baino % 1,8 gehiago izan ziren.



iii) Laneko kostua

Atal honetan, hilabeteko lan-kostuen analisi bat egingo da; ekonomia osoarentzat langile bakoitzaren hilabeteko lan-kostuak konparatuko dira (lehenengo sektorea aparte utzita) garraio-jarduera osatzen duten azpisektoreekin, eta era berean, jarduera horien arteko desberdintasunei eta ekonomiari erreparatuko zaie.

Analisiaren oinarria EInen laneko kostuaren hiruhilekoko inkesta (LKHI) da. Urteko batez besteko datuak aurkezten ditu eurotan, estatistika-organismo horrek eskainitako hiruhilekoko informazioa oinarri hartuta Alderaketa estatu mailan egin da, kasu horretan soilik eskura baitaiteke EJSN-09ren dibisioei buruzko informazioa. Alderdi horri esker eskura daiteke garraioaren azpisektoreei buruzko informazioa.

2019an langile bakoitzeko hilabeteko lan-kostua azpisektore guztietan handitu da itsas garraioan eta barneko bide nabigagarri bidezko garraioan izan ezik (-% 5,7, aurreko ekitaldiaren aldean). Aldakuntza positiboa duten esparruen hazkundera ekonomiak osotara erregistratu duen hazkundera baino baxuagoa da (+% 2,3). Gauzak horrela, lurreko eta hodi-bidezko garraioaren lan-kostuak % 1,9 handitu dira, baina aire-garraioan eta biltegitratzean eta garraioari atxikitako jardueretan % 1,3 igo da, bi kasuetan.

1.6. taula Lan-kostua langileko eta hilabeteko. Egoera. 2018-2019

	Laneko kostu osoa		Urtetik urterako aldaketa (%)
	2018	2019	
Ekonomia guztira (lehen sektorea kenduta)	2.573	2.631	2,3
Lurreko garraioa eta hodi-sare bidezko garraioa	2.719	2.771	1,9
Itsas garraioa eta barruko bide nabigagarrietatik eginikoa	2.999	2.828	-5,7
Aireko garraioa	4.431	4.488	1,3
Biltegitratzea, eta garraioarekin uztartutako jarduerak	3.062	3.102	1,3

Iturria: Kostuaren hiruhileko inkesta (LKHI), Estatistikako Institutu Nazionala (EIN).

b) Prezioen bilakaera

Garraio-sektorearen kontsumo-prezioen indizea % 5,7 igo da 2018ko abenduaz geroztik. Zifra hori EAEn izandako kontsumo-prezioen aldakuntza (+% 1,2) baino askoz altuagoa da. Prezio-igoerarik altuena erregistratu duten kategoriak, oro har, hauek dira: elikagaiak eta alkoholik gabeko edariak (+% 2,1), hotelak, kafeak eta jatetxeak (+% 1,8), beste batzuk (+% 1,5), hezkuntza (+% 1,4) eta medikuntza (+% 1,3). Kontrara, prezio jaitsiera izan dute talde hauek: etxebizitza (-% 5,2), edari alkoholodunak eta tabakoa (-% 0,2).



1.7. taula EAEko KPI, taldeka. 2016-2019

Abendutik abendurako aldakuntza

	2016	2017	2018	2019
Laburpen Exekutiboa	0			
<b>Testuinguru Orokorra</b>	<b>1</b>			
Bilakaera Orokorra	2			
Errepide Bidezko Garraioa	3			
Tren Bidezko Garraioa	4			
Aire Bidezko Garraioa	5			
Itsaso Bidezko Garraioa	6			
Beste Garraiobide Batzuk	7			
Ondorio eta Joera Nagusiak	8			
Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria	9			
Funtsezko Adierazleak	10			
Eranskinak	11			
Janaria eta edari ez-alkoholdunak	0,7	1,7	0,6	2,1
Edari alkoholdunak eta tabakoa	0,8	1,8	1,2	-0,2
Jantziak eta oinetakoak	0,9	0,3	0,9	0,9
Etxebizitza	0,4	1,1	2,8	-5,2
Etxeko tresneria	0,8	-0,7	0,5	1,1
Medikuntza	0,7	0,4	0,3	1,3
<b>Garraioak</b>	<b>4,6</b>	<b>2,0</b>	<b>0,1</b>	<b>5,7</b>
Komunikazioak	3,3	0,3	2,4	0,7
Aisialdia eta kultura	0,9	-0,3	-0,3	0,6
Irakaskuntza	1,0	1,6	0,8	1,4
Hotelak, kafetegiak eta jatetxeak	1,3	1,8	1,6	1,8
Beste batzuk	1,8	0,5	0,9	1,5
<b>Orokorra</b>	<b>1,5</b>	<b>1,1</b>	<b>1,0</b>	<b>1,2</b>

Iturria: EIN.

# Bilakaera Orokorra

2.

## 2. Bilakaera Orokorra

### 2.1. Euskadiko Garraio Sistemaren deskribapen orokorra

Euskadiko garraio-sistema osagai ugari osatzen dute, bide-, trenbide- sareak eta portu-azpiegitura, aireko azpiegitura, kable-sistema eta logistika integraleko azpiegiturak baititu. Beheko koadro honetan ikusten da Euskadiko Garraio Sarearen egitura:

2.1. taula Garraio-sistema Euskadin.

Sistema	Azpiegitura	Organo titularra	Erakundea / Operadorea
Bide-sistema	Errepideen sare orokorra	Foru-aldundiak	Garraio-zerbitzu publikoaren emakidaduna/mailegatzailera Erabiltzaile partikularra.
	Hiriko sarea	Udalak	
	Autobidea *	Foru-aldundiak	
Trenbide-sistema	Europa barneko sarea Penintsulako sarea	Estatua	Adif eta Renfe
	Sare metrikoa	Euskal Autonomia Erkidegoa Estatua	ETS eta EuskoTren Adif eta Renfe Metrikoa
	Metroa/Tranbia	Euskal Autonomia Erkidegoa	ETS, Bilboko Metroa eta EuskoTren
	Zubi esekia	Bilboko Portu Agintaritza	Pribatua da
Portu-sistema	Interes orokorreko portuak	Estatua	Portu-agintaritza
	Autonomia-erkidegoetako portuak	Euskal Autonomia Erkidegoa	Euskal Autonomia Erkidegoa
Aireko sistema	Interes orokorreko portuak	Estatua	Aena
Kable-sistema	Igogailuak eta funikularrak	Euskal Autonomia Erkidegoa Foru-aldundiak Udalak	Pribatuak Publikoak
Garraio intermodaleko sistema	Garraio eta logistika zentroak	Partzuergoak / Erakunde publikoak, pribatuak, mistoak	Operadore logistikoak

\* 2019an burutu da errepide-gaietako eskumenak Estatuko Administrazioetik EAera transferitzeko prozesua. AP-1 autobidearen eskualdatzea, hegoaldeko tartea Armiñon arte, 2018ko abenduan izan zen eta AP-68rena 2019ko apirilean. Ondoren, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiei egin zitzaizen eskualdatzea.

Iturria: Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplana

Hona hemen Euskadiko Garraio Sistemaren alderdi garrantzitsuenak:





Euskadiko Garraio Sistemaren deskribapena



- Argitaratutako azken datuek, 2018ari buruzkoek, erakusten dute euskal bide-sareak 4.147 kilometroko luzera duela, eta horietatik 624 kilometro gaitasun handiko bideak direla (autobideak, autobiak eta bide anitzeko errepideak), hau da, EAEko errepide-sarearen % 15.
- 2019tik bide-azpiegituren titulartasuna lurralde bakoitzeko foru-aldundiena bakarrik da, Artxandako tunelena izan ezik (Bizkaiko Foru Aldundiaren emakidadun sozietatea). Urte horretan burutu da errepide-gaietako eskumenak Estatuko Administrazioetik EAERA transferitzeko prozesua. AP-1 autobidearen eskualdatzea, hegoaldeko tartea Armiñon arte, 2018ko abenduan izan zen eta AP-68rena 2019ko apirilean. Ondoren, Bizkaiko eta Arabako Foru Aldundiei egin zitzaizen eskualdatzea. A-8ren kasuan, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Bizkaiko Foru Aldundiak haren ustiapenaren kudeaketa Bidegiren eta Interbiaken esku utzi dute, hurrenez hurren, eta Arabako Foru Aldundiak AP-1 arabar tartearen kudeaketa Arabat sozietate publikoaren esku utzi du.
- Tren-sistemari dagokionez, Adif eta ETS dira azpiegituren administratzaileek. Bestalde, EAEn operadore hauek ematen dituzte pertsonak eta salgaiak garraiatzeko zerbitzuak: Renfe eta ETSren azpiegiturei dagozkien eragile operadoreak. Renfe Adifen sare arruntaren nahiz metrikoaren operadorea da. Haren sare arruntako eskaintzak probintzietako zenbait udalerrri euskal hiriburuekin lotzen ditu, eta era berean, Estatuko gainerako lekuekin lotzeko ere baliagarria da. Sare metrikoan, Bizkaia mendebaldeko udalerrriak beraien artean lotzen ditu, bai eta Kantauri itsasoko ertzean eta Gaztela eta Leongo iparraldean Estatuko udalerriekin ere. ETSren azpiegituren operadoreak, berriz, hauek dira: Euskotren, Bilboko Metroa eta Euskotrenen tranbiak. Euskotrenen hiri arteko zerbitzua Gipuzkoako eta Bizkaiko zenbait udalerritan barrena ibiltzen da. Bilboko Metroaren zerbitzuak Bizkaiko hiriburuen hiriko eta metropoliko esparruan bidaiariak garraiatzea du ardatz. Euskotrenen tranbiak, berriz, Bizkaiko eta Arabako hiriburuen hiriko eremua barne hartzen dute, Bilboko Tranbiaren eta Gasteizko Tranbiaren zerbitzuen bidez.
- Bestalde, Zubi Eskiaren (Puente Vizcaya-Bizkaiko Zubia) jarduera Transbordador de Vizcaya S.L. sozietateak kudeatzen du.
- Azkenik, “Prestazio Handiko Euskal Trenbide Sare Berria”, Euskal Y izenez ezaguna, eraikitzeak EAEko trenbide-azpiegituren egungo sarea osatuko du laster.
- Portu-sistemari dagokionez, Bilboko Portua eta Pasaiako Portua dira merkataritza-portu nagusiak, interes orokorreko portu bakarrak bi-biak eta Estatuaren titulartasunekoak. Autonomia-erkidegoetako gainerako portuek (15 guztira) osatzen dute euskal portu-sistema. Maiatzaren 14ko 2380/1982 Errege Dekretuaren bidez, Estatuko Administrazioak Euskal Administrazioari eskualdatu zizkionetik, egun Eusko Jaurlaritzaren eskumenekoak dira.
- EAEko aireko sistema Bilboko, Donostiako eta Gasteizko aireportuetako aireko azpiegiturek osatzen dute. Denak Estatuaren titulartasunekoak dira eta Aenak kudeatzen ditu.
- Bestalde, lau funikularrek (Artxandako funikularra, Larreinetako funikularra, Igeldoko funikularra eta Mamarigako funikularra) eta bost igogailuk (Arangoiti, La Salve, Solokoetxe, Begoña eta Ereaga) osatzen dute EAEko kable-sistema. Denak Bizkaian daude, Igeldoko donostiar funikularra izan ezik.
- Azkenik, Euskadin garraio-sistemaren egitura zenbait operadore logistikoren bidez osatzen da. Operadore horien helburua da salgaien garraioan eraginkortasuna bultzatzea: Aparkabisa Bizkaian, Zaisa Gipuzkoan, eta CTVi eta Arasur Araban.

## 2.2. Mugikortasun orokorraren duela gutxiko bilakaera Euskadin 2019an


### 2.2.1. Pertsonen garraioaren magnitude nagusiak Euskadin

#### a) EAE

“Euskal Autonomia Erkidegoko Mugikortasunaren Azterlana 2016” lanaren arabera, EAEko (6 urtetik gorako) biztanleriak 6.705.864 joan-etorri egin ditu eguneko. Zifra horrek adierazten duenez, batez besteko lanegun batean, biztanleko batez besteko joan-etorri kopurua 3,33koa izan da.

2.1. grafikoa Pertsonen mugikortasuna EAEn, eremuaren arabera: Laburpen-mapa<sup>1</sup>. 2016.

(joan-etorri/egun)



<sup>1</sup> EAEko biztanleez dihardu.

Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak


EAEko biztanleen mugikortasunaren arloari sakonago erreparaturaz, 2016. urtean, eguneroko joan-etorrien % 98,8k EAE bera izan dute abiapuntu eta xede. Hain zuzen ere, grafikoan agertzen den bezala, lurralde barnekoa da joan-etorrien % 96, lurralde artekoa da % 2,8, eta gainerako % 1,2 EAEtik kanpo hasi edo amaitzen dira.

“EAEko Mugikortasun Azterlana 2011” izeneko aurreko lanean bildutako emaitzei dagokienez, EAEko guztizko joan-etorriak % 8,1 ugariatu dira (2011ko ekitaldian 6.200.572 joan-etorri egin ziren); eta horrenbestez, EAE abiapuntuzat eta xedetzat duten eguneroko joan-etorriak % 8,8 ugariatu ziren. Zehazki, lurralde barneko mugimenduak % 9,4 ugariatu dira, eta lurraldeen artekoak, berriz, % 7,1 murriztu. Bukatzeko, EAEtik kanpo abiapuntu edo xede duten joan-etorrien kopurua % 28,1 txikitu da.

Intermodalitateari dagokionez, 2016an, EAE osoan joan-etorrien % 99,1 etapa bakarrekoak dira. Beraz, 2011rekin alderatuta, ehuneko 0,3 puntu ugariatu dira.

Bestalde, 2016ko ekitaldiko joan-etorrien arrazoiei erreparaturaz, esan behar da nahitaezko lekualdaketak direla —hots, lana edo ikasketak direla-eta egindakoak— EAEko biztanleek egiten dituzten eguneroko joan-etorri gehienak (% 43,8). 2011ko datuekin alderatuta, lanak eragindako joan-etorrien kopuruak behera egin du (2016an, % 30,3, baina 2011n % 37,3).

2.2. grafikoa EAEko pertsonen mugikortasunaren banaketa 2011-2016 aldian, arrazoiaren arabera (%).




Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2011 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016.

Oinezko joan-etorrien proportzioak lekualdaketa guztien ia erdia hartzen du. Hala, beraz, oinezko joan-etorriak dira oraindik ere lekualdatzeko modu nagusia (2016an, % 47,1; 2011n, % 44,8). Bestalde, ibilgailu pribatuaren (autoa eta motoa) erabilerak behera egin jarraitzen du, eta pisua galtzen: % 36,4, 2016an eta % 36,7 2011n. Hala ere, autoak bigarren lekuan jarraitzen du lekualdaketen garrantziaren hurrenkeran, joan-etorrien % 35,2 bereganatuta.

Bestalde, garraiobide kolektiboak (autobusa, trena, hegazkina eta itsasontzia) joan-etorrien % 13,3 dira, eta 2011n, % 15,0 ziren. Esan beharra dago, baina, beherakada hori garraio kolektiboaren ehuneko pisuari dagokiola; izan ere, garraio-modu batzuetan joan-etorrien kopurua handitu egin da.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

2.3. grafikoa EAEko pertsonen mugikortasunaren banaketa 2011-2016 aldian, garraibidearen arabera (%).




Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2011 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016.

2019an % 2,5eko igoera izan du errepide eta trenbide bidezko garrio kolektiboko zerbitzu publikoetako erabilzaileen bolumena. Orotara, 269,7 milioi pertsonak erabili zituzten zerbitzu horiek, eta hala, lekualdatzeak 2018an baino 6,5 milioi gehiago izan ziren. Bidaiarien zirkulazioaren hobekuntzaren arrazoia hirian nahiz hiri artean bi garraibideetan eginiko lekualdatzeen igoeran dago. Zehazki, hiribusean eginiko lekualdatzeek urtetik urterako % 0,9ko igoera izan zuten; hau da, 70,6 milioi pertsona lekualdatu ziren 2019an garraibide hori erabilita. Hiri arteko garraioan, errepide bidezko lekualdatzeak % 3,2 areagotu dira eta 55,2 milioi bidaiaritarira iritsi dira. Trenari dagokionez, hiri-esparruan % 2,7ko igoera izan da bidaiaritan, eta ia 103 milioi bezerotara iritsi dira. Hiri arteko tren-zirkulazioak izan du igoerarik handiena (+ % 3,7 2018tik), eta 2019an 41 milioi bidaiatik gora izan dira.

Dena dela, hau azpimarratu behar da garraio kolektiboaren bilakaera aztertzean, beharrezkoa dela aztertutako eremu geografikoko eskaintzaren ikuspegi orokorra kontuan edukitzea; izan ere, azpiegitura berriak martxan jartzearen ondorioz, batetik, garraio kolektiboaren eskari berriak asetzen dira, eta bestetik, joan-etorriak garraibide batetik bestera aldatzen dira, garraio publikoaren eskaintza murriztu gabe.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraibide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

2.4. grafikoa Bidaiarien bilakaera errepide-eta trenbide-garraio kolektiboan zerbitzu publikoetan. 2000-2019.



<sup>1</sup> "Hiriarteko AUTOBUSARI" buruzko datuek, Bizkaiari, Gipuzkoari eta Arabari buruzkoek, hiru aldundietako bakoitzaren emakiden autobus-mugimenduak jasotzen dituzte, lurraldearen barruan egindakoak nahiz beste bi lurraldeetako herrietara egindakoak.

<sup>1</sup> "Bizkaiko hiriarteko AUTOBUSAREN" datuek, 2011tik aurrerakoek, A-3700 Bilbo/Gasteiz emakidaren linea aintzat hartzen dute: 2011n 1.076.097 pertsona garraiatu zituzten. Ez dugu aurreko urteetako daturik.



<sup>2</sup> Bizkaiko hiriarteko trenaren datuetan ez dira aintzat hartu La Reineta funikularreko bidaiariak.

Iturria: GIS -Garraioaren Informazio Sistema (OTEUS).

Azkenik, generoaren ikuspegitik, ikus daiteke garraio-moduak erabiltzean badaudela desberdintasun batzuk emakumeen eta gizonen artean. Eskuragarri ditugun azken datuen arabera ("EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016"), motorrik gabeko garraio-moduak gizonen % 53,4rentzat eta emakumeen % 45,1rentzat. Gizonen artean nagusitasun handiagoa dute automobil pribatuetako joan-etorriek, mugimendu guztien % 42,2, hain zuzen; emakumeen artean, berriz, mugimendu guztien % 28,2 dira joan-etorri horiek. 2011-2016 aldia aztertuta, ikusten da mugikortasun jasangarriago baten aldeko joera nagusitzen ari dela bai emakumeen artean, bai gizonen artean: oro har, motorrik gabeko joan-etorriak gora egiten ari dira.

## 2.5. grafikoa Lekualdatzeak garraio-motaren eta sexuaren arabera. 2011-2016.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak




(\*) Motorrak kontuan hartzen ditu

Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2011 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016.

### b) Lurraldearen araberako banaketa

Euskadiko biztanleriaren mugikortasunaren ezaugarriak antzekoak dira hiru lurralde historikoetan, baina badira berezitasunak, ez direlako berdinak orografia, biztanleriaren lurraldekako banaketa, mugikortasun-beharrak eta garraio kolektiboaren eskaintza. Hori dela eta, azterketa xeheago bat egin behar da.


2.6. grafikoa EAEko pertsonen mugikortasuna eguneko bizileku duten lurraldearen arabera. 2011-2016.



Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2011 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016. EUSTAT.

Joan-etorrien lurraldekako banaketari dagokionez, eta 2016ko datuak kontuan hartuta, ikusten da EAEko joan-etorrien ia erdia (% 49,6) Bizkaiko lurralde historikoko biztanleek egin dituztela, % 32,7 Gipuzkoakoek, eta gainerako % 17,7a, Arabakoek. Joan-etorriek hiru lurralde historikoetan egin dute gora 2011-2016 aldirian. Dena dela, batez ere Araban bizi direnek eragin dute azken bost urtean izan den mugikortasun orokorraren hazkundera; zehazki, % 27ko hazkundera izan dute. Atzetik, gipuzkoarrak daude, % 6,4ko hazkunderarekin, eta bizkaitarrak ondoren, % 3,8ko hazkunderarekin.

2.7. grafikoa Lekualdatzeak 5 urtetik gorako biztanleko<sup>1</sup> eta eguneko. 2011-2016.



<sup>1</sup> 2016ko ekitaldiko datuak 6 urtetik gorako biztanleriarentzat dira.


Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2011 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016. EUSTAT.

Lurralde bakoitzaren barneko mugikortasuna aintzat hartuta aztertuz gero, nabarmendu behar da oinezko joan-etorriak orain arteko proportziorik handienara iritsi direla hiru lurraldeetan (% 55,1 Araban, % 48,4 Bizkaian eta % 46,4 Gipuzkoan). Lurralde bakoitzaren ezaugarriari erreparatu gero, nabarmentzen da Gipuzkoan dagoela ibilgailu pribatuaren erabileraren proportziorik handiena (joan-etorri guztien % 39,2), bai eta errepideko garraio kolektiboaren proportziorik

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

handiena ere (% 9,2). Bestalde, Bilboko Metroaren arrakasta aintzat hartuta logikoa denez, Bizkaian dago trenbide bidezko mugikortasunaren ehunekorik handiena (joan-etorri guztien % 9,6). Eta azkenik, Araban, bereziki azpimarratu behar da bizikletaren erabilera handia; zehazki, lurraldean egindako joan-etorrien % 6,8 bizikletaz egiten dute bertako biztanleek.

2.8. grafikoa EAEko pertsonen mugikortasunaren banaketa lurraldeka 2011-2016 aldian, garraibidearen arabera.



Grafikoan, motorra barne dago ibilgailu pribatuan.

Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2011 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016.


2011ko ekitalditik gaurdaino izandako bilakaerari dagokionez, ikusten da motorizatu gabeko garraibideek (oinetz eta bizikleta) igoera izan dutela lurralde historiko guztietan. Hala, 6 puntu igo da Araban, 0,7 puntu Bizkaian eta 1,3 puntu Gipuzkoan. Aitzitik, ibilgailu pribatu motorizatuen mugimenduek behera egin dute Araban (% 1,8 puntu); Gipuzkoan mantendu egin dira; eta Bizkaian gora egin dute (% 1,4 puntu). Garraibide kolektiboetan (autobusa eta trena) mugimenduek behera egin dute hiru lurraldeetan.

2011-2016 aldian, Donostia eta Gasteiz abiapuntutzat eta/edo xedetzat dituzten banakako motordun ibilgailuan egindako joan-etorrien ehunekoak behera egin du, eta Bilbon, berriz, igoera arin bat izan du. Garraio-zerbitzu kolektiboan egindako lekualdaketek ere behera egin dute aldi horretan, Bilbo eta Donostia abiapuntu edo xede duen trenbide bidezko garraio publikoak eta errepedeko autobus-zerbitzu bereziek izandako beherakadaren ondorioz, batez ere. Aitzitik, motorrik gabeko garraibideetan (oinetz zein bizikletaz) egindako joan-etorriek gora egin dute.


- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraibide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



2.9. grafikoa Joan-etorrien bilakaera, guztira (abiapuntua eta/edo xedea hiriburuetan). 2011-2016.



Iturria: "Euskal Autonomia Erkidegoaren mugikortasun azterketa 2011" azterketarako egindako Mugikortasun Inkesta.




Iturria: "Euskal Autonomia Erkidegoaren mugikortasun azterketa 2016" azterketarako egindako Mugikortasun Inkesta.

<sup>1</sup> Etapa bat baino gehiagoko moduan garraio motaz aldatzea dakarten joan-etorriak (adibidez, autobusa-trena) edo garraio motaz aldatzea ez dakartenak (autobusa-autobusa) hartzen dira aintzat. 2011n baino lehen egindako inkestetan, etapa bat baino gehiagoko lekualdatzea bada (garraio-mota aldatu ala ez), lekualdatzea lehen garraio-motan zenbatzen zen.

Hiru hiriburuetakako bakoitzaren barneko joan-etorriei dagokienez, ikusten da oinezko joan-etorriek nabarmen egin dutela gora Bizkaiko hiriburuan (% 3,5 puntu), trenbideko garraioaren kaltean. Donostian, autoaren erabilerak gora egin du (% 5,4 puntu) eta autobusez (hiri-autobusetan zein autobus-zerbitzu berezietan) eta oinez egiten dira joan-etorriek, berriz, behera (% 2,5 puntu). Azkenik, Gasteizko biztanleen artean gora egin dute bai oinez egindako joan-etorriek (% 3,8 puntu), bai banakako ibilgailu motordunetan egindakoek (0,3 puntu), garraio kolektiboan egindakoen kaltean.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraibide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

2.10. grafikoa Hiriburuen barneko joan-etorrien bilakaera (abiapuntua eta xedea hiriburu berean). 2011-2016.



Iturria: "Euskal Autonomia Erkidegoaren mugikortasun azterketa 2011" azterketarako egindako Mugikortasun Inkesta eta "Euskal Autonomia Erkidegoaren mugikortasun azterketa 2016" azterketarako egindako Mugikortasun Inkesta.

<sup>1</sup> Etapa bat baino gehiagoko moduan garraio motaz aldatzea dakarten joan-etorriak (adibidez, autobusa-trena) edo garraio motaz aldatzea ez dakartenak (autobusa-autobusa) hartzen dira aintzat. 2011n baino lehen egindako inkestetan, etapa bat baino gehiagoko lekualdatzea bada (garraio-mota aldatu ala ez), lekualdatzea lehen garraio motan zenbatzen zen.

### 2.2.2. Pertsonen garraioaren magnitude nagusiak Euskadin

EAEEn, salgaien zirkulazioak garraio-operadoreek emandako datuak biltzen ditu, bai eta azterketa hauen bidez jasotakoak ere: Sustapen Ministerioaren "Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta" eta "EAEko garraio-eskariaren irudia 2016"<sup>4</sup>. Azken horren arabera, joan-etorrian dabilen errepide bidezko garraioa gurpil gainean garraiatutako karga osoaren % 15,5<sup>5</sup> da, eta Sustapen Ministerioak ez du hori kontuan hartzen "Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkestan".

2019an salgaien zirkulazioak 161.650,7 mila tona gaintu ditu, eta % 4,6 hazi da 2018tik.

<sup>4</sup> Salgaien trafikorako eskaintako datuak 2015eko ekitaldiari dagozkie.

"EAEko garraio-eskariaren irudia. 2016" (<http://www.euskadi.eus/documentacion/2017/imagen-de-la-demanda-de-transportes-en-la-capv-ano-2016/web01-a2garrai/es/>)

<sup>5</sup> 2015ean zirkulazioan dagoen garraioak errepidez duen trafikoaren pisua da % 15,5, "EAEko garraio-eskariaren irudia. 2016" azterketaren arabera.

2.2. taula Salgaien banaketa garraio motaren arabera. 2017-2019.

Zirkulazio mota	2017		2018		2019	
	Tonak milakotan	%	Tonak milakotan	%	Tonak milakotan	%
Errepidea	114.978,7	74,2%	113.300,6	73,3%	120.770,4	74,7%
▪ Barnekoa	43.859	28,3%	44.490,0	28,8%	45.954,0	28,4%
▪ Abiapuntua / Xedea	53.298	34,4%	51.249,0	33,2%	56.097,0	34,7%
▪ Zirkulazioan <sup>1</sup>	17.821,7	11,5%	17.561,6	11,4%	18.719,4	11,6%
Trenbidea	2.282,5	1,5%	2.095,4	1,4%	1.786,6	1,1%
Airekoa	62,4	0,0%	63,4	0,0%	65,4	0,0%
Itsasokoa <sup>2</sup>	37.702,5	24,3%	39.073,5	25,3%	39.028,3	24,1%
<b>GUZTIRA</b>	<b>155.026,1</b>	<b>100,0%</b>	<b>154.532,9</b>	<b>100,0%</b>	<b>161.650,7</b>	<b>100,0%</b>

<sup>1</sup> "EAEko garraio-eskariaren irudia 2016" azterketako datuak oinarri hartuta kalkulatu.

<sup>2</sup> Bilboko, Pasaiaiko eta Bermeoko portuetako datuak sartuta daude.

Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta, Sustapen Ministerioa, Renfe, EuskoTren, Aena, Bilboko Portuko Agintaritzia, Pasaiaiko Portuko Agintaritzia, Eusko Jaurlaritzia.


Zirkulazioaren bilakaerak –garraibidearen arabera– igoera izan du errepidez eta airez garraiatutako salgaien bolumenean (+ % 6,6 eta + % 3,2, hurrenez hurren). Aldiz, trenez eta itsasontziz garraiatutako zama murriztu egin da 2018tik (- % 14,7 eta -% 0,1, hurrenez hurren).

Azterketaren esparrua Europara zabalduz, alde nabarmenak daude salgaien garraioaren banaketa modalean EAEn eta EB-28en artean. Argitaratutako azken datuak 2017ko ekitaldiari buruzkoak dira<sup>6</sup>, eta horien arabera, EAEn EB-28n baino handiagoa da errepidetik egiten den salgaien zirkulazioaren nagusitasuna (% 74,8 eta % 51,7). Garraibide jasangarrienei dagokienez (trena eta itsasoko garraioa), parte-hartzea EAEn txikiagoa da (% 1,1 eta % 24,1, hurrenez hurren) UE-28n baino (% 11,6 eta % 36,6, hurrenez hurren).



<sup>6</sup> Eskuragarri dagoen azken datua 2017koa da, Statistical Pocketbook 2019an argitaratuta.

2.11. grafikoa Salgaien garraioaren banaketa modala. 2017 (%).



<sup>1</sup> Errepide bidez bidean dagoen garraioa, "EAEko garraio-eskariaren irudia 2016" azterketako datuak oinarri hartuta kalkulaturak.

<sup>2</sup> 2016ko azken datu erabilgarria. Itsas garraioan kontuan hartzen dira barruko bide nabigagarriak.

Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta, Sustapen Ministerioa, Feve (2013tik aurrera Renfek zabalera metrikoko sarean jarduten du), EuskoTren, Aena, Bilboko Portuko Agintaritza, Pasaiaiko Portuko Agintaritza, Eusko Jaurlaritza eta EU Energy and Transport in Figures, Statistical Pocketbook 2019.

Amaitzeko, azpimarratu behar da Euskadiko administrazio publikoak ahalegin handiak egiten ari direla salgaiak errepidez garraiatu beharrean garraibide jasangarriagoak erabil daitezkeen (itsasoko eta trenbideko garraioa). Ahalegin horiek, eta beste batzuk, erakusten ari dira, bai aurrerapen zantzuak. Esate baterako, errepideko garraioak garraiatutako salgai guztiekiko duen pisua % 9,4 puntu jaitsi da 2002. urteaz geroztik<sup>7</sup>; eta itsasoko garraioaren pisuak, berriz, 8 puntu egin du gora aldi horretan.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra**
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraibide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

<sup>7</sup> Ikus Euskal Autonomia Erkidegoan garraio-eskariaren azken irudia. 2003an eguneratua: [http://www.euskadi.eus/web01-a2oteus/es/contenidos/documentacion/demanda\\_de\\_transporte/es\\_11014/informe\\_demanda\\_transporte.html](http://www.euskadi.eus/web01-a2oteus/es/contenidos/documentacion/demanda_de_transporte/es_11014/informe_demanda_transporte.html)

# Errepide Bidezko Garraioa

3.

### 3. Errepide Bidezko Garraioa

#### 3.1. Errepide bidezko garraioaren eskaintza Euskadin

EAEko errepide-sareak 4.147 kilometro zituen 2018an, Sustapen Ministerioaren Urtekari Estatikoan argitaratutako azken datuaren arabera. Edukiera handieko bideak (hor sartzen dira autobideak, autobiak eta bide anitzeko errepideak) euskal bide-sare osoaren % 15 dira.

Edukiera handiko bideen proportzioa Estatuan baino handiagoa da EAEn. Estatuan, autobideen, autobien eta bide anitzeko errepideen multzoak, bide-egitura osoaren % 10,4 hartzen du. European, edukiera handiko bideen txertatze maila handiagoa da. Zehatz esateko, EB-28 herrialdeetan<sup>8</sup>, edukiera handiko bide-sarearen batez besteko pisua, errepide-sistema osoaren % 20 ingurukoa da.

2018an Euskadiko bide-sarearen dentsitatea 573,2 m/km<sup>2</sup> izan zen. Maila hori Estatuan (327,3 m/km<sup>2</sup>) eta EB-28an (423,9 m/km<sup>2</sup> 2017an; argitaratutako datu berrienak) erregistratutako dentsitatea baino askoz altuagoa da.

3.1. taula Errepide-sarearen luzera eta dentsitatea. EAE, Estatu eta EB-28. 2016-2018.

Errepide mota	2016		2017		2018	
	Luzera (km)	Dentsitatea (m/km <sup>2</sup> ) <sup>1</sup>	Luzera (km)	Dentsitatea (m/km <sup>2</sup> ) <sup>1</sup>	Luzera (km)	Dentsitatea (m/km <sup>2</sup> ) <sup>1</sup>
<b>EAE</b>						
Ordainpeko autobideak	254	35,1	254	35,1	248	34,3
Doako autobideak, autobiak, bide anitzeko errepideak	369	51,0	369	51,0	376	52,0
Errei bakarreko errepideak	3.556	491,5	3.556	488,9	3.523	486,9
Guztira	4.179	577,6	4.160	575,0	4.147	573,2
<b>ESTATUA</b>						
Ordainpeko autobideak	3.039	6,0	3.039	6,0	2.957	5,8
Doako autobideak, autobiak, bide anitzeko errepideak	14.070	27,8	14.124	27,9	14.271	28,2
Errei bakarreko errepideak	148.374	293,3	148.522	293,6	148.396	293,3
Guztira	165.483	327,1	165.685	327,5	165.624	327,3
<b>EB-28</b>						
Autobideak	76.823	17,2	77.396	17,3	--	--
Errepide nagusiak edo nazionalak	316.615	70,8	298.961	66,9	--	--
Bigarren mailako edo eskualde mailako errepideak	1.525.356	341,2	1.518.816	339,7	--	--
Guztira	1.918.794	429,2	1.895.173	423,9	--	--

<sup>1</sup> Errepide-sarearen luzeran (m) eta EAEn, Espainiako estatuaren edo EB-28ren azaleran (km<sup>2</sup>) oinarrituz kalkulatu da.

Iturria: Sustapen Ministerioa, EIN, EU Energy and Transport in Figures. Statistical Pocketbook 2018, International Road Federation.

Euskal hiriburu-tako hiri-garraio publikoaren eskaintzaren ezaugarriak aztertuta, aipatu behar da Bilbok duela zirkulazioan dabilen autobus kopuru handiena. Hala, Bilbobusek 685,3 km (2018an baino +% 8,3) egiten dituzten 141 ibilgailu ditu, 44 lineatan. Gipuzkoako hiriburuan, Dbusen flota 136 autobusek osatzen dute (aurreko ekitaldian baino % 3 gehiago), 41 lineatan eskaintzen dute zerbitzua eta 270 kilometro egiten dituzte (2018an baino % 1 gutxiago). Azkenik, Tuvisak

<sup>8</sup> EB-28, 2017. urteari buruzko datua, 2019ko Statistical Pocketbook-en eskura zegoen azken urtea.



(Transportes Urbanos de Vitoria, SA), 86 autobus kudeatzen ditu 15 lineatan banatuta, eta 203,5 km-ko ibilbidea egiten dute Gasteizen (2018ko zifra berdina)

3.2. taula EAEko hiriburuetak hiri-garraioaren eskaintza publikoaren ezaugarriak. 2017-2019.


Errepide mota	2017	2018	2019	Δ % 18/19
<b>BILBO</b>				
Sareko lineak <sup>1</sup>	43	43	44	2,3
Luzera (km) <sup>1</sup>	631,5	632,9	685,3	8,3
Autobusen parkea	148	148	141	-4,7
<b>DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN</b>				
Sareko lineak <sup>1</sup>	41	41	41	0,0
Luzera (km) <sup>1</sup>	267	273	270	-1,0
Autobusen parkea	132	132	136	3,0
<b>VITORIA-GASTEIZ</b>				
Sareko lineak <sup>1</sup>	15	15	15	0,0
Luzera (km) <sup>1</sup>	203,5	203,5	203,5	0,0
Autobusen parkea	87	86	86	0,0
<b>GUZTIRA</b>				
Sareko lineak	99	99	100	1,0
Luzera (km)	1.102,2	1.109,2	1.158,8	4,5
Autobusen parkea	367	366	363	-0,8

<sup>1</sup> Sartuta daude eguneko eta gaueko zerbitzu erregularrak.

Iturria: Tuvisa, Bilbobus eta DBus.

Garraio pribatuan, Trafikoko Zuzendaritza Nagusiak erregistratutako datuek erakusten dute EAEko automobil-parkeak 1.383.972 ibilgailu dituela, 2018an baino % 1,1 gehigo.

3.1. grafikoa EAEko ibilgailuen parkea. 2019.




Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa**
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Ibilgailuen parkeen tipologiari erreparatuta, aipagarria da ibilgailu guztien % 85,9 bi kategoriatakoak direla: turismo-ibilgailuak (% 73,2) eta kamioi eta furgonetak (% 12,7). 2018ko datuekin alderatuta, talde guztiek izan dute bilakaera ona, kamioien zifrak izan ezik (-% 3,6). Hala, iguera handiena izan dutenak beste ibilgailu batzuk (+% 4,6), autobusak (+% 3,6) eta motozikletak (+% 3,6) dira.

### 3.2. grafikoa Ibilgailuen parkearen banaketa EAEn. 2019.




Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia.

Analisisa Europara zabaltzen badugu, grafiko honetan herrialde bakoitzeko motorizazio-indizea ageri da, EB-28aren, Europako Merkataritza Askearen Elkartearen eta EBko kide izateko herrialde hautagaien esparruan mila biztanleko turismoen ratio gisa neurtuta. Eurostatek, 2017ko ekitaldirako argitaratutako informazioarekin (eskuragarri dauden datu berrienak) eginiko rankingean, Islandiak sendotu egin du lehen postua, mila biztanleko 717 turismo-ibilgailurekin. Azken postuan Albania dago, mila pertsonako 147 autoko motorizazio-indizearekin. Aurreko urteko ratioarekin alderatuta igoyerarik handiena izan duten herrialdeak Errumania (+% 10), Montenegro EBrako herrialde hautagai gisa (+% 7,1) eta Lituania (+% 5,9) dira. Mila biztanleko turismo-ibilgailuaren kopuruan beherakada izan duten herrialdeak Bulgaria (-% 11,3), Albania (-% 3,3), Malta (-% 0,3) eta Frantzia (-% 0,2) dira.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa**
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



3.3. grafikoa Motorizazio-indizea Europan. 2016-2017<sup>1</sup>.



<sup>1</sup> Statistical Pocketbook 2019tik hartutako Europako herrialdeei buruzko azken datuak 2017koak dira.

<sup>2</sup> Europako Merkataritza Askearen Elkarteko herrialdeak (EFTA - European Free Trade Association).

<sup>3</sup> EBko kide izateko herrialde hautagaiak.

Iturria: EU Energy and Transport in Figures, Statistical Pocketbook 2019, Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta EIN.

Alderaketa horretan Euskadiri erreparatuta, 2017ko motorizazio-indizea 457 turismo-ibilgailukoa izan zen mila biztanleko, eta Europako esparruko herrialdeen sailkapenean 24. dago (EB-28ko herrialdeetan 21.). Lurralde historiko bakoitzari begiratuta, mila pertsonako ibilgailu kopuruaren ratioa Araban da altuena (480), eta Gipuzkoako eta Bizkaiko motorizazio-maila oso antzekoa da (453 eta 452, hurrenez hurren). Estatuan, biztanle kopuruarekiko turismo-ibilgailuen kopurua EAeko hiru lurraldeetako ratioa baino altuagoa da.

2019an Euskadiko motorizazio indizea mila biztanleko 458,7 turismo-ibilgailukoa izan da; termino erlatiboetan esanda % 0,6ko igoera izan du 2018tik. Igoera izan duten lurralde historikoak Gipuzkoa eta Bizkaia izan dira. Gipuzkoan, 451,9tik 456,2ra igo da mila biztanleko turismo kopurua (+% 1,0), eta Bizkaian, 451,5etik 454,1era igo da (+% 0,6) motorizazio-maila. Aldiz, Araban, 480,6tik 480ra jaitsi da mila biztanleko ibilgailu kopurua (-% 0,1).


### 3.2. Pertsonen errepide bidezko mugikortasuna Euskadin

#### a) Mugikortasuna ibilgailu pribatuan

Lehenik eta behin, azpimarragarria da autoaren erabilerearen aurrerakada. Izan ere, motorizazio-indizea handitu egin da, 2000. urtean mila biztanleko 391 turismokoa baitzen, eta 2018an, 461,9koa.

2007-2016 aldian, autoaren erabilera-maila % 3,3 puntu gutxitu da. Lurralde bakoitza zehazki aztertuz gero, 2011-2016 aldian hauteman da Araban eta Gipuzkoan autoaren erabilera murriztu egin dela (ehuneko -1,6 eta -0,5 puntu, hurrenez hurren). Hala ere, Gipuzkoak du oraindik autoaren erabilera-tasarik handiena (% 36,7). Bestalde, Bizkaian autoan egindako joan etorrien pisuak ehuneko 1,1 puntuko igoera arina izan du, 2011. urtearekin alderatuta.

3.4. grafikoa Pertsonen mugikortasuna autoz. Autoaren erabilera. 2007-2016<sup>1</sup>.




<sup>1</sup> Guztirakoa probintzia barneko lekualdatzeen batukaria da.

Iturria: EAeko Mugikortasunaren azterlana 2007, EAeko Mugikortasunaren azterlana 2011 eta EAeko Mugikortasunaren azterlana 2016.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa**
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Lurralde baten barnean autoan<sup>9</sup> egiten diren lekualdaketen banaketari dagokionez, EAEn egindako joan-etorrien % 39,6 hiri barneko joan-etorriak dira eta % 34,6 eskualde artekoak. Bestalde, lurralde barneko joan-etorriek % 16,9 biltzen dute; lurraldeen artekoek % 6,0 eta lurraldetik kanpokoek % 3,0. EAeko Mugikortasunaren azterlana 2011 azterketaren emaitzekin alderaketa eginda, hiri barneko joan-etorrien partaidetza-tasak % 4,4 puntutan gora egin duela ikusten da, eta eskualde artekoak, berriz, bere horretan geratu direla. Auto bidezko lurralde barneko, lurraldeen arteko eta lurraldetik kanpoko joan-etorrien ehunekoa murriztu egin da.

3.5. grafikoa Autoan egindako lekualdaketen banaketa lurralde-esparruaren arabera. 2011-2016.



Iturria: EAeko Mugikortasunaren azterlana 2011 eta EAeko Mugikortasunaren azterlana 2016.

“Euskal Autonomia Erkidegoaren Mugikortasun Azterketa 2016” azterketaren arabera, hiri-esparruan ibilgailu pribatuaren bidezko mugikortasunari dagokionez, azpimarratu behar da, Donostian, barneko guztizko joan-etorrien % 31,4 autoz<sup>10</sup> egiten direla. Gasteizen, banakako modu motorizatuak guztizko joan-etorrien % 25,7 dira, eta Bilbon, aldiz, automobil bidezko mugikortasuna % 12koa baino ez da.

Era berean, azpimarragarriak dira euskal hiriburueta motordun ibilgailuen bidez sartzeari buruzko datuak, EAeko hiriburueta egiten diren joan-etorri guztiak, barnekoak ere bai, EAeko biztanleek guztira egiten dituzten joan-etorrien % 46,7 baitira, hain zuzen. Hala, hiriburueta egindako joan-etorrietan edo hiri barruan egindakoetan, automobilez<sup>11</sup> egindakoak guztizkoaren % 33,2 dira. Hiru hiriburueta erregistratutako barneko joan-etorriei soilik erreparatzen badiegu, automobila joan-etorrien % 20,1ean erabiltzen da, eta hiriburueta erakarritako joan-etorrietan, berriz, autoaren erabilera % 62,0ra igotzen da.

Kanpotik Euskadiko hiriburueta autoz egindako sarrerei dagokienez, eta mugikortasunari buruzko azken lanetan argitaratutako datuak oinarri hartuta, Bilbo da oraindik kanpotik auto gehien sartzten den hiriburu (147.362 joan-etorri egunean); ondoren Donostia dago (69.615 joan-etorri egunean), eta, azkenik, Gasteiz (52.222 joan-etorri egunean).


<sup>9</sup> Auto gidaria, auto bidaiaria eta taxia barne hartuta.

<sup>10</sup> Auto gidaria, auto bidaiaria, motoa eta taxia barne hartuta.

<sup>11</sup> Auto gidaria, auto bidaiaria eta taxia barne hartuta.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 **Errepide Bidezko Garraioa**
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraio Bide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

3.6. grafikoa Kanpotik euskal hiriburuetara autoz egindako sarrerak. 2007-2016.



Iturria: EAEko Mugikortasunaren azterlana 2007, EAEko Mugikortasunaren azterlana 2011 eta EAEko Mugikortasunaren azterlana 2016.

### b) Garraio kolektibo bidezko mugikortasuna

Atal honetan, garraio publikoan zerbitzua eskaintzen duten zenbait operadoreen egoera aztertuko dugu zerbitzua eskaintzen duten eremu geografikoren arabera. Azterketa horrek aukera ematen du autobus publikoetan bidaiarien zifrak izaten duen aldaketari buruzko ondorioak ateratzeko.

Hiru euskal hiriburuetan hiri-garraioko zerbitzuak kudeatzen dituzten autobus-konpainiek, hau da, Transportes Urbanos de Vitoria-Tuvisak (Vitoria-Gasteiz), DBusek (Donostia-San Sebastián) eta Bilbobusek (Bilbo), guztira 70.597 mila joan-etorri egin dituzte 2019an; hau da, aurreko ekitaldiarean baino % 0,9 gehiago.


Gasteizen, 16.208 mila pertsona lekualdatu ditu Tuvisak; hau da, 2018an baino % 2,8 gehiago. Hiru euskal hiriburuetan hiribusetan eginiko joan etorri guztiak aintzat hartuta, % 23 igo da Tuvisak duen parte-hartzea.

DBusek, Donostian, % 1,4ko hobekuntza izan du bidaietan aurreko urtetik, eta 2019a 29.584 mila lekualdatzerekin itxi dute. Termino erlatibotan, operadoreak EAEko hiriburuetan hiribusez eginiko bidaia guztien % 41,9 hartu ditu.

Azkenik, Bilbobusek % 1,0ko beherakada izan du 2018tik (250 mila bidaiari gutxiago) eta, beraz, 24.805 mila bidaiari lekualdatu ditu. Bizkaiko konpainiaren parte-hartze kuotari dagokionez, euskal garraio kolektiboko sistemaren erabiltzaileen % 35,1 hartu ditu.



3.7. grafikoa Hiriko garraio publikoa: EAEko hiriburuetakoko autobus-zerbitzu erregularren erabiltzaile kopuruaren bilakaera<sup>12</sup>. 1990-2019.



Iturria: Tuvisa, Bilbobus eta DBus.

Hiriarteko joan-etorriak aztertzen baditugu, bidaiariak errepidez garraiatzeko zerbitzua ematen duten operadoreak hauek dira: Bizkaibus Bizkaiko Lurralde Historikoan, Autobuses Interurbanos de Álava-AIA Araban eta Lurraldebusen txertatutako agenteak Gipuzkoan. Hiru horiek batera, 55.168 mila bidaiari lekualdatu dituzte 2019an; hau da, 2018an baino % 3,2 gehiago.

Lurraldebusen, Gipuzkoan, 25,3 milioi pertsonari eskaini zien zerbitzua; hau da, aurreko ekitaldian baino % 1,8 gehiagori; hala, bidaiarien kopuruak goranzko joera du 2006tik.

Bizkaian, Bizkaibusek, A-3700 Bilbo/ Vitoria-Gasteiz autobus-linearen emakidarekin batera, 29,3 milioi erabiltzailerik eskaintzen die zerbitzua eta, hala, % 4,4ko igoera izan du 2018tik. Honetara iritsita, gogora ekarri behar da beharrezkoa dela datu horiek Bilbo Handiaren metropoli-eremuko garraio publikoaren zerbitzuen eskaintza osoaren testuinguruan aztertzea. Eredu horretan, azken urteetan hedatze handia izan du garraio kolektiboaren eskariak.

Arabako Autobuses Interurbanos de Álava – AIA operadoreak 590 mila pertsona lekualdatu zituen, aurreko ekitaldian baino % 1,8 gehiago. Zifra horien harira, zehaztu behar da Araban hiriarteko autobusa pertsona gutxi erabiltzen dutela, beste bi lurraldeekin alderatuta are gutxiagok, lurraldearen okupazio-eredua oso bestelakoa delako. Biztanleria nabarmen pilatzen da hiriburuan eta, horren ondorioz, udalerrien arteko lekualdatzeen eskaria txikiagoa da.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa**
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

<sup>12</sup> Datuak eranskinetako taulan kontsulta daitezke: "Hiriko garraio publikoa: EAEko hiriburuetakoko autobus-zerbitzu erregularren erabiltzaileak. 1990-2019."

3.3. taula Hiriarteko garraio publikoa: hiriarteko autobus-zerbitzu erregularren erabiltzaileak. 2000-2019<sup>1</sup>.

Urteak	Gipuzkoa, Donostia izan ezik		Bizkaia, Bilbo izan ezik <sup>2</sup>		Araba, Gasteiz izan ezik <sup>3</sup>	
	bidaiariak, milakotan	Per. urteko Δ (%)	bidaiariak, milakotan	Per. urteko Δ (%)	bidaiariak, milakotan	Per. urteko Δ (%)
2000	18.461,2	--	36.062,0	--	ez esk.	--
2001	17.748,7	-3,9	38.535,9	6,9	145,5	--
2002	17.022,3	-4,1	35.115,4	-8,9	267,0	83,5
2003	16.712,0	-1,8	37.030,6	5,5	315,3	18,1
2004	16.626,6	-0,5	36.875,8	-0,4	439,2	39,3
2005	15.382,3	-7,5	34.134,2	-7,4	324,3	-26,2
2006	16.109,1	4,7	32.810,0	-3,9	374,0	15,3
2007	16.120,2	0,1	30.875,7	-5,9	349,3	-6,6
2008	17.199,1	6,7	30.195,5	-2,2	348,2	-0,3
2009	18.140,6	5,5	28.807,8	-4,6	421,0	20,9
2010	18.907,5	4,2	27.716,3	-3,8	516,4	22,7
2011	19.772,4	4,6	29.473,7	-- <sup>(2)</sup>	500,1	-3,1
2012	20.517,0	3,8	29.414,2	-0,2	495,0	-1,0
2013	21.121,0	2,9	29.252,7	-0,5	490,0	-1,0
2014	22.159,5	4,9	28.479,0	-2,6	446,7	-8,8
2015	22.920,6	3,4	27.288,7	-4,2	392,2	-12,3
2016	23.962,7	4,5	27.748,8	1,7	467,5	19,2
2017	24.436,0	2,0	27.347,0	-1,4	544,3	16,4
2018	24.845,1	1,7	28.042,5	2,5	579,7	6,5
2019	25.295,0	1,8	29.283,6	4,4	590,0	1,8

<sup>1</sup> "Hiriarteko AUTOBUSARI" buruzko datuek, Bizkaiari, Gipuzkoari eta Arabari buruzkoek, hiru aldundietako bakoitzaren emakiden autobus-mugimenduak jasotzen dituzte, lurraldearen barruan egindakoak nahiz beste bi lurraldeetako herrietara egindakoak.

<sup>2</sup> "Bizkaiako hiriarteko AUTOBUSAREN" datuek, 2011tik aurrerakoek, A-3700 Bilbo/ Vitoria-Gasteiz emakidaren linea aintzat hartzen dute: 2011n 1.076.097 pertsona garraiatu zituzten. Ez dugu aurreko urteetako daturik.

BizkaiBus (TCSA, Enkarteraciones, EAE, Pesa, EuskoTren, ADNOR eta Autobuses de Lujua) lineetan garraiatutako bidaiariak sartzen dira. Euskotren Bizkaibus sarean sartu zen 2002/12/1ean, ADNOR 2005/12/1ean eta Lujua 2006/11/1ean.

<sup>3</sup> 2003tik 2006ra bitartean erabiltzaile kopuruan egondako gorabeherak linea batean izandako aldaketen ondorio dira nagusiki; Gasteiz eta Gorbeia merkataritza-gunea lotzen zituen linea horrek.

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa, Bizkaiko Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Arabako Foru Aldundia.

### 3.3. Salgaien errepide bidezko mugikortasuna Euskadin

Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkestan 2019ari buruz eskuratutako emaitza nagusiek erakusten dute salgaien errepide bidezko garraioa Euskadin 102,1 milioi tonatara iritsi dela eta beraz, trukeen bolumenak, urtetik urtera, % 6,6ko igoera izan duela.

Eskualde arteko garraioa % 3,3 hazi da 2018tik. Aldakuntza positibo hori udalerrien artean salgaien zirkulazioak izandako gorakadak (+% 11,3) ekarri du, udalerrri barnekoa jaitsi egin baita (-% 33,3). Eskualde arteko esparruan (jatorria edo helmuga EAE) % 9,1 igo da trukeen bolumena. Hala, beste autonomia-erkidego batzuetatik jasotako karga % 4,7 igo da eta igorritako salgaien fluxua % 13,9 hazi da aurreko urtetik. Azkenik, nazioarteko zirkulazioa % 12,4 areagotu da esportazioek izandako igoeretatik (+% 25).



3.4. taula Salgaien garraioa errepide bidez EAEn. Bilakaera. 2015-2019.

Joan-etorri mota	2015		2016		2017		2018		2019	
	Tonak milakotan	Urteko Δ %	Tonak milakotan	Urteko Δ %	Tonak milakotan	Urteko Δ %	Tonak milakotan	Urteko Δ %	Tonak milakotan	Urteko Δ %
Laburpen Exekutiboa	0									
Eskualde arteko garraioa <sup>1</sup>	41.108	-18,1	42.464	3,3	43.859	3,3	44.490	1,4	45.954	3,3
Udalerrri barnekoa	8.528	-5,6	7.229	-15,2	7.830	8,3	7.953	1,6	5.305	-33,3
Udalerrri artekoa	32.580	-20,9	35.235	8,1	36.029	2,3	36.537	1,4	40.649	11,3
Eskualde arteko garraioa <sup>2</sup>	44.396	12,9	42.751	-3,7	46.908	9,7	45.157	-3,7	49.248	9,1
Beste autonomia-erkidego batzuetatik jasoa	23.674	7,2	22.219	-6,1	24.119	8,6	23.717	-1,7	24.828	4,7
Beste autonomia-erkidego batzuetara bidalia	20.722	8,4	20.532	-0,9	22.789	11,0	21.440	-5,9	24.420	13,9
Nazioarteko garraioa	5.519	3,1	6.477	17,4	6.390	-1,3	6.092	-4,7	6.849	12,4
Jasoa	2.755	0,9	3.405	23,6	3.157	-7,3	3.070	-2,8	3.072	0,1
Bidalia	2.764	5,4	3.071	11,1	3.233	5,3	3.022	-6,5	3.777	25,0
<b>EAE, guztira</b>	<b>91.023</b>	<b>-4,1</b>	<b>91.691</b>	<b>0,7</b>	<b>97.157</b>	<b>6,0</b>	<b>95.739</b>	<b>-1,5</b>	<b>102.051</b>	<b>6,6</b>


<sup>1</sup> EAE abiapuntu eta helmuga duena (udalerrri arteko garraioa eta udalerrri barneko garraioa sartzen dira).

<sup>2</sup> EAEn eta beste autonomia-erkidego batzuen artekoa.

Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta. Sustapen Ministerioa.

Salgaien garraioa lekualdatze moten arabera banatuz gero, ikusten da parte-hartze handiena eskualde arteko zirkulazioari dagokiola (EAEko guztizkoaren % 48,3), bigarren udalerrrien arteko trukeak daudela (trukeen guztizkoaren % 45,0), eta azkenik, nazioarteko garraioa, % 6,7ko parte-hartzearekin.

3.8. grafikoa Eskualde arteko salgaien garraioa EAEn eta gainerako autonomia-erkidegoen artean. 2019.



Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta. Sustapen Ministerioa.

EAEn eta gainerako autonomia-erkidegoen arteko salgaien zirkulazioari dagokionez, Gaztela eta Leonek jarraitzen du lehen bazkide komertzial izaten. 11,3 milioi tona trukaturata, eskualde arteko fluxuaren % 22,9 bereganatu du. Nafarroa da bigarren 8,7 milioi tonako bolumenarekin; hau da,




eskualde arteko zirkulazioaren % 17,7 dagokio. Kantabriak sendotu egin du hirugarren postua 6 milioi tona ingururekin (% 11,8ko kuota).

Zifra absolututan, trukaturako salgaien bolumenean igoera handiena izan duten lurraldeak Gaztela eta Leon (2018an baino 2,6 milioi tona gehiago, +% 30,2) eta Galizia (Euskadirekin trukaturako zama 545 mila tonakoa izan da, +% 24,3) dira.

Aldiz, zirkulazioan beherakada izan duten lurraldeak Madril (488 mila tonako murrizketa -% 12,6) eta Asturias (482 mila tonako beherakada aurreko ekitalditik, -% 18,5) dira.

3.9. grafikoa Eskualde barneko eta eskualde arteko salgaien errepide-garraioaren tipologia. 2019 (%).



Iturria: Salgaien Errepideko Garraioari buruzko Etengabeko Inkesta. Sustapen Ministerioa.

EAEen eskualde barruan eta eskualde artean errepidez trukaturako salgaien sailkapenak erakusten du pisu handiena duten taldeek ez dutela aldaketarik izan 2018ko ekitalditik. Kategoria nagusiak makinak, ibilgailuak eta objektu manufakturatua dira, guztizkoaren % 27,1ko kuota eskuratuta, eta atzetik dituzte mineralak eta eraikuntzako materialak % 21,4ko parte-hartzearekin, eta produktu metalurgikoak, trukaturako produktu guztien % 13 osatuz. Balio absolututan, garraiatutako bolumenari dagokionez gorakada izan duten produktuak makinak, ibilgailuak eta objektu manufakturatua (+2,4 milioi tona), petrolio-produktuak (+1,2 milioi tona) eta mineralak eta birgaldatzeko hondakinak (+1,1 milioi tona) dira. Aldiz, jaitsi egin da beste hauen truke-fluxua: erregai mineral solidoak (-391 mila tona) eta mineralak eta eraikuntzako materialak (-139 mila tona).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa**
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraio-bide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



# Tren Bidezko Garraioa

4.

## 4. Tren Bidezko Garraioa

### 4.1. Tren bidezko garraioaren eskaintza Euskadin

EAEko tren-azpiegiturak bi administratzailek kudeatzen dituzte 2013ko urtarrilaren 1az geroztik:

- ▶ Adif-Trenbide Azpiegituren Administrazioa: trenbide horietatik, Renfe operadore nagusiak Estatuko hiriburu nagusiekin lotzen du EAE. 2013ko urtarrilaren 1az geroztik, Ferrocarriles de Vía Estrecha (FEVE, Bide Estuko Trenbideak) enpresa-erakunde publikoa Adifen integratuta dago, trenbide-azpiegiturak egiteko eta mantentzeko lanei dagokienez, uztailaren 20ko Legegintzako 2012/22 Errege Dekretuak xedatutakoa betez. Egun horretatik aurrera, Renfe Operadorak eskaintzen ditu Kantauriko itsasertzeko trenbide-zerbitzuak.
- ▶ ETS-RFV (Euskal Trenbide Sarea): Euskotren operadoreak ematen ditu hiriarteko zerbitzuak, Bilboko Metroak metropoli horretan jarduten du, eta EuskoTrenen tranbiak Bizkaiko eta Arabako hiriburuetakoko hiri-eremuetan ematen ditu zerbitzuak.

Euskadiko, Estatuko eta EB-28ko trenbide-lineen 2017ko dentsitatea aztertuta (2017koak dira eskuragarri dauden datu berrienak), batetik bestera alde handiak daudela ikusten da. EAEko trenbide-sareak 563 km-ko luzera du eta trenbideen dentsitatea 77,9 m/km<sup>2</sup>-koa da, EB-28an eta Estatuan erregistratutakoa baino handiagoa (48,6 m/km<sup>2</sup> eta 31,4 m/km<sup>2</sup>, hurrenez hurren). Linea elektrifikatuak, euskal trenbide-azpiegitura guztiak aintzat hartuta, % 96,6 dira. Estatuan eta EB-28an, txikiagoa da linea elektrifikatuaren pisua; estatuan % 63,7koa da trenbide-sarearen elektrifikatuaren tasa, eta Europan, berriz, % 54koa.

4.1. taula EAEko, Estatuko eta EB-28ko trenbide-lineen dentsitatea. 2017

	Guztira	Elektrifikatu gabeak			Elektrifikatuak		
		Guztira	Guztizkoaren %	Bide bakarra	Guztira	Guztizkoaren %	Bide bakarra
<b>Luzera (Km)</b>							
EAE	563	19	3,4	19	544	96,6	247
Estatua	15.904	5.781	36,3	5.781	10.123	63,7	4.196
EB 28 <sup>1</sup>	217.236	99.888	46,0	--	117.348	54,0	--
<b>Dentsitatea (m/km<sup>2</sup>)</b>							
EAE	77,9	2,7	--	2,7	75,2	--	36,9
Estatua	31,4	11,4	--	11,4	20,0	--	8,3
EB 28 <sup>1</sup>	48,6	22,3	--	--	26,2	--	--

<sup>1</sup> EB-28ri buruz eskuragarri dauden azken datuak 2017koak dira.

Iturria: Adif, autonomia-erkidegoetako konpainiak eta partikularrak, Euskal Trenbide Sarea, Sustapen Ministerioa, EU Transport in Figures-Statistical Pocketbook 2019, Eurostat.

Ondorengo ataletan daude jasota EAEko trenbide-azpiegiturak kudeatzen dituzten bi eragileen alderdi nagusiak; Adifenak, trenbide-sare arruntaren eta zabalera metrikoko sarearen ezaugarriak berezita; eta ETS-RFVrenak. Amaitzeko, euskal trenbide-sareko operadoreek eskaintzen dituzten zerbitzuak azaldu ditugu xehe-xehe.



#### 4.1.1. Adif-Trenbide Azpiegituren Administrazioa

2018ko ekitaldiari buruz argitaratu diren azken datuei erreparatuta, Adifen trenbide-sare arruntak 337,6 km zituen, horietatik % 61,6 bi bidekoak. Linea elektrifikatuak erakunde horrek kudeatutako bideen % 92,3a dira. Renfe jarraitzen du azpiegitura horien operadore nagusi izaten, eta honako linea hauetan eskaintzen du zerbitzua:

- ▶ Bilboko aldiriak (C-1 linea, Bilbo Abando-Santurtzi; C-2 linea, Bilbo Abando-Muskiz; eta C3 linea, Bilbo Abando-Urduña).
- ▶ Donostiako aldiriak (Irun-Brinkola linea).
- ▶ Distantzia luzeko zerbitzua: Irun-Donostia-Madril ibilbidea, Gasteiz-Madril ibilbidea eta Bilbo-Madril ibilbidea egiten ditu; baita Bilbo-Bartzelona eta Irun-Donostia-Bartzelona ibilideak ere.

#### 4.2. taula Adifen eskaintzaren oinarritzko datuak, Trenbide Sare Konbentzionala. 2017-2018

Lineen luzera km-tan	2017	2018
<b>Bi bide</b>		
Irun-Donostia-Gasteiz-Miranda Ebro	--	--
Bilbo-Urduña	--	--
Bilbo-Barakaldo-Santurtzi	--	--
<b>Bi bide, guztira</b>	<b>231,1</b>	<b>207,9</b>
<b>Bide bakarra</b>		
Urduña-Miranda	--	--
Barakaldo-Muskiz	--	--
<b>Bide bakarra, guztira</b>	<b>145,0</b>	<b>129,7</b>

Iturria: Adif.

Renfek trenbide-sare arruntean egiten duen eskaintza asko zabaldu da. Hala, zerbitzua eskaintzen duten trenen kopurua % 21,1 handitu da 2018tik (8.662 tren ibili ziren EAEko hiru eskualde-lineetan), eta eskaintzako trenak-kilometroko % 17,3 igo dira. Aldiz, plazak-kilometroko pixka bat jaitsi dira, % 0,4 hain zuzen (536,6 milioi plaza-kilometro).

Renfe operadore duten aldirietako lineetan, zirkulazioan ibilitako tren kopurua pixka bat igo da, +% 0,1: 127.975 tren, eta eginiko trenak-kilometroko 4,2 milioi izan dira (+% 0,7). Plazak-kilometroko % 0,5 jaitsi dira: 887,8 milioi.

Donostia linean, eskaintza hazi egin da tren kopuruari dagokionez (2018an baino +% 1,3 tren gehiago), eta zirkulazioa 24.595 trenekoa izan da; trenak-kilometroko +% 2 igo dira eta 1,7 milioi gaituzte. Aurkako norabidean, plazak-kilometroko % 0,2 jaitsi dira eta urtea 391,3 milioirekin itxi dute.

Bilboko aldirietako zerbitzuak jaitsi egin dira pixka bat: 103.380 treneko mugimendua izan da eta trenak-kilometroko 2,5 milioi izan dira (bi kasuetan, 2018an baino -% 0,2 gutxiago). Plazak-kilometroko 496,7 milioira jaitsi dira (aurreko urtetik -% 0,8).



4.3. taula Renferen eskaintzaren oinarrizko datuak, trenbide sare konbentzionala. 2017-2019

	2017	2018	2019
<b>ESKUALDEETAKO LINEAK</b>			
Linea kopurua <sup>13</sup>	3	3	3
Eskaintako tren kopurua	7.205	7.150	8.662
Eskaintako kilometroko tren kopurua	2.113.468	2.100.034	2.463.016
Eskaintako kilometroko plaza kopurua	541.453.930	538.486.485	536.599.356
<b>ALDIRIETAKO LINEA</b>			
Linea kopurua	4	4	4
Eskaintako tren kopurua	128.652	127.830	127.975
Eskaintako kilometroko tren kopurua	4.252.501	4.174.474	4.203.413
Eskaintako kilometroko plaza kopurua	907.783.143	892.553.408	887.820.728

Iturria: Renfe.

#### 4.1.2. ETS-Euskal Trenbide Sarea

ETS-Euskal Trenbide Sareak kudeatzen dituen azpiegiturek osatzen dute EAEko trenbide-eskaintza. Bertan, EuskoTren eta Bilboko Metroak eskaintzen dituzte zerbitzuak. Hemen aipatuko ditugu datu adierazgarriak:

##### a) Euskotrenek zerbitzua emateko erabiltzen dituen ETSren azpiegiturak.

2019an ETSren trenbide-sarearen (bertan aritzen da EuskoTren) hedapena 187,4 km-koa zen, 2018an eta 2017an bezalaxe. Aipagarria da bide elektrifikatuen nagusitasuna, bide guztien % 97,4 osatzen baitute (182,5 km). Bide bakarreko tartekak 121,8 km-tan daude; hau da, ETSren bide sistemaren (hor aritzen da EuskoTren) % 65ean. Bi bideko tartekak 65,6 km hartzen dituzte. Zifra hori bikoiztu egin da 2010etik (30,9 km), eta horrek erakusten du azken urteetan bideak bitan banatzen egin den ahalegina.

Honako linea hauetan eskaintzen du EuskoTrenek zerbitzua:

- 1) Bilbo-Donostia linea eta Amorebieta-Bermeo adarra: 109 kilometro inguruko ibilbidean (Bilbo-Donostia zatia), EuskoTrenek hainbat lotune ditu, garraioko beste linea edo modu batzuekin. Zehazki, Bizkaiko hiriburuan, Boluetako geltokian, Bilboko Metroa hartzeko lotunea dago; Galdakaon, Usansoloko ospitalera joateko EuskoTrenen mikrobusa hartzeko; Zumaian, EuskoTrenen autobusak har daitezke (Urola eskualdean ematen dute zerbitzua); eta, Donostian, Amarako geltokian, EuskoTrenen Topo trena har daiteke, Hendaianantz joateko. Horrez gain, linea horrek Zornotza-Bermeo adarra du, 29 kilometro baino gehiagoko luzera duen trenbidea.
- 2) Lasarte Oria-Donostia-Hendaia linea: Bilbo-Donostia linearen sare berbera erabiltzen du linea horrek Errekaldeko eta Amarako geltokien artean (Gipuzkoan biak ere), eta haietatik Bilbo-Donostia linea horretako trenak hartzeko aukera ere badago.
- 3) Bilbo (Deustu)-Lezama: 22 kilometrotik gorako ibilbidea du, eta Txorierriko herriekin lotzen du Bilbo. Bilboko Metroarekin konexioa du Alde Zaharreko geltokian.

2019an EuskoTrenek eskaintako zerbitzuek beherakada izan zuten tren kopuruari begira (2018an baino % 2,3 gutxiago), eta 275,3 mila treneko zirkulazioa erregistratu zen. Eskaintako plazak, berriz, % 2 jaitsi dira; guztira 90,2 milioi eserleku. Eskaintako kilometroak pixka bat murriztu dira (-% 0,5), eta 5,7 milioi km-ren inguruan daude. Kilometro bakoitzeko plazak % 0,3 jaitsi dira; urte amaieran 2.101,6 milioi.

<sup>13</sup> 2014 urtean Renfek eskualdeko lineen zerbitzuak berrantolatu ditu, zenbait linea batuz; hori dela eta linea kopurua gutxitu da, baina zerbitzuak handitu.



4.4. taula Oinarrizko datuak gaur egun Euskotrenek zerbitzua ematen dion ETSren azpiegiturari buruz. EuskoTrenek eskainitako zerbitzuak. 2017-2019

	2017	2018	2019
Linea kopurua	3	3	3
Linea arrunten luzera (km)	187,4	187,4	187,4
Bide bakarreko linea arrunten luzera (km)	121,8	121,8	121,8
Bi bideko linea arrunten luzera (km)	65,6	65,6	65,6
Elektrifikatutako linea arrunten luzera (km)	182,5	182,5	182,5
Elektrifikatu gabeko linea arrunten luzera (km)	4,9	4,9	4,9
Eskainitako tren kopurua	275.532	281.736	275.289
Eskainitako plaza kopurua	92.374.786	92.005.295	90.200.369
Eskainitako km kopurua	5.518.007	5.756.613	5.727.938
Eskainitako kilometroko plaza kopurua	2.090.104.768	2.107.468.020	2.101.617.476

Oharra: Tranbia-lineei buruzko datuak ez dira sartu. Larreinetako funikularrari buruzko datuak aintzat hartu dira.

Iturria: Euskal Trenbide Sarea (ETS), lineen kopuru eta luzerari buruzko informazioari dagokionez -Euskotren, tren-, toki-eta kilometro-kopuruaren eskaintzari buruzko informazioari dagokionez.

#### b) Bilboko Metroak zerbitzuak emateko erabiltzen dituen ETSren azpiegiturak

2019an Bilboko Metroak zerbitzua emateko erabiltzen duen ETS sarearen ezaugarriek bere horretan iraun dute aurreko urtetik; 45,1 km eta 41 geltoki bi lineatan banatuta. 1. linea - Plentzia-Basauri, eskuinaldeko udalerrak zeharkatzen dituena; eta 2. linea- Santurtzi-Basauri, metropoli-eremuaren ezkerrekoa konektatzen duena. Bilboko Metroak lurpeko 26 geltoki eta lur gaineko 15 ditu. 80 sarbide eta 69 atari ditu.

2017ko apirilean abian jarri zen Bilboko Metroaren 3. linea, eta hala, hiri inguruko trenaren egitura sendotu zen, jada 3 linea baititu. Horrez gain, beste jarduketa batzuk aurreikusita daude, eta horrek berekin ekarriko luke datozen urteetan sareari beste bi linea gehitzea: 4. linea- Matiko-Errekalde (proiektuan) eta 5. linea- Etxebarri-Ospitalea (proiektuan).

4.5. taula Bilboko Metroaren azpiegitura eta eskaintzaren oinarrizko datuak. 2017-2019

	2017	2018	2019
Linea kopurua	2	2	2
Geltoki kopurua	41	41	41
Lineen luzera (km)	45,1	45,1	45,1
Eskainitako km kopurua	4.717.433	4.783.526	4.788.345
Eskainitako kilometroko tren kopurua	21.240.967	21.461.180	21.312.759
Eskainitako kilometroko plaza kopurua	3.039.879.581	3.071.017.091	3.069.075.913

Iturria: Bilboko Metroa.

2019an Bilboko Metroak eskainitako zerbitzuek izandako bilakaerak aldaketak izan ditu. Eginiko kilometro kopurua handitu egin da pixka bat (+ % 0,1): 4,8 milioi km. Bestalde, kilometro bakoitzeko trenak % 0,7 murriztu dira (21,3 milioi), eta kilometro bakoitzeko plazak, berriz, % 0,1 jaitzi dira (2019ko amaieran 3.069 milioi).

#### c) Euskotrenek zerbitzua emateko erabiltzen dituen ETSren tranbien azpiegiturak

ETSk kudeatutako tranbia-azpiegiturak, EuskoTrenek zerbitzua emateko erabiltzen dituenak, dira Euskadiko tren-sistema osatzen duten azken elementua. Tranbia sistema Gasteizko Tranbiak eta Bilboko Tranbiak osatzen dute, eta sistema hori garatzeko, programa berriak aplikatu eta lehendik dauden lineak hedatu egin behar dira. Datozen urteetan sare hori hedatzen jarraitzea da helburua.



Bizkaiko hiriburuko tranbia-egitura egonkor dago 2019tik. 14 geltokiko eta 5,53 kilometroko linea du Atxuri eta La Casilla geltokien artean. Bi bideko lineen luzera 3,81 km-koa da; hau da, linea guztien % 68,9 osatzen dute, eta bide bakarrek 1,72 km egiten dituzte (sare osoaren % 31,1).

Bilboko tranbia-eskaintzak jaitsiera txiki bat izan du (ratio guztiak % 0,1 jaitsi dira). Zehazki, zirkulazioan ibilitako trenen kopurua 62.175era jaitsi da (2018an baino 85 tren gutxiago), eta eskainitako plazak 7.772 milioi izan dira (aurreko urtean baino 10.625 gutxiago). Eskainitako kilometroak 336,8 km-ra jaitsi dira (338 gutxiago), eta bidaiariei erabilgarri jarritako kilometro bakoitzeko plazak 42,1 milioi jaitsi dira (kilometroko 42.170 plaza gutxiago).

Gasteizko tranbia-azpiegitura bi lineatan banatutako 20 geltokik osatzen dute. Sarearen luzerak 8,05 km-tan jarraitzen du; horietatik % 99,6 bi bidekoak. Eskaintzari dagokionez, trenen eta plazen kopurua % 0,3 handitu da; hau da, 97,9 mila tren eta 14,9 milioi eserleku. Aldiz, kilometroak eta kilometro bakoitzeko plazak % 0,3 jaitsi dira: 494 mila kilometro eta kilometro bakoitzeko 75,1 milioi plaza.

4.6. taula EuskoTrenen tranbia-eskaintzaren oinarritzko datuak 2018-2019

	Bilbo		Gasteiz	
	2018	2019	2018	2019
Linea kopurua	1	1	2	2
Geltoki kopurua	14	14	20	20
Lineen luzera (km)	5,53	5,53	8,05	8,05
Lineen luzera (bide bakarra)	1,72	1,72	0,03	0,03
Lineen luzera (bide biko)	3,81	3,81	8,02	8,02
Gehieneko edukiera (pertsonak) (*)	192 (50 eserleku)	192 (50 eserleku)	244 (52 eserleku)	244 (52 eserleku)
Aplikaturako edukiera (pertsonak) (*)	125 (50 eserleku)	125 (50 eserleku)	152 (52 eserleku)	152 (52 eserleku)
Eskainitako tren kopurua	62.260	62.175	97.575	97.876
Eskainitako plaza kopurua	7.782.500	7.771.875	14.831.400	14.877.152
Eskainitako km kopurua	337.183	336.845	495.780	494.045
Eskainitako kilometroko plaza kopurua	42.147.845	42.105.675	75.358.487	75.094.880

(\*) EuskoTrenek aplikaturako edukiera txikiagoa da fabrikatzaileak zehaztutako gehieneko edukiera baino. Gehieneko erosotasuneko irizpideen arabera zehazten da, Europako erreferentzia oinarri hartuta, metro koadroko 4 pertsona.

Iturria: Euskotren.

#### 4.1.3. Euskal Trenbide Sare berria - ETS eta Adif

Europar Batasunak Euskadi Atlantikoko trenbide-korridorean sartzeari erabaki zuen, eta erabaki horrek Euskadiko trenbide-sareak EBko sareetan duen parte hartzea areagotu du, batetik, eta bultzada handia izan da, bestetik, EAEko trenbide-sare berriarentzat (“Euskal Y” deritzonarentzat). EAEko azpiegituren proiektu nagusietako bat da, eta Gasteizen trenbide-lotune bat jartzeko aukera ematen du, Estatuko gainerako lurraldeekin komunikatzeko, eta Europako gainerako lurraldeekin komunikatzeko, Irunen Europara doazen trenbideekin lotuz eta Bilboko porturantz hurbilduz. Trenbide-azpiegitura horrek pertsonak eta salgaiak garraiatuko ditu. Gainera, “Euskal Y”-ak EAEko hiru hiriburuak lotuko ditu, haien arteko joan-etorriak bizkortuz eta haietan iraunkortasuna hobetuz.

Azpiegitura hori Europako bideen zabalera estandarrera egokitu da, eta aukera emango du Euskal Autonomia Erkidegoa Europa barneko abiadura handiko sarean sartzeko. Espainiako bideen ezaugarriak izateak Europarekin lotzeko sortu izan dituen oztopoak gaintzea ekarriko du, eta, horrenbestez, Europako merkatuetan sartu ahal izango da, kostu txikiagoarekin.



Sare berriak 172 kilometroko ibilbidea izango du. Trenbide berriaren trazaduraren % 60 ezkutuan egongo da, 80 tunelen bidez (104,3 km), % 9,9 obra horren barruan sartu diren 71 biaduktore gainean joango da, eta gainerako % 29,5 aire zabalean. Trenbide-azpiegitura berriak sei geltoki izango ditu: Bilbo (Abando), Gasteiz (Arriagako parkea), Donostia (Atotxa), Astigarraga, Irun eta Ezkio-Itsaso.

Gobernu zentrala arduratuko da abiadura handiko trenbide-azpiegitura eraikitzeaz, Sustapen Ministerioaren bidez. Alde horretatik, "Euskal Y"-aren harira, Ministerioak eta EAEko Administrazioak akordio bat sinatu zuten 2006ko apirilaren 24an; akordio horren bidez, Sustapen Ministerioak eskumenaren zati bat Eusko Jaurlaritzari laga zion, eta berarentzat gorde zituen Araba eta Bizkaiko tarteen eraikuntza, "Euskal Y"-ak Arrasaten, Elorrioren eta Bergaran izango dituen lotuneen eraikuntza eta Bilboko eta Gasteizko sarrerena. Adif arduratuko da lan horiek egiteaz eta 2.536 milioi euroko inbertsioa izango da guztira.

Eusko Jaurlaritza, berriz, Gipuzkoako azpiegituraren zati handienaz arduratuko da. Euskal Trenbide Sarea sozietate publikoa Bergara-Irun-Donostia tartea egiteaz arduratuko da; 1.642 milioi euroko aurrekontua izango du, eta Estatuari eman beharreko kupotik kenduko da zenbateko hori.

2019ko abenduan, ETSk garatutako "Euskal Y"-aren Gipuzkoako adarrean proiektua zatituta dagoen 20 tarteetatik 16 amaitu ziren (% 80), tarte bat (Hernani-Astigarraga) bere bigarren fasea osatzeke dago (% 5) eta gainerako 3 tarteak proiektuan daude (% 15). Vitoria/Gasteiz-Bilbao adarrean, Adif enpresari dagokio obrak egitea, eta 2019ko itxieran 19 zatietatik 9 amaituta zeuden.

## 4.2. Pertsonen mugikortasuna trenez Euskadin


### 4.2.1. Hiriko garraioa / metropolikoa

#### a) *Bilboko Metroa*

Bilboko Metroko bidaiarien fluxuak goranzko joerari eutsi dio 2019an. Ekitaldia amaitzean, 91,6 milioi bezero erabilia zuten metro-zerbitzua; hau da, 1995ean abian jarri zutenetik izandako bezero kopuru handiena. Datu erlatiboegi begiratuta, ezeztapenetan % 1,8ko igoera erregistratu da aurreko urtetik (+1.650,6 mila bidaiari). Linea eginiko azterketak erakusten du sarearen trazaduraren enborra % 1,4 hazi dela 2018tik (+697,4 mila bidaiari), neurri handi batean, Zazpikaleetako geltokiaren bidaiarien bolumena handitu delako. 1. lineako zirkulazioa % 3,1 handitu da, batez ere, Areeta, Erandio eta Algortako geltokietan erabiltzaile kopurua handitu delako; eta azkenik, 2. linean, baliozkotzeak % 1,9 igo dira, jende gehiago ibili baita Atiz, Bagatza eta Sestao geltokietan.



4.1. grafikoa Hiriko eta metropoli-inguruko garraio publikoa: Bilboko metroaren erabiltzaile kopuruaren bilakaera. 1995-2019.



<sup>1</sup> Martxan jarri zutenetik (1995eko azaroaren 11tik) urte amaiera arte.

Iturria: Bilboko Metroa.

Estazio bakoitzeko bidaiarien bolumenari begiratuta, jende gehieneko terminalak Bilboren erdialdekoak dira. Lehenengo postuan dago Zazpikaleak, 7,2 ezeztapenekin. Zirkulazioan 2018koarekin alderatuta izandako igoera, neurri handi batean, 3. linea sendotu izanak azaltzen du. Geltoki erabiliaren sailkapenean, Moyua du atzetik, 6.401.254 txartel-baliozkotze jasota, eta ondoren, Indautxu (6.279.735 bidaia), Santimami laugarren (6.215.224 pertsona) eta Abando bosgarren, 6.202.976 bezerorekin. Bost geltoki horietako erabiltzaileak, guztira, 32,3 milioi baino gehiago dira; hau da, Bilboko Metroko bidaiari guztien % 35,3. Itsasadarraren ertzeko geltokiei erreparatuta, Barakaldok eta Gurutzetak jarraitzen dute ezker aldean jende gehien biltzen duten geltokiak izaten (3,5 milioi bidaiari baino gehiago); eta eskuineko ertzean, berriz, Areetak jarraitzen du jende gehien biltzen duen geltoki izaten. 3,4 milioi pertsona igaro ziren bertatik.

Tituluak erabiltzeari dagokionez, Creditans-ek hegemoniari eusten dio. % 52,5eko parte-hartzea lortuta, Bilboko Metroan gehien erabiltzen den txartela da. Bigarren lekuan jarraitzen du Gizatrans txartelak, joan-etorrien % 13,5ekin. Atzetik dira 2017an sortutako txartelak: Bidai 50ek % 11,6ko kuota du, eta Bidai Orok % 6,1ekoa. Aldizkako txartelak erabilera murriztua du (joan-etorrien % 2,3an erabiltzen da).

#### b) EuskoTren Tranbia


EAEko tranbiaren hiri-garraio publikoko zerbitzua Euskotrenek eskaintzen du, eta zerbitzu horretako erabiltzaileen bolumena 11,4 milioi pertsona inguruan dago; datu erlatiboetan adierazita, % 0,9 igo da 2018tik.





4.2. grafikoa Hiriko garraio publikoa: bidaiarien bilakaera EuskoTrenen Tranbian. 2002-2019.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa**
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



<sup>1</sup> Martxan jarri zutenetik (2002ko abenduaren 12tik) urte amaiera arte.

Iturria: Euskotren.

2019an Bilboko Tranbiaren jarduera % 2,2 igo zen aurreko ekitalditik. Hala, 3.059,5 mila bidaiari egin ziren, 2018an baino 66,7 mila bidaiari gehiago.

Bestalde, Gasteizko Tranbian, % 0,4 igo dira ezeztapenak 2019an. Hala, bezero guztien kopurua 8,3 milioi pertsonatik gorakoa izan da (+33,6 mila lekualdatze). 2009an zerbitzua abian jarri zenetik izandako erregistroak aintzat hartuta, 2019an berriro hautsi du marka tranbia-jarduerak Bizkaiko hiriburuan.

4.2.2. Hiriarteko garraioa

Renfek sare arruntean nahiz zabalera metrikoko sarean, eta Euskotrenek<sup>14</sup> eskaintzen dute Euskadin hiriarteko tren-garraio publikoa. Tren-zerbitzu erregularretako bidaiarien kopurua, osotara, 41,0 milioi pertsonara igo da, eta horrek esan nahi du % 3,7ko igoera izan dela 2018tik. Aurreko urteetan bezala, Renfek sare arruntean eta Euskotrenek bidaiari kopuru handiagoa izan dute. Renfek sare metrikoan, aldiz, jaitsiera izan du.

Operadoreen araberako banakatzek erakusten du Renfek, bide-sare arruntarekin, 16.431 mila lekualdatzerekin itxi duela urtea; hau da, bidaiari kopurua % 0,7 handituta (+117 mila lekualdatze). Renfe sare arruntaren parte-hartzea, Bilboko Metroa sartu gabe, EAEn trenez egiten den hiriarteko zirkulazio osoaren % 39,9koa da.


Lurralde-esparrua aintzat hartuta, Bilboko erdiguneko lineek (C-1 Bilbo Abando-Santurtzi, C-2 Bilbo Abando-Muskiz eta C-3 Bilbo Abando-Urduña) % 1,4ko hobekuntza erregistratu dute 2018tik; hau da, aurreko ekitaldian baino 145,2 mila erabiltzaile gehiago. Hala, 10,6 milioi lagunek Bizkaiko lineak erabili dituzte 2019an. Donostia gunean (C1 Irun-Brinkola) % 0,5 jaitsi da bidaiarien kopurua, eta horrek esan nahi du 5.857,5 mila pertsonak erabili dutela (-28,3 mila erabiltzaile aurreko urtearekin alderatuta). Bizkaiko lineek Renfek zerbitzua emateko erabiltzen duen EAEko sare arrunteko bidaiarien % 64,4 hartzen dituzte; gainerako % 35,6k linea gipuzkoarra erabiltzen dute.

<sup>14</sup> Datuak eranskinetako taulan kontsulta daitezke: "Hiriarteko garraio publikoa: tren-zerbitzu erregularretako bidaiari kopurua. 2000-2019."

Zabalera metrikoko trenbide-sarean, Renfek % 2ko jaitsiera izan du 2018tik. Hala, 848 mila lekualdatze egin dira Bilbo-Balmaseda ibilbidean; zifra absolututan adierazita, 17 mila bezeroko jaitsiera. 2019an Renferen pisua, zabalera metrikoko sarean, % 2,1 jaitsi zen hiriarteko joan-etorrietan EAeko tren-garraio osoa aintzat hartuta; Bilboko Metroa kanpoan utzita.

Euskotrenen, berriz, 23.723 mila bidaiari ibili ziren 2019an, aurreko urtean baino % 6,2 gehiago (1,4 milioi lekualdatze inguru gehiago). Erregistratutako bilakaera hori Gipuzkoako zein Bizkaiko lineetan izandako bezeroen gorakadak ekarri du. Hala, Gipuzkoako erabiltzaileak 2018an baino % 6,5 gehiago izan dira (+795 mila lekualdatze), neurri handi batean, Donostia-Hendaia linea hobetzeagatik. Bizkaian areagotzea ekarri duena Bilboko Metroaren 3. lineako (Euskotrenek kudeatua) bidaiarien kopuruaren gorakada izan da (+297 mila bezero). Hala, Euskotrenek bereganatu ditu EAEn trenez eginiko hiriarteko lekualdatze guztien % 57,9.

4.3. grafikoa Hiriarteko garraio publikoa: tren-zerbitzu erregularren erabiltzaile kopuruaren bilakaera. 1980-2019.



<sup>1</sup> Zerbitzu hauek sartzen dira: Bilboko aldirietako zerbitzua (C-1 linea, Abando eta Santurtzi artekoa; C-2 linea, Abando eta Muskiz artekoa; eta C-3 linea, Abando eta Urduña artekoa), eta Donostiako aldirietako zerbitzua (Irun eta Brinkola arteko linea).

<sup>2</sup> Bilbo eta Balmaseda arteko lineari buruzko datuak.

Iturria: Renfe eta Euskotren.

Laurogeiko hamarkadaren hasieratik honainoko denboraren analisi sakonak erakusten du hiriarteko tren-garraioak –Bilboko Metroa kanpoan utzita– 14,3 milioi bidaiari galdu dituela Euskadin. Horri dagokionez, garrantzitsua da adieraztea garraio kolektiboaren bilakaeraren analisia egiteko, beharrezkoa dela eremu geografiko bakoitzeko eskaintza betetzearen ikuspuntu orokorra. Hala, eta zehazki Bizkaiko Lurralde Historikoari dagokionez, erabiltzaileen eskura beste garraio publiko kolektibo batzuen eskaintza handiagoa jartzearen ondorioz etorri da jaitsiera hori. Hala nola Bilboko Metroak Renferen aldirietako zerbitzuaren bidaiari asko xurgatu ditu Bizkaiko hiriburuen metropoli-eremuan.




### 4.2.3. Eskualde arteko garraioa

Eskualde arteko tren-garraioan, Renfek kudeatzen ditu abiapuntua eta/edo xedea EAEn duten lekualdatzeak, bai tren-sare arruntean, bai zabalera metrikoko trenbide-sarean<sup>15</sup>.

Zabalera metrikoko sareari dagokionez, eskura dauden daturik berrienak 2014ko ekitaldikoak dira. Orduan, 56 mila pertsonara iritsi ziren lekualdatzeak.

Renferi eta distantzia luzeari dagokionez, Madrilgo Erkidegoak jarraitzen du EAEko bidaiarien abiapuntu eta xede nagusi izaten<sup>16</sup>, eta lekualdatze guztien herena baino gehiago bereganatzen ditu (% 37,3). Katalunia (% 31,5) eta Gaztela eta Leon (% 18) datoz ondoren. Eskualde barneko zirkulazioak (abiapuntua eta xedea Euskadi) Renferen distantzia luzeko sareko garraio osoaren % 1,1 osatzen du.

4.4. grafikoa Bidaiarientzako Renferen distantzia luzeko garraio-zerbitzua Abiapuntua eta/edo xedea (%). 2019.



<sup>1</sup>Ez da kontuan hartu eskualde arteko zirkulazioa (EAE abiapuntu eta xede duena)

Iturria: Renfe

### 4.3. Tren bidezko salgaien zirkulazioa Euskadin

Renfe eta Euskotren dira abiapuntua eta/edo xedea EAEn duten salgaien tren-garraioaz arduratzen diren operadoreak. Renfek biltzen ditu trenbide-sare arruntaren zirkulazioa eta zabalera metrikoko sarea 2016tik. 2019an salgaien zirkulazioa, osotara, 1.786,6 mila tonatara jaitsi da; hau da, aurreko urtetik % 14,7 jaitsi da.

<sup>15</sup> 2013ko urtarrilaren 1az geroztik, FEVE enpresa Renfe Operadora enpresan integratuta geratu da.

<sup>16</sup> Eranskineko taulan eskura daitezke datuak: "Bidaiarientzako Renferen distantzia luzeko garraio-zerbitzua. Abiapuntua eta/edo xedea. 2018-2019."



4.7. taula EAE abiapuntu eta/edo xede duten tren bidez garraiatutako salgaien bolumena. 2002-2019.


(tona, milakotan)

Urteak	Renfe, tren-sare arrunta konbentzionala	Renfe, zabalera metrikoko sarea	EuskoTren	GUZTIRA
2002	--	1.127,9	157,0	1.284,9
2003	5.475,9	1.041,6	154,2	6.671,7
2004	5.932,5	1.092,4	164,9	7.189,8
2005	4.441,9	1.054,4	148,0	5.644,3
2006	4.601,3	1.063,4	166,4	5.831,1
2007	4.479,3	1.088,4	173,6	5.741,3
2008	4.148,4	1.053,6	183,3	5.385,3
2009	2.767,5	823,7	121,4	3.712,6
2010	3.158,6	976,7	139,6	4.274,9
2011	2.953,8	948,7	138,9	4.041,5
2012	2.159,6	862,0	84,1	3.105,7
2013	2.375,6	816,9	0,5	3.193,0
2014	2.528,4	694,7	0,3	3.223,4
2015	2.384,2	745,4	8,3	3.137,9
2016		2.399,7	51,4	2.451,1
2017		2.211,2	46,7	2.257,9
2018		2.082,9	12,5	2.095,4
2019		1.781,1	5,5	1.786,6

2016tik aurrera, Renferen datuak aintzat hartzen du Renfe Metrikoa  
Iturria: Renfe eta Euskotren.

Renfek trenbide-sare arruntean nahiz zabalera metrikoko sarean mobilizatutako zama 1.781,1 mila tonara jaitsi da (-301,8 mila tona); termino erlatiboetan, urtetik urtera, % 14,5 jaitsi da. Renfek jarraitzen du izaten abiapuntua eta/edo xedea Euskadi duten salgaien bolumen handiena trenez garraiatzen duen konpainia; zirkulazio osoaren % 99,7 bereganatzen du.

4.5. grafikoa Renfek garraiatu dituen eta EAE abiapuntu eta/edo xede duten salgaien bolumena. 2017-2019.



2016tik aurrera, Renferen datuak aintzat hartzen dute Renfe Metrikoa  
Iturria: Renfe

Lurraldi historikoka, Gipuzkoak biltzen du EAEko salgaien fluxu osoaren erdia baino gehiago (% 55), Bizkaia % 39,5 eta gainerakoa (% 5,5) abiapuntua eta/edo xedea Araba duten trukeei dagokie.



Urtetik urterako bilakaerari dagokionez, salgaien zirkulazioa % 25,6 jaitsi da Bizkaiko tren-geltokietan, eta horrek esan nahi du 241,5 mila tonako jaitsiera izan dela. Zehatzago esanda, urtearen amaieran, guztira, 703 mila tona ziren trenez trukatuak Bizkaian.


Gipuzkoako tren-jarduera komertziala % 7,2 jaitsi da (-76 mila tona), eta garraiatutako salgaien bolumena 980,1 mila tonakoa izan da.

Arabak bilakaera positiboa izan du, trukeak, 2018koekin alderatuta, % 19,3 igo baitira (+15,8 mila tona). Hala, Araban, salgaien fluxua, guztira, 98,2 mila tonakoa izan da.

2019an eskualde arteko zirkulazioarenak izan dira EAEko truke guztien % 98,5. Horrek esan nahi du 1.755,4 mila tonaren abiapuntua edo xedea Euskadin egon dela. Autonomia-erkidegoka, Gaztela eta Leon bihurtu da EAEren bazkide komertzial nagusi, eskualdeen arteko trukeen % 28 bereganatuta. Bigarren lekuan Madrilgo Erkidegoa dago (% 20,4), eta hirugarrenean Asturias (% 18,5), atzetik Aragoi (% 10,8) eta Katalunia (% 8,3) dituela. Bost lurralde horien multzoak abiapuntua edo xedea EAEen duten eskualdeen arteko salgaien % 85,9 biltzen ditu.

Azkenik, eskualde barneko zirkulazioa (abiapuntua eta xedea EAE dituen) 25,9 mila tonara iritsi da; hau da, trukeen fluxu osoaren % 1,5 bereganatu ditu<sup>17</sup>.

4.6. grafikoa Renfek EAEren eta gainerako autonomia-erkidegoen artean 2019an garraiatutako salgaiak (%).



Iturria: Renfe


Garraiatutako produktuen tipologiari dagokionez, zirkulazioaren % 86,4 lau kategoriatako salgaiei dagozkie. Hala, siderurgiako produktuek Renfek garraiatutako salgaien % 43,2 osatzen dute, eta bigarren lekuan dira lurreko Garraio Unitate Intermodalak (UTI)<sup>18</sup> % 18rekin. Horien atzetik daude autoak (% 15,3) eta produktu kimikoak (% 10).

<sup>17</sup> Eranskineko taulan eskura daitezke datuak: "Renferen salgaien garraioa: Autonomia-erkidegoak abiapuntu edo xede. 2019."

<sup>18</sup> Garraio Intermodaleko Unitatea (UTI) garraio intermodalerako egokitutako edukiontzia, kutxa mugikorra edo erdi-atoia da.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa**
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraio-bide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak


4.7. grafikoa Renfek garraiatu dituen eta EAE abiapuntu eta/edo xede duten salgaien tipologia. 2019 (%).



Iturria: Renfe.

2019an 5,5 mila tona garraiatu zituen Euskotrenek; termino erlatiboetan, aurreko urtean baino % 56 gutxiago. Jaitsiera ekarri dute Ariz-Lebario lineako egur-garraioaren beherakadak (2018an 10,8 mila tona izatetik 2019an 4,6 mila tona izatera) eta Bermeo-Lasarte linean aluminio-garraioa kentzeak (1,8 mila tona 2018an).

4.8. grafikoa EuskoTrenek garraiatu dituen eta EAE abiapuntu eta/edo xede duten salgaien bolumena. 2002-2019.



Iturria: Euskotren.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa**
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

# Aire Bidezko Garraioa

5.


## 5. Aire Bidezko Garraioa

### 5.1. Aire-garraioaren eskaintza Euskadin

Euskadiko merkataritzako aire-trafikoak joera gorakorrari eutsi dio 2019an: guztira 63.865 operazio erregistratu ditu, hau da, 2018aren aldean % 4,4ko hazkundea izan du. Euskadiko hiru aireportuetan igoera izan du aireontzien zirkulazioak. Zehazki, aurreko ekitaldiaren aldean, Gasteizko aire-garraioak % 8,8ko igoera izan du, Bilbokoak % 3,8koa eta Donostiako terminalak % 1,8koa.

Bizkaiko aireportuak izan du EAEko aireontzi-zirkulaziorik handiena, Euskadiko operazio guztien bolumenaren % 77,3 izan baitu; jarraian, Arabako aireportua dago (EAEko aire-garraioaren totalaren % 14,7), eta azkenik Donostiako terminala (gainerako % 8,0).

5.1. grafikoa Aire-garraioa: aireontzien trafikoa<sup>1</sup> Euskadiko aireportuetan 2000-2019



<sup>1</sup> Trafiko-datuak merkataritzako aireontzien trafikoen datuei dagozkie.

Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa - Aena.


### 5.2. Pertsonen mugikortasuna aire-garraioz Euskadin

2019an Euskadiko aireportuko bidaiarien trafikoa 6.385,5 mila lagunetik gorakoa izan da, zeinak aurreko ekitaldiaren aldean % 8,6ko hobekuntza esan nahi baitu. EAEko aireportu-sistemak izandako bidaiari-kopuruaren igoeraren hazkundea estatuko aireportuek erregistratutakoa baino altuagoa da, 2018ren aldean estatuko aireportuek % 5,6ko igoera izan baitute.





5.2. grafikoa EAEko bidaiarien aire-trafikoa: aire-zerbitzuetako bidaiarien eboluzioa 1980-2019.



**Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa - Aena.**

2019an erabiltzaileen bolumena handitu egin da Euskadiko hiru aireportuetan. Zehazki, Bizkaiko terminaleko joan-etorriak % 8,1 igo dira 2018ko zifraren aldean: 2019an 5.896,4 mila lagunek bidaiatu dute Loiuako aireportutik edo aireportura. Bilbok EAEko bidaiarien aire-trafikoaren % 92,3 hartu du.

Bilboko aireportua jatorri edo helmuga duten bidaiari-kopuruaren igoeraren arrazoia aireportu horretan estatuko eta nazioarteko trafikoa handitu izana da: lehena % 7,1 igo da, eta guztira 3.349 mila joan-etorri erregistratu dira, eta bigarrena % 9,5 igo da, 2.548 mila erabiltzailerekin.

Joan-etorri nazionalen artean, garrantzitsuenak Madril-Barajas Adolfo Suárez aireportua (834,6 mila bidaiari, 2018ren aldean % 3 gehiago) eta Bartzelona-El Prat dira (623,7 mila joan-etorri, aurreko ekitaldian baino % 0,7 gutxiago). Bi terminal horiek estatuko zirkulazioaren % 43,5 hartu dute, eta ia Bizkaiko aireportuaren aire-trafikoaren laurdena (% 24,7).

Bilboko aireportuak dituen nazioarteko lotune nagusiak Munich-Franz Josep Strauss (324,8 mila pertsonako joan-etorria, 2018an baino % 7,3) eta Paris-Charles de Gaulle (313,7 mila pertsonako joan-etorria, aurreko urtean baino % 35,6 gehiago) dira.

Bilboko terminalean jatorria edo helburua duten bidaiarien kopururik handiena atzerriko hirien artean Londresetik edo Londresera doa; dituen hiru aireportuen artean, guztira 359 mila bidaiari erregistratu ditu, hau da, zifra erlatiboetan Bilboko aireportuko nazioarteko trafikoaren % 14,1. Londreseko terminalen ostean daude Munich, Paris (Charles de Gaulle eta Le Bourget aireportuak) eta Amsterdam, zeinak hurrenez hurren nazioarteko joan-etorrien % 12,7, % 12,3 eta % 9,5 izan baitituzte.

5.1. taula Bidaiarien trafikoa Euskadiko aireportuetan: bidaiarien eboluzioa, aireportuka 2000-2019.

Urteak	Bilbo		Donostia		Vitoria-Gasteiz		Guztira	
	Mila pertsona	Δ per. urteko %	Mila pertsona	Δ per. urteko %	Mila pertsona	Δ per. urteko %	Mila pertsona	Δ per. urteko %
2000	2.527,8	--	283,8	--	123,4	--	2.935,0	--
2001	2.475,4	-2,1	281,1	-1,0	128,7	4,3	2.885,2	-1,7
2002	2.450,6	-1,0	271,2	-3,5	98,8	-23,2	2.820,6	-2,2
2003	2.842,4	16,0	283,8	4,7	101,9	3,1	3.228,1	14,4
2004	3.390,8	19,3	295,6	4,1	94,4	-7,3	3.780,8	17,1
2005	3.841,5	13,3	308,8	4,5	91,4	-3,2	4.241,7	12,2
2006	3.871,1	0,8	368,0	19,2	173,1	89,4	4.412,2	4,0
2007	4.280,7	10,6	466,5	26,8	173,2	0,1	4.920,4	11,5
2008	4.169,0	-2,6	403,2	-13,6	67,5	-61,0	4.639,7	-5,7
2009	3.652,0	-12,4	315,3	-21,8	39,9	-40,9	4.007,2	-13,6
2010	3.883,3	6,3	286,1	-9,3	41,8	4,8	4.211,2	5,1
2011	4.044,1	4,1	248,0	-13,3	28,0	-33,0	4.320,1	2,6
2012	4.167,2	3,0	262,4	5,8	24,1	-13,9	4.453,7	3,1
2013	3.794,2	-9,0	245,0	-6,6	6,8	-71,9	4.046,0	-9,2
2014	3.982,9	5,0	245,0	0,0	7,1	4,4	4.235,0	4,7
2015	4.258,9	6,9	255,1	4,1	11,2	57,7	4.525,2	6,9
2016	4.570,4	7,5	261,3	3,6	36,4	231,6	4.868,2	7,8
2017	4.964,3	8,6	279,4	6,9	81,6	124,0	5.325,2	9,4
2018	5.454,7	9,9	287,1	2,8	139,6	71,1	5.881,3	10,4
2019	5.896,4	8,1	318,3	10,9	170,8	22,3	6.385,5	8,6

Iturria: Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa - Aena.

Donostiako aireportuan, bidaiarien zirkulazioa % 10,9 igo da 2018ren aldean, eta guztira, 318,3 mila joan-etorritik gora izan dira bertan.


Gipuzkoako terminalean jatorria edo helmuga duten trukeak nagusiki estatukoak dira (% 99,7). Zehazki, Madril-Barajas Adolfo Suárez aireportua da Donostiarekin lotunea duen aireportu nagusia: guztira 197,9 bidaiariko trafikoa izan du (+% 9,0, 2018aren aldean). Bartzelona-El Prat aireportua bigarren posizioan dago, guztira 119 mila bidaiarirekin, hau da, urtetik urterako % 14,3ko hazkundearekin. Bi terminal hauen baturak Hondarribiko aireportuko trukeen % 99,6 osatu du.

Bidaiarien nazioarteko fluxua oso baxua izan da (aire-trafikoaren totalaren % 0,3), zeinak termino absolutuetan mila bat bidaiari baino ez baitira izan.

2019an Gasteizko aireportuko jarduerak % 22,3ko igoera izan du 2018ren aldean. 2019an 170,8 mila bidaiarik erabili dituzte Arabako azpiegiturak bidaietarako. Bidaiarien igoera honek 2019ko aire-trafikoaren 2007an orduan erregistratu zuen errekor historikoa terminal horrek erregistratutakoetara izandako datuetara gerturatu du.



5.3. grafikoa Bidaiarien jatorria/helmuga, aireportuka 2019.



Iturria: Aena, Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa.

Jatorri eta helburuen inguruko analisiak islatzen duenez, Gasteizko aireportuko bidaiarien trafikorik zabalena estatuko hegaldiek hartzen dute (totalaren % 62,9); nazioarteko trukeek, aldiz, airez egiten diren joan-etorrien % 37,1 hartzen dute.

Gasteizko terminaleko estatuko konexioetan, Tenerife lehenengo postura igo da aire-trafiko totalaren % 27,1rekin; zifra absolutuetan, 46,3 mila joan-etorri hartu ditu (2018aren aldean, % 78,6 gehiago). Bigarren posizioan Sevilla dago (35 mila bidaiari, +% 4,2rekin), zeinak joan-etorri totalen % 20,5 hartzen baitu.


Nazioarteari dagokionez, Forondako aireportuarekin joan-etorrien trukeerik handiena izan duten hiriak Milan (35,9 mila joan-etorri, 2018an baino % 1,1 gehiago) eta Kolonia dira (19,9 mila bidaiari, aurreko urtean baino % 26,6 gutxiago). Nazioarteko konexioak totalaren % 21 eta % 11,6 dira, hurrenez hurren.

### 5.3. Salgaien aire-zirkulazioa Euskadin

EAEko aireportu-sistemak 2019an erregistratutako merkataritzako salgaien trafikoa 2018an baino % 3,3 altuagoa izan da; guztira Euskadiko aireportuen trukeen bolumena 65,4 mila tonakoa da. Euskadiko salgaien aire-garraioan egon den igoera hau estatu osoan erregistratu dena baino baxuagoa da. Estatuan, hain justu, aurreko ekitaldiaren aldean % 5,6ko igoera erregistratu da.



5.4. grafikoa Salgaien aire-zirkulazioa Euskadin. 1980-2019 bilakaera.



Iturria: Aena, Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa.

Arabako aireportuan merkataritza-trukeak igo dira: terminalak urtetik urterako % 3,7ko hazkundera erregistratu du eta 64,5 mila tonaren mugimendura iritsi da. Ondorioz, EAEko salgaien aire-trafikoak bilakaera positiboa izan du. Horrela, Gasteiz laugarren postuan finkatu da estatuko aireportu-azpiegitura guztien artean (estatuko bolumen osoan % 6ko parte-hartzea du), salgaien zirkulazioari dagokionez. Lehenengo hiru posizioetan Madril-Barajas Adolfo Suárez, Zaragoza eta Bartzelona-El Prat aireportuak daude, estatuko aire-sisteman hurrenez hurren % 52,3, % 17,1 eta % 16,6ko karga-trukearekin.

2019an Leipzig eta Sevilla izan dira Arabako terminaleko lotune nagusiak. Gauzak horrela, Alemaniako aireportuan jatorria edo helburua duten salgaien bolumena 20,6 mila tonakoa izan da (2018koaren aldean, % 2,7 altuagoa) eta 6,5 mila tonakoa Sevillako aireportuarekin egindako trukean (2018koaren aldean, % 4,9 altuagoa).

Bilboko terminaleko salgaien zirkulazioa % 19,4 jaitsi da 2018aren aldean; guztira, 979,5 tonako mugimendua erregistratu da 2019an.

Loiuko aireportuaren lotune nagusiak Frankfurt am Main aireportua eta Madril-Barajas dira. Alemaniako hiri horrekin egindako trukea 435,8 tona igo da (2018aren aldean, -% 11,6), eta horrela, bigarren urtez jarraian bere lehenengo merkataritza-bazkide izan da. Madril jatorri edo helmuga duen karga 224,2 tonatarra jaitsi da (iazko ekitaldiaren aldean -% 6,2).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa**
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

5.2. taula Salgaien trafikoa, aireportuka<sup>1</sup>. 1980-2019.

Urteak	Bilbo		Donostia		Vitoria-Gasteiz		Guztira	
	t.	urteko Δ (%)	t.	urteko Δ (%)	t.	urteko Δ (%)	t.	urteko Δ (%)
1980	3.376,5	-	428,3	-	0,3	-	3.805,1	-
1985	4.080,5	3,9	466,6	1,7	703,1	372,0	5.250,2	6,7
1990	2.805,0	-7,2	366,0	-4,7	533,8	-5,4	3.704,8	-6,7
1995	3.879,4	6,7	292,6	-4,4	13.782,1	91,6	17.954,1	37,1
2000	4.038,7	0,8	176,1	-9,7	35.609,7	20,9	39.824,5	17,3
2001	3.674,5	-9,0	154,1	-12,5	36.309,5	2,0	40.138,0	0,8
2002	3.699,2	0,7	127,1	-17,5	42.425,2	16,8	46.251,5	15,2
2003	3.813,6	3,1	96,6	-24,0	40.155,9	-5,3	44.066,0	-4,7
2004	4.152,8	8,9	325,2	236,6	43.683,4	8,8	48.161,4	9,3
2005	3.956,7	-4,7	415,2	27,7	34.785,8	-20,4	39.157,8	-18,7
2006	3.417,7	-13,6	282,2	-32,0	31.575,7	-9,2	35.275,6	-9,9
2007	3.230,9	-5,5	245,9	-12,9	31.359,3	-0,7	34.836,1	-1,2
2008	3.178,8	-1,6	63,8	-74,1	34.989,7	11,6	38.232,3	9,7
2009	2.691,5	-15,3	31,1	-51,3	27.388,0	-21,7	30.110,6	-21,2
2010	2.548,0	-5,3	18,8	-39,5	27.960,6	2,1	30.527,4	1,4
2011	2.633,5	3,4	32,0	70,2	34.692,3	24,1	37.357,8	22,4
2012	2.262,8	-14,1	35,6	11,3	34.652,3	-0,1	36.950,7	-1,1
2013	2.538,4	12,2	20,4	-42,7	37.482,5	8,2	40.041,3	8,4
2014	2.855,6	12,5	30,7	50,5	42.160,7	12,5	45.047,0	12,5
2015	2.871,7	0,6	3,3	-89,2	46.371,9	10,0	49.246,9	9,3
2016	2.974,3	3,6	4,6	37,6	52.134,7	12,4	55.113,6	11,9
2017	1.956,4	-34,2	3,2	-28,8	60.479,4	16,0	62.439,0	13,3
2018	1.215,6	-37,9	6,7	109,4	62.145,3	2,8	63.367,6	1,5
2019	979,5	-19,4	0,4	-94,0	64.463,3	3,7	65.443,2	3,3

<sup>1</sup> Ez ditu barne hartzen iragaitzazko salgaiak


Iturria: Aena, Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa.

Azkenik, Donostiako aireportuko salgaien garraioaren jarduera gutxienekoa izan da. Trukatutako salgaien produktu-kopurua 0,4 tonatara jaitsi da; aurreko ekitaldiaren aldean, % 94 baxuagoa izan da. 2019an Donostiako terminaleko ia joan-etorri guztiak Madrid-Barajas Adolfo Suarez aireportuarekin egin dira (kargaren % 96,5).

EAEko hiru aireportuen arteko salgaien bolumenaren banaketari dagokionez, nabarmentzekoa da Gasteizko aireportua gailendu dela, guztira egiten diren trukeen % 98,5 hartu baitu. Gainerakoek (% 1,5) jatorri edo helmuga moduan Bilboko terminala dute (2018an % 1,9). Euskadiko aire-sisteman garraiatutako kargari dagokionez, Donostiako aireportuaren parte-hartzea ez da esanguratsua izan.




5.5. grafikoa Salgaien jatorria/helburua, aireportuka. 2019.



Iturria: Aena, Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa.

Euskadiko aireportuetako salgai-fluxuen jatorria eta helmuga aztertuta, nazioarteko parte-hartzeak totalaren % 72,5 hartu du. Gasteizen atzerriko trukeek Forondako terminalak guztira garraiatutako kargaren % 72,4 hartu dute. Bilbon, salgaien trafikoaren % 76,3 nazioarteko alorrekoa izan da. Donostiako nazioarteko trafikoa oso baxua izan da.

5.6. grafikoa Salgaien nazioarteko trafikoa, zonalde geografikotan. 2019 (%).



<sup>1</sup> Aintzat hartzen ditu EB-28, Errusiar Federazioa, Norvegia, Serbia eta Montenegro, Suitza, Turkia, Ukraina eta Bielorrusia.

Iturria: Aena, Espainiako Aireportuak eta Aireko Nabigazioa.

Salgaiak zonalde geografikoetan duten banaketak Europak gainerako lurraldeen aldean duen nagusitasuna erakusten du; izan ere, trafiko totalaren % 99,1 hartu du. Gainerako % 0,9k Afrika izan du jatorri edo helmuga moduan. Alemania eta Espainia izan dira Euskadiko aireportuekin produktu-truke handiena izan duten herrialdeak; totalaren % 37,1 eta % 27,5 hartu dituzte, hurrenez hurren. Jarraian, Portugal (% 13,2), Belgika (% 11,3) eta Erresuma Batua (% 5,3) daude. Horrela, bost merkataritza-bazkide nagusiek EAEko aireportuetan trukatzeko direnen % 94,8 hartu dute.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa**
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

# Itsaso Bidezko Garraioa

6.

## 6. Itsaso Bidezko Garraioa

### 6.1. Itsasoko garraioaren eskaintza Euskadin

EAEko itsasoko garraioaren eskaintza Anavas elkarteko (Euskal Ontzijabeen Elkarte) flotak osatzen du. 2019an, Anavasen, 12 ontzi-enpresa zeuden sartuta (2018an baino 1 gutxiago), eta enpresa horiek, 87 ontzi zituzten guztira (zifra horrek bere horretan jarraitzen du 2017tik). Karga osoaren bolumen osoa % 10,1 hazi zen aurreko ekitalditik, eta 828,8 mila tona gordinera iritsi zen. Pisu hilaren tona kopuruak % 11,7ko igoera izan zuen; balio absolutuetan adierazita, 1,4 milioi tona inguru.

6.1. taula Itsasoko garraioa: EAEko ontzidiaren ezaugarriak. 1995-2019.

Urtea <sup>3</sup>	Enpresen kopurua	Itsasontzien kopurua	TG <sup>1</sup>	PHT <sup>2</sup>
1995	13	62	344.397	577.850
2000	11	56	328.937	543.033
2001	10	52	322.295	519.898
2002	12	53	321.193	532.790
2003	12	55	332.021	546.588
2004	11	50	455.803	796.813
2005	11	67	524.523	917.116
2006	11	71	542.901	938.900
2007	14	68	535.720	927.707
2008	14	80	574.292	970.421
2009	13	73	393.275	631.405
2010	13	69	365.719	590.947
2011	12	66	396.280	663.302
2012	12	65	396.128	663.013
2013	11	55	336.059	592.931
2014	11	54	331.535	584.104
2015	11	54	332.746	585.042
2016	13	57	349.645	607.848
2017	13	87	679.769	1.110.279
2018	13	87	752.809	1.245.610
2019	12	87	828.771	1.391.469

<sup>1</sup> Tona gordin.

<sup>2</sup> Pisu hilaren tonak.

<sup>3</sup> "n+1" urtearen urtarilaren 1eko datuak.

Iturria: Anavas.

Flotaren sailkapenari erreparatuta, aurreko ekitalditik aldaketa txiki batzuk izan direla ikus daiteke. Atoiontzien eta barneko garraiorako ontzien multzoa da kategoriarik ugariena: 31 ontzi ditu (2018ko kopuru berdina), flota osoaren % 35,6. Bigarren postuan, PGLak daude (petrolio-gas likidotuak): 29 ontzi (2018an baino bat gutxiago), eta termino erlatiboetan, flota osoaren % 33,3 osatzen dute. Hirugarren posturaino igo da tanke-ontzien multzoa: 13 ontzi ditu (2018an baino 2 gehiago), eta flota osoaren % 14,9 osatzen dute. Horien atzean daude Bulk Carrier motako ontziak eta edukiontzia garraiatzekoak (12 ontzi, flota osoaren % 13,8), eta, azkenik, hozkailu-ontziak (2 ontzi, flota osoaren % 2,3).

2019an euskal merkataritza-ontzidiaren batez besteko adina 11 urte ingurukoa izan da, Espainiako pabiloi osoaren adinaren azpitik, 15 urtekoa<sup>19</sup> izan baita Espainiakoa, eta munduko ontzidiaren adinaren azpitik ere bai, batez bestean 18,7 urtekoa izan baita.

<sup>19</sup> 2020ko urtarilaren 1ean, Anave





6.2. taula Itsasoko garraioa: EAEko ontzidiaren tipologia. 2016-2019.


Ontzi mota	Itsasontzien kopurua			
	2016	2017	2018	2019
Atoiontzia eta barne-trafikoak	32	32	31	31
Tanke-ontzia	6	9	11	13
PGL (petrolio-gas likidotuak)	2	31	30	29
Bulk Carrier eta edukiontzia garraiatzekoak	14	12	12	12
Hozkailu-ontziak	2	3	3	2
<b>GUZTIRA</b>	<b>57</b>	<b>87</b>	<b>87</b>	<b>87</b>

Iturria: Anavas.

## 6.2. Pertsonen mugikortasuna Euskadiko itsasoko garraioan

Interes orokorreko portuak aintzat hartuta, Bilboko Portua da EAEn pertsonen itsas garraioko zerbitzua eskaintzen dien itsas azpiegitura bakarra; Pasaiaiko Portuan salgaien zirkulazioan aritzen dira.

6.1. grafikoa Bidaiarien zirkulazioa Bilboko Portuan. 2003-2019.



Iturria: Bilboko Portu Agintaritzak (linea erregularra eta gurutzontziak).

Bilboko Portu Agintaritzak emandako datuen arabera, % 20ko jaitsiera izan du bidaiarien bolumenak Bizkaiko portuan 2018ko datuekin alderatuta. Azken urtean 160,5 mila pertsonako zirkulazioa izan da.

Bilboren eta Portsmouth portu britainiarraren arteko linea erregularren zerbitzuko bidaiarien kopurua % 8 murriztu da aurreko urtetik. Hala, bi portu horien arteko zirkulazioa 105,1 mila bezeroraino jaitsi da 2019an. Beherakada hori erabiltzaileen lehorreratzetean (-% 8,9) eta ontziratutako pertsonen kopuruan (-% 7) gertatu da.



6.3. taula Pertsonen itsas garraioa Bilboko Portuan. 2013-2019.

(Pertsona kop.)

Portua	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	% Δ 19/18
Linea erregularra	85.975	81.036	94.981	104.028	102.337	114.173	105.096	-8,0
▪ Ontziraturakoak	42.957	40.455	47.171	51.703	49.322	55.864	51.954	-7,0
▪ Lehorreraturakoak	43.018	40.581	47.810	52.325	53.015	58.309	53.142	-8,9
Gurutzantziak	56.004	80.206	70.542	86.598	84.209	86.458	55.448	-35,9
▪ Linearen hasiera	5.814	1.749	2.156	1.203	2.303	1.562	710	-54,5
▪ Linearen amaiera	5.866	1.728	1.877	2.503	3.959	1.629	751	-53,9
▪ Bidean	44.324	76.729	66.509	82.892	77.947	83.267	53.987	-35,2
<b>GUZTIRA</b>	<b>141.979</b>	<b>161.242</b>	<b>165.523</b>	<b>190.626</b>	<b>186.546</b>	<b>200.631</b>	<b>160.544</b>	<b>-20,0</b>

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza.

2019an 50 gurutzantzi porturatu ziren Bilboko Portuan (2018an baino 9 gutxiago), barruan, guztira, 554 mila pertsonarekin. Horrek esan nahi du, termino erlatiboetan, % 35,9 jaitsi zela gurutzantzien erabiltzaileen kopurua 2018tik. Beheranzko bilakaera horren arrazoia, batez ere, bideko bidaiarien beherakada da (-% 35,2): 54 mila turista inguru erregistratu ziren; aurreko urtean baino 29,3 mila pertsona gutxiago.

### 6.3. Salgaien itsas zirkulazioa Euskadin

EAEko bi portu komertzialetan, Bilbon eta Pasaian, salgaien zirkulazioak 2018ko mailari eutsi dio (38,8 milioi tona). Horren ondorioz, trukeen bolumenak urte batetik bestera izandako aldaketa ia hautemanezina da (-% 0,07).

6.2. grafikoa Salgaien itsas zirkulazioa Bilboko eta Pasaiko portuetan. 1980-2019 bilakaera.



Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiko Portu Agintaritza.


Bilboko Portuari begira jarrita, salgaien fluxua 35,6 milioi tonakoa izan da; hau da, aurreko urtekoa baino zertxobait txikiagoa (-% 0,4).

Bilboko Portuak Estatuko portu-azpiegituren antolamenduan laugarren postua sendotu du, eta Cartagenako portuaren (34,5 milioi tona) gainetik dago. Sailkapeneko lehen hiru postuetan Algeciras (109,4 milioi tona), Valentzia (81,1 milioi tona) eta Bartzelona (67,7 milioi tona) daude.



Bizkaiko portuaren lehiakortasuna egonkor dago: Estatuko salgaien itsasoko zirkulazioan % 6,3ko partaidetza du.

6.3. grafikoa Salgaien itsas zirkulazioa Bilboko eta Pasaia portuetan. 1985-2019 bilakaera.



Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaia Portu Agintaritza.

Salgaien zirkulazioa mugimendu motaren arabera nola banatzen den aztertuta, ikusten da Bizkaiko portuan jasotako produktuen kopurua % 3,4 igo dela 2019an, eta beraz, deskargak 23,1 milioi tonara iritsi dira. Kargatutako salgaien kopurua % 6,7 jaitsi da aurreko urtetik. Hala, Bilboko Portutik abiatzen diren produktuen bolumena 12,4 milioi tonara jaitsi da. Bilboko portuko jardueren egiturari dagokionez, trukeen % 64,9 deskargatutako salgaiak dira eta % 34,8, berriz, kargatutako produktuak.

Azkenik, portuko fluxu osoan hornidurek duten kuota baxua da: % 0,3. 2019an ez da tokiko zirkulazioko mugimendurik izan portuko instalazioan.

6.4. taula Bilboko eta Pasaia portuen zirkulazioa, mugimenduaren arabera. 2015-2019.

Kontzeptua	Bilbo					Pasaia				
	2015	2016	2017	2018	2019	2015	2016	2017	2018	2019
Deskargak	20.464,3	19.766,1	21.637,3	22.314,2	23.062,9	2.316,1	1.947,6	1.664,2	1.733,2	1.829,9
Kargak	11.935,6	12.182,6	12.567,7	13.269,3	12.383,4	1.422,4	1.446,2	1.255,5	1.355,4	1.368,0
Tokiko zirkulazioa	359,0	0,9	0,0	0,2	0,0	--	--	--	--	--
Hornidurak	115,9	109,4	111,7	111,7	114,7	31,6	33,3	29,1	25,1	25,1
Arrantza	--	--	--	--	--	23,2	27,6	26,0	24,6	21,9
<b>Guztira</b>	<b>32.874,7</b>	<b>32.067,3</b>	<b>34.306,7</b>	<b>35.695,4</b>	<b>35.561,0</b>	<b>3.793,4</b>	<b>3.454,7</b>	<b>2.974,8</b>	<b>3.138,3</b>	<b>3.244,9</b>

Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaia Portu Agintaritza.

Trukatutako produktu motari erreparatuta, salgai likidoen eta gainerako produktuen multzoak bilakaera positiboa izan du 2019an; aldiz, salgai solidoak eta merkantzia orokorra jaitsi egin dira. Salgai likidoek % 1,6 egin dute gora (+% 94,9 gas naturala, +% 0,7 beste salgai likido batzuk), eta petrolio-produktuak % 10,6 jaitsi dira.

Bizkaiko portuko trukeen bolumenean kategoria bakoitzak duen partaidetzari dagokionez, pisurik handiena, % 58,6, salgai likidoei dagokie (% 41,2 petrolio-produktuak, % 11,8 gas naturala, eta %

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa**
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

5,6 beste salgai likido batzuk), eta atzetik dituzte salgai orokorrak (% 28) eta salgai solidoak (% 13,2).

6.5. taula Bilboko eta Pasaiaiko portuetako zirkulazioa, produktu motaren arabera. 2016-2019.

(Tonak, milakotan)

Kontzeptua	Bilbo				Pasaia			
	2016	2017	2018	2019	2016	2017	2018	2019
<b>Salgai likidoak</b>	<b>18.087,2</b>	<b>19.783,8</b>	<b>20.490,5</b>	<b>20.821,5</b>	--	--	--	--
Petrolio-produktuak	15.614,7	16.236,4	16.367,3	14.639,7	--	--	--	--
Gas naturala	1.178,2	1.989,0	2.156,1	4.201,3	--	--	--	--
Beste salgai likido batzuk	1.294,4	1.558,5	1.967,2	1.980,5	--	--	--	--
<b>Salgai solidoak</b>	<b>4.362,1</b>	<b>4.543,2</b>	<b>4.757,9</b>	<b>4.681,2</b>	<b>1.099,2</b>	<b>834,4</b>	<b>1.003,0</b>	<b>1.031,3</b>
<b>Salgai orokorrak</b>	<b>9.499,5</b>	<b>9.868,0</b>	<b>10.335,1</b>	<b>9.943,6</b>	<b>2.294,7</b>	<b>2.085,3</b>	<b>2.085,6</b>	<b>2.166,6</b>
Edukiontzietan	6.373,0	6.464,6	6.807,7	6.717,6	--	--	--	--
Beste salgai orokor batzuk	3.126,5	3.403,4	3.527,4	3.226,0	--	--	--	--
<b>Gainerakoak</b>	<b>118,5</b>	<b>111,7</b>	<b>111,9</b>	<b>114,7</b>	<b>60,8</b>	<b>55,1</b>	<b>49,7</b>	<b>47,0</b>
<b>Guztira</b>	<b>32.067,3</b>	<b>34.306,7</b>	<b>35.695,4</b>	<b>35.561,0</b>	<b>3.454,7</b>	<b>2.974,8</b>	<b>3.138,3</b>	<b>3.244,9</b>

Iturria: Bilboko Portu Agintaritzak. Pasaiaiko Portu Agintaritzak.

Bilboko Portuko salgaien zirkulazioaren azterketa geografikoak erakusten du trukeen herenak (% 32,1) Europa Atlantikoa duela jatorria eta/edo helmuga, eta hori da Bizkaiko portuaren merkatu nagusia. Herrialdeei erreparatuta, Erresuma Batua da Europa Atlantikoko bazkiderik handiena, 3,4 milioi tonako bolumena baitagokio. Horrek esan nahi du % 9 jaitsi dela 2018tik. Herrialde anglosaxoiaren kuota Bilboko itsas fluxu guztiaren % 9,5era jaitsi da. Bigarren postuan Espainiak jarraitzen du. 2018tik % 3ko beherakada izan du (2,3 milioi tona), eta zirkulazio globalean duen partaidetza % 6,6 jaitsi zaio (2018an % 6,8).


Ozeanoaz gaindiko esparruan, bigarren merkatu geografikoa Ipar Amerika da merkatu geografikoen salgaien zirkulazioan duten garrantziari begiratuz gero: bolumen osoaren % 17,6 dagokio. Herrialdeka, Ameriketako Estatu Batuak bihurtu dira Bizkaiko Portuaren bazkide komertzial nagusi; izan ere, trukeak % 23,9 areagotu dira (3,6 milioi tona) eta Ameriketako Estatu Batuen partaidetza fluxu globalaren % 10,2ra igo da.

Portuarekin egiten diren trukeen bolumena aztertuta, hirugarren postuan Errusia dago: 3,3 milioi tonako zirkulazio komertziala dagokio (2018koa baino % 257,7 gehiago). Errusiak Bilboko Portuaren itsas merkataritza osoaren % 9,4 ordezkutzen du.



6.4. grafikoa Salgaien zirkulazioa Bilboko eta Pasaiaiko portuetan: salgaien tipologia. 2019 (%).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa**
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portu Agintaritza.

Pasaiaiko Portu Agintaritzak 2019ko ekitaldiari buruz emandako informazioaren arabera, salgaien zirkulazioa % 3,4 areagotu da aurreko urtetik. Zenbaki absolututan, 3,2 milioi tona trukatu dira.

Jatorria eta helmuga Pasaiaiko Portua duten trukeek bilakaera positiboa izan dute. Hala, kargatutako salgaien kopurua % 0,9 handitu da aurreko urtetik, eta deskargen bolumenen % 5,6 handitu da. Hala, Pasaiaiko Portuak izaera inportatzaileari eusten dio; izan ere, deskargek hartzen dute zirkulazio osoaren % 56,4, eta karga pleitatuak, berriz, % 42,2.

Hauek dira Pasaiaiko Portuko salgaien zirkulazioko bi produktu-kategoria nagusiak: salgai orokorrak (portuko merkataritzaren % 66,8) eta salgai solidoak (truke guztien % 31,8).

Urtetik urterako bilakaera erakusten du salgai solidoek eta salgai orokorrek bilakaera positiboa izan dutela 2018ko ekitaldiarekin alderatuta (+% 2,8 eta +% 3,9, hurrenez hurren).

6.5. grafikoa Bilboko eta Pasaiaiko portuen zirkulazioa, herrialdearen arabera. 2019.




Iturria: Bilboko Portu Agintaritza. Pasaiaiko Portu Agintaritza.

Pasaiaiko Portuak 2019an izandako bazkide komertzial nagusiei begiratuta, Erresuma Batua da trukeen bolumen handiena izandako herrialdea, eta hari dagokio portuko jardueraren % 21,5. Herrialde anglosaxoiarekin egiten den zirkulazioa, batez ere, inportazioarena da; izan ere, deskargatutako salgaien bolumena trukeen fluxu osoaren % 81,9 da. Belgikak jarraitzen du bigarren postuan, % 15,1eko partaidetzarekin, eta hirugarren postura igo dira Herbehereak, portuko zirkulazio globalaren % 8,9ko pisuarekin.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa**
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

6.6. grafikoa Salgaien itsas zirkulazioa Bermeoko Portuan. 1990-2019 bilakaera.




Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Bermeoko Portuko salgaien itsas zirkulazioa 222,4 mila tonara jaitsi da. Hala, 2018tik, urte batetik besterako aldaketa negatiboa izan du, -% 8,6koa.

Eragiketak jatorriaren arabera banakaturaz gero, ikusten da deskargatutako salgaiak % 22,4 jaitsi direla; hau da, termino absolutuetan, 2018an baino 31,2 mila tona gutxiago. Karga-bolumena % 11 igo da aurreko urtetik, 10,9 mila tona. Bermeoko Portuan 2019an pleitatutako kargak portu-jarduera osoaren % 49,7 osatzen du. Horietatik % 48,7 deskargak dira eta gainerako % 1,6a arrantza.

6.7. grafikoa Salgaien itsas zirkulazioa Bermeoko Portuan: salgaien tipologia. 2019. (%)



Iturria: Eusko Jaurlaritza.

Bermeoko Portuan trukaturako salgaiak zer motatakoak diren aztertuta, partaidetza handiena izan duen taldea produktu siderurgikoa da (portuko zirkulazioaren % 61,3). Bigarren postura jaitsi da igeltsuaren merkataritza, bolumen osoaren % 18 hartuta, eta atzetik du zuraren trukea, Bermeoko Portuko jardueraren % 17,2rekin.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa**
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

# Beste Garraiobide Batzuk eta Intermodalitatea

7.



## 7. Beste garraiobide batzuk eta intermodalitatea

### 7.1. Beste garraiobide batzuk

#### 7.1.1. Kable bidezko garraioa

Atal honetan, Euskadiko kable bidezko garraio-sistemaren ezaugarriak xehe azalduko ditugu. Pertsonak soilik erabiltzekoa den kable bidezko garraioa Artxanda, Larreinetako, Mamarigako eta Igeldoko funikularrez eta Arangoiti, La Salve, Solokoetxe, Begoña eta Ereagako igogailuez osatua dago. Guztiak Bizkaian daude, Igeldoko funikularra izan ezik, Donostian baitago.

7.1. taula EAEko funikularren azpiegituren ezaugarriak.

	Igeldoko f.	Artxandako f.	Larreinetako f.	Mamarigako f.
Bidaiari kopurua ibilgailuko	65	70	70	45
Ibilbidearen iraupena	3,2 min	3,18 min	10 min	1,6 min
Abiadura linean	1,5 m/s	5 m/s	2 m/s	6 m/s
Desnibela	151 m	226,49 m	342 m	44,43 m
Batez besteko malda	% 45	% 22,9	% 35	% 12,6

Iturria: Euskadiko Garraio Behatokia (OTEUS).

Kable bidezko garraioen azterketa azpiegitura bakoitzari berea egin behar zaio; izan ere, Solokoetxe eta Begoñako (azken horrek 2014ko uztailean utzi zion zerbitzua eskaintzeari) igogailuetako zirkulazioari buruzko informazioa ez dago eskuragarri, eta ezinezkoa da aurreko ekitaldiekin alderatzea.

Funikular-sistemako pertsonen zirkulazioa % 5,5 hazi da 2018tik. Lekualdatzeak funikular guztietan igo dira Larreinetakoan izan ezik, horretan % 4,1 jaitsi baita aurreko ekitalditik. Igoera handienak Artxandako funikularrak (+% 10,8) eta Igeldoko funikularrak (+% 7,4) izan dituzte.



7.2. taula Pertsonen garraioa kable bidez. 2013-2019.

(Bidaiariak, milakotan)

Modua	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	% Δ 19/18
Artxandako funikularra	565	614	729	773	830	932	1.033	10,8
Larreinetako funikularra	156	146	165	149	139	140	134	-4,1
Igeldoko funikularra	420	482	564	706	775	788	846	7,4
Mamarigako funikularra <sup>1</sup>	821	1.015	590	975	1.036	1.073	1.082	0,9
<b>FUNIKULARRAK GUZTIRA</b>	<b>1.962</b>	<b>2.257</b>	<b>2.048</b>	<b>2.603</b>	<b>2.780</b>	<b>2.933</b>	<b>3.095</b>	<b>5,5</b>
Arangoitiko igogailua <sup>2</sup>	--	--	--	--	--	--	--	--
Salveko igogailua <sup>3</sup>	--	--	--	--	--	--	--	--
Solokoetxeko igogailua <sup>4</sup>	--	--	--	--	--	--	--	--
Begoñako igogailua <sup>4</sup>	--	--	--	--	--	--	--	--
Ereagako igogailua	312	345	362	363	359	372	385	3,6
<b>GUZTIRA IGOGAILUAK<sup>5</sup></b>	<b>312</b>	<b>345</b>	<b>362</b>	<b>363</b>	<b>359</b>	<b>372</b>	<b>385</b>	<b>3,6</b>
<b>GUZTIRA<sup>5</sup></b>	<b>2.274</b>	<b>2.602</b>	<b>2.410</b>	<b>2.966</b>	<b>3.139</b>	<b>3.305</b>	<b>3.481</b>	<b>5,3</b>

<sup>1</sup> Mamarigako funikularra 2010eko irailean zabaldu zen, eta horrenbestez, urte horretako datuak irailetik abendura bitartekoak dira. 2013tik aurrera doakoa da metroaren erabiltzaileentzat.

<sup>2</sup> 2008az geroztik, ez dugu Arangoitiko igogailuari buruzko daturik. Igogailu hori geldirik dago 2010eko abendutik.

<sup>3</sup> La Salveko igogailua doakoa da 2008ko maiatzaren 1etik, eta pertsona kopurua zenbatzeari utzi diote.

<sup>4</sup> 2013an eta 2014an, Solokoetxe eta Begoñako igogailuei buruzko datuak ez daude eskura. Begoñako igogailuak 2014ko uztailen utzi zion zerbitzua eskaintzeari.

<sup>5</sup> Ez dira sartu ez Arangoitiko, ez La Salveko, ez Solokoetxeko, ez Begoñako igogailuen datuak, ez baitaude eskuragarri.

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa; Eusko Jaurlaritza; EuskoTren, eta Artxandako funikularra.

Pertsonen garraioa kable bidez aintzat hartuta, kontuan izan behar da 2013tik Ereagako igogailuari buruzko datuak bakarrik ditugula. Igogailu horrek 2018ko datuekin alderatuta, % 3,6ko igoera izan du erabiltzaileetan azken urte honetan (+13 mila pertsona). Gainerako igogailuei dagokienez, Arangoitiko igogailuak geldirik jarraitzen du 2010eko abendutik, La Salveko igogailua doakoa da 2008tik; beraz, data horretatik ez du erabiltzaileen erregistrorik; Begoñako igogailuak 2014ko uztailen utzi zion zerbitzuak eskaintzeari; eta Solokoetxeko igogailuaren kasuan, berriz, ez dago 2019ko ekitaldirako datu publikorik.

### 7.1.2. Bizikleta


EAEko bide-sistemako bizikletaz ibiltzeko sareak ingurumena kaltetzen ez duen garraiobide bat sustatzea eta mugikortasun jasangarria sustatzea du helburu. Horren haritik, foru-aldundiak eta udaletxeak, hiru lurraldetan, lan handia egiten ari dira azpiegitura horiek garatzeko, betiere, gero eta herritar gehiagok duten kezkaarekin bat etorriz: ingurumenaren aldetik iraunkorra izango den gizarte lortu beharra.

Hiru euskal hiriburu-tako bidegorrien egitura alderatuta ikusten da bizikleta-bideen sare luzeena Gasteizen dagoela, 2019an 143 km-koa, urte horretan zenbait bide luzeren doitzeak egin ondoren. Bigarren lekuan Donostia dago, 59,7 km-rekin (2018an baino % 5,1 gehiago), eta atzetik Bilbo, 57,3 km-rekin (% 41,1eko igoera aurreko ekitalditik).

2019an, prestatutako bidegorriak planifikatutako sareen % 80 izan dira Gasteizen (179 km aurreikusita), % 70,2 Donostian (85 km planifikatuta) eta % 60,3 Bilbon (95 kilometro planifikatuta).



7.1. grafikoa Bizikleta-bideen sarearen kilometro-kopurua EAko hiru hiriburuetan (bizikleta-sareen egoera 2019ko abenduan).




Iturria: Gasteizko Udala, Bilboko Udala eta Donostiako Udala.

EAEen prestatutako bidegorrien sarearen luzera 850 kilometrora gerturatu da 2019an. Bizkaian, prestatutako bidegorrien luzerak 400 kilometro gainditu ditu, hau da, % 15,8ko igoera izan du 2018tik. Gipuzkoan, prestatutako bidegorriak 226,1 kilometrora iritsi dira, eta hala, urtetik urterako terminoetan, % 2ko igoera izan dute aurreko ekitalditik. Arabako bizikleta-sareak 222,2 kilometro zituen 2011n<sup>20</sup>, eta horietatik 103 kilometro txirrindulariek Gasteizen soilik erabiltzeko ziren.



<sup>20</sup> Euskadin Garraioaren Panoramiak lanaren edizio hau amaitzeaz zegoenean, ez zen datu eguneratuagorik eskura.

7.2. grafikoa Bizikleta-sarearen kilometroak hiru lurralde historikoetan. 2019.



<sup>1</sup> 2011koa da eskura dugun azken datua. Euskadin Garraioaren Panoramiak lanaren edizio hau amaitzear zegoenean, ez zen datu eguneratuagorik eskura.

Arabako ibilbide berdeen 119,195 kilometroak ere sartuta daude.


<sup>2</sup> Aurreikusitako sare osoaren eta egindako zatien mapako datuak Oinarrizko Foru Sarearen eta Oinarrizko Tokiko Sarearen batura dira. Gipuzkoako Foru Aldundia.

Iturria: Arabako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

### 7.1.3. Bizkaiko Zubi Esekia

Azken bi hamarkadetan, jaitsiera jarraitua izan du ehun urtetik gorako azpiegitura erabiltzen dutenen kopuruak, Bilboko Metroaren zerbitzuak ezkerretako udalerrietara hedatu direlako. 2019an, Bizkaiko Zubi Esekiko zirkulazioa 3.519 mila erabiltzailetara igo da, eta beraz, % 1,1eko igoera izan du 2018tik. Denbora-tarte handiagoa hartuta, Bizkaiko itsasadarra Bizkaiko Zubi Esekia erabilia gurutzatzen duten bidaiarien kopurua 2,3 milioitan jaitsi da milurtekoaren hasieratik (2001).

7.3. grafikoa Bizkaiko Zubi Esekiko zirkulazioa. 2001-2019.



Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa.

#### 7.1.4. Bilboko Itsasadarreko bidaiariontziak

2019an, Portugalete eta Areea itsasadarren bidez elkartzen dituzten bidaiariontzietako zirkulazioa % 1,1 igo da eta, beraz, aurreko ekitaldian baino 4,6 mila erabiltzaile gehiago izan dira (2018an 31,1 mila pertsonako jaitsiera izan zen; 2017arekin alderatuta -% 6,7).

7.3. taula Bidaiariontzietako zirkulazioa. 2010-2019.

	(Bidaiariak, milakotan)											
	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	% Δ 18/17	% Δ 19/18
Portugalete-Areea	579,4	619,9	620,5	514,9	486,7	415,8	477,0	465,7	434,7	439,3	-6,7%	1,1%
Erandio-Barakaldo <sup>1</sup>	76,8	86,3	81,6	75,9	78,9	72,0	57,7	39,2	--	--	--	--
<b>GUZTIRA</b>	<b>656,1</b>	<b>706,2</b>	<b>702,1</b>	<b>590,8</b>	<b>565,6</b>	<b>487,8</b>	<b>534,7</b>	<b>504,9</b>	<b>434,7</b>	<b>439,3</b>	<b>-13,9%</b>	<b>1,1%</b>

<sup>1</sup> 2017/09/30era arteko datuak

Iturria: Bizkaiko Garraio Partzuergoa.

Eskuragarri dauden azken datuak 2017ari dagozkio (2017/09/30era arte), eta datu horien arabera, itsasadarra Erandioren eta Barakaldoren artean gurutzatzen duten bidaiariontzietako bidaiari kopurua % 32,1 jaitsi zen; hau da, kopuru absolututan, 18,5 mila pertsonako jaitsiera izan zen, eta ekitaldia 2009tik izandako zifra baxuenarekin itxi zen (39,2 mila bezero).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraio Bide Batzuk**
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

## 7.2. Logistika-plataformak eta plataforma intermodalak

EAEEn lau dira salgaien garraioaren kudeaketan irtenbide integralak eskaintzen dituzten plataformak; hauek: Gasteizko Garraio Zentroa (CTVi) eta Arasur, Araban; Aparkabisa, Bizkaian; eta Zaisa, Gipuzkoan. Hemen deskribatuko ditugu eukal zentro logistikoei buruzko alderdi aipagarrienak.

7.4. taula EAEko logistika-plataforma handien magnitude nagusiak. 2019.

2019	Instalatutako enpresak	Enplegua	Salgaien zirkulazioa (tona urtean)	Ibilgailu indust. zirkulazioa eguneko Kamioiak/Furgonetak	Ibilgailu industrialtzako aparkaleku-kopurua	Ibilgailu industrialtzako aparkalekuren azalera, guztira (m <sup>2</sup> )	Ibilgailu industrialtzako aparkalekuetako toki-kopurua	Batez besteko betetze-maila Ibilgailu ind. aparkalekuetan, guztira	
		68	1.581	e.d.	1.189	563	1	23.821	182
	13	160	1.300.000	200	120	1	20.000	197	%65
	e.d.	e.d.	e.d.	e.d.	e.d.	e.d.	e.d.	e.d.	e.d.
	140	1.765	3.270.000	1.850	3.065	2	45.000	375	%88,9

Iturria: Aparkabisa, Arasur, Gasteizko Garraio Zentroa (CTVi) eta Zaisa logistika-plataformak.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk**
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

7.2.1. Gasteizko Garraiobideak (CTVi)

Gasteizko Garraio Zentroa Jundizko industrialdean dago, Gasteiztik hurbil, eta eragile dinamizatzailea da: logistika-jarduerak egiteko asmoa duten enpresak sustatzea du helburu. Plataforma horrek 718.141 m<sup>2</sup>-ko azalera du guztira, eta horietatik, 238.929 m<sup>2</sup> nabeek hartzen duten azalera da, eraikitako azalera, alegia. Nabeetan garraioarekin eta logistikarekin zerikusi zuzena duten jarduerak egiten dira: biltegitratzea, banaketa, aduanak eta stockak kudeatzea, zama zatitzea eta finkatzea, eta garraio motaz aldatzea.

Horren haritik, honela banatuta dago jarduera horiek egiteko azalera: garraio motaz aldatzeko jardueretarako (tren bidezko garraiotik errepide bidezkoa eta alderantziz) azalera 122.587 m<sup>2</sup>-koa da; banaketa-jardueretarako, 110.336 m<sup>2</sup>-koa, biltegitratze-eta garraio-jardueretarako, berriz, 109.312 m<sup>2</sup>-koa.

Logistika-jarduerarako azalera 190.441 m<sup>2</sup>-koa da, zerbitzuen zonak 28.214 m<sup>2</sup> hartzen ditu, eta ibilgailu industrialentzako aparkalekurako azalera, berriz, 23.821 m<sup>2</sup>-koa da.

7.5. taula CTViren jardueraren bilakaera. 2017-2019.



Iturria: Gasteizko Garraio Zentroa (CTVi)

Zentroak erregistratutako datuei dagokienez, aipatu beharrekoa da 2014tik ez dagoela plataformari dagokion salgaien zirkulazioari buruzko informaziorik, trenbide-zirkulaziorako lur-zati intermodala kudeatzen zuen enpresaren jarduera-ezaren ondorioz.


2019an igo egin da CTVi-n instalaturako enpresen kopurua (unitate bat gehiago), eta hala, ekitaldia 68 sozietaterekin itxi da. Langile kopurua % 2,2 igo da (34 langile gehiago). Industria-ibilgailuen zirkulazioari dagokionez, % 4,7ko igoera izan da, hein handi batean, furgoneten zirkulazioa handitu egin delako (+% 13,1). Azkenik, industria-ibilgailuen aparkalekuaren okupazioa erabilgarri dauden 182 plazan % 98,9an dago.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk**
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

7.2.2. Arasur

Arasur plataforma logistiko multimodala Miranda de Ebrotik hurbil dago, 1.500.000 m<sup>2</sup> lur urbanizagarriz osatutako eremua da eta 85.000 m<sup>2</sup> inguru ditu urbanizatuta. Honako alor hauetan jarduten du, batez ere: portuetako eta aireko jardueri laguntzeko arloan; biltegitratzean, arautzean eta banatzean; garraio mota batetik besterako aldaketan; flotisten garraioan; nazioarteko zirkulazioan, eta administrazio- eta merkataritza-zentroari dagozkion jardueretan. Plataformak zentroko nabeetara trenez sartzeko zerbitzua du, eta beraz, salgaiak trenen eta kamioien artean alda daitezke.

7.6. taula Arasurren jardueraren bilakaera. 2017-2019.



Iturria: Arasur.

2019an, plataforma logistikoak hedapen fasean murgilduta jarraitu du, bai finkatutako enpresa kopuruari (2018an baino enpresa bat gehiago), bai enpleguari (+% 23,1) eta mobilizatutako salgaien bolumenari dagokionez. Salgaien bolumena hirukoiztu egin da eta 1,3 milioi tonara iritsi dira (+ % 209,5 2018ko zirkulazioarekin alderatuta). Areagotu egin da, halaber, industria-ibilgailuen zirkulazioa, % 53,8 igo baita kamioien zirkulazioa (70 ibilgailu gehiago egunean) eta % 60, berriz, furgonetena (45 ibilgailu gehiago egunean). Aparkalekuaren okupazio maila nabarmen handitu da, % 65 arte (aurreko urtean baino % 30 gehiago).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraibide Batzuk**
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak




7.2.3. Aparkabisa

Aparkabisa -Bizkaiko Garraio Gunea zentro logistikoaren jardueraren xedea da salgaiez eta ibilgailu industrialen aparkalekuz osatutako zentralak sustatzea, prestatzea eta ustiatzea. Azpiegitura oso ongi komunikatuta dago Bilboko portuan dituen instalazioei esker. Gainera, Loiuako aireportutik gertu dago, bai eta Espainiako estatua Europarekin lotzen duten errepide-eta tren-sare nagusietatik gertu ere.

Gaur egun, Aparkabisak bi eremutan jarduten du: Ugarteko garraio-zentroan (Barakaldo eta Trapagaran artean dago, eta 200.000 m<sup>2</sup>-ko azalera eraikia hartzen du) eta Zierbenan (Bilboko portuaren lurretan dago eta 112.560 m<sup>2</sup>-ko azalera du).

7.7. taula Aparkabisaren jardueraren bilakaera. 2017-2019.



Iturria: Aparkabisa. Bizkaiko Garraio Gunea, A.B. - Centro de Transportes de Bizkaia, SA

2018ko ekitaldiari dagozkion azken datuen arabera, plataformako enpresa kopurua ez da aldatu: 55 sozietatetan daude. Salgaien zirkulazioa % 38 handitu da, 4.000 tona baino gehiago mobilizatuz. Furgoneten zirkulazioari dagokionez, % 9,1 uzkurtu da (31 ibilgailu gutxiago egunean). Azkenik, aparkaleku industrialen batez besteko okupazioa aurreko urteetakoaren parekoa izan da (% 95).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraio Bidezkoak**
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

7.2.4. Zaisa

Zaisa (Irungo Garraio Zentroa) Gipuzkoako logistika-zentroa da eta Europako errepedeko zirkulazioaren leku estrategiko batean dago, Frantziaren eta Espainiaren arteko mugan, A-8 eta A-68 autobideen ondoan, Madril eta Paris arteko ardatzean; gainera, Donostiako eta Biarrizko aireportuetatik gertu dago, eta Pasaiaiko portutik hurbil. 400.000 m<sup>2</sup> hartzen ditu zentroak, eta 126.608 m<sup>2</sup>-koa da eraikitako azalera, garraio-eta logistika-jarduerak egiteko. Jakina, non kokatuta dagoen ikusita, nazioarteko garraioa eta logistika dira nagusi. Biltegitzeko nabeetarako 8.500 m<sup>2</sup>, bulego eta lokal komertzialetarako 7.000 m<sup>2</sup>, harrera-zentroa eta ZAISA III-ko gasolina-zerbitzugunearen orubea ditu plataformak. Instalazio horietan jarduten duten enpresek hainbat jardura egiten dituzte: garraio nazionala eta nazioarteko garraioa, karga zatitua, karga osoa, salgai arriskutsuen garraioa, logistika eta biltegitzea, hozkailu-ibilgailuen bidezko banaketa eta aduanetako jarduerak.

7.8. taula Zaisaren jardueraren bilakaera. 2017-2019.



Iturria: Zaisa

Plataforman instalatutako enpresen kopurua % 2,1 jaitsi da (3 sozietate gutxiago), langile kopurua, berriz, % 1,1 igo da eta 1.765 langile daude. Salgaien fluxua % 2,2 igo da eta 3,3 milioi tonatara gerturatu da.

2019an, kamioien joan-etorria % 2,8 igo da eta egunean 1.850 ibilgailutara iritsi da. Furgonetan zirkulazioa % 2,2 igo da eta egunean 3.065 unitatekoa da.

Azkenik, zentroaren aparkalekuak 3 handitze-fase izan ditu. Hala, gaur egun, Zaisak ibilgailu industrialentzat egokitutako bi aparkaleku ditu. 375 plaza dituzte 45.400 m<sup>2</sup>-ko azalera batean. Plataformaren batez besteko aparkatze-gaitasuna % 88,9an dago. Okupazio maila ez da aldatu 2018tik.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 **Beste Garraio-bide Batzuk**
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

7.2.5. Geltoki intermodalak



Eusko Jaurlaritzaren helburu nagusietako bat salgaiak trenez garraiatzea sustatzea da. Hala, 2011n lankidetzarako protokolo bat sinatu zuen Sustapen Ministerioarekin Jundizko (Araba) eta Lezoko (Gipuzkoa) terminal logistiko intermodalak garatzeko. Biak Sustapen Ministerioak Salgaien Trenbide Garraioa Sustatzeko Plan Estrategikoko terminal logistiko intermodalen oinarritzko sarean sartuta daude.

2019ko otsailean, Jundizko Plataforma Multimodalaren 1. fasearen eraikuntza-proiektuaren idazketa esleitu da. Korridore Atlantikorako Plataformaren lotura zabalera estandarrean egitea ere aintzat hartu da, eta kamioien eta haien salgaien garraioari eskainitako trenbide-terminal bat ezartzeko azterlan funtzional bat egitea ere bai. Plataforma berria Eusko Jaurlaritzaren eta Espainiako Gobernuaren artean garatuko da, koordinatuta.

Ekimen hau abian jarrita, honako helburu hauek lortu nahi dira: nazioarteko tren-zirkulazioa areagotzea zama manipulatu beharrik gabe, interoperatibitatea sustatzea salgaien garraioan, zama errepidetik trenera pasatzea, eta erantzun bat eskaintzea portu-sistemak portutik kanpo zamak erregulatzeko eta metaketa arintzeko azpiegitura bat izateko egindako eskaerari.

2019an sinatu da Eusko Jaurlaritzaren eta Sustapen Ministerioaren artean Lezon terminal intermodala eta logistikoa garatzeko protokoloa. Lankidetzarako dokumentuak azaldu eta izapidetuko ditu informazio-azterlana eta terminala eraikitzeke proiektuak, beharrezkoak diren gainerako azterlanak egitearekin batera. Lezoko Plataforma Logistikoaren eraikuntza EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroak betetzearen esparruan dago kokatuta eta, besteak beste, helburu gisa ezarriak ditu salgaien garraiorako garraiobide gisa trena indartzea eta terminal intermodalak eta logistikoak salgaiak eraginkortasunez banatu ahal izateko egokitzea.

# **Garraio-Jarduerak Sortutako Ondorio eta Joera Nagusiak**

**8.**

## 8. Garraio-Jarduerak Sortutako Ondorio eta Joera Nagusiak

### 8.1. Garraio-jarduerak sortutako ondorioak

Kapitulu honetan, garraio-sektoreak pertsonen osasunean eta ingurumenean eragindako ondorioen alderdietako batzuk azalduko ditugu. Ondorio horiek direla eta, beharrezkoa da garraio-jarduera iraunkortasunaren ikuspegitik planifikatzea eta ahalik eta gehien murrizten saiatzea pertsonen mugikortasuna eta salgaien zirkulazioa errazten dituzten azpiegiturrek, inputek, zerbitzuek eta prozesuek eragindako kostuak.

#### 8.1.1. Istripu-tasa

Ekartzen dituen kalteak eta gizartean eragiten dituen ondorioak direla eta, istripuak dira garraioaren arazo larrienetako bat. Horrekin lotuta, nabarmendu behar da “Bideko Segurtasuneko eta Mugigarritasun Seguru eta Iraunkorreko 2015-2020 Plan Estrategikoa” izeneko dokumentuak 2014an Euskadin bideko segurtasunaren eta mugigarritasun seguruaren eta iraunkorraren egoeraren inguruan egindako hausnarketa-prozesuaren emaitzak jasotzen eta ikuspegi estrategiko hau ezartzen duela:

*“Euskadi mugigarritasun seguruaren eta iraunkorraren arloan erreferente bihurtzea bideko segurtasunari eta zirkulazioaren kudeaketari dagokien eragingarriak diren estrategien bidez. Bertan, herritarrek portaera arduratsua dute eta erakunde publikoek, eragile pribatuekin elkarlanean, modu koordinatuan eta eragingarrian egiten dute lan zirkulazio-istripuen kopurua eta larritasuna gutxitzen”.*

#### Istripuak

- 2019. urtean 51<sup>21</sup> pertsona hil ziren zirkulazio-istripuetan EAeko errepideetan, aurreko ekitaldian baino 9 hildako gehiago (% +21,4; 2018rekiko).


Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritzak emandako datuen arabera, 2019an biktimadun 5.004 istripu izan ziren EAEn<sup>1</sup> (2018arekiko % 5,3ko hazkundera su izan zen), 6.314 pertsona kaltetuekin (% +1,9 aurreko urtearekiko). Lesioen irismenari dagokionez, zaurituen % 92,2 zauritu arinak izan ziren; % 7k lesio larriak izan zituen; eta % 0,8 istripuan bertan hil zen. Aurreko urtearekin alderatuta, zauritu larrien kopuruak (% +2) nahiz zauritu arinenak (% +1,7) eta hildakoenak (% +21,4) gora egin du.

<sup>21</sup> Ertzaintzak eta Udaltzaingoak erregistratutako istripuak hartzen ditu aintzat, biktimak eragin dituztenak (2005era arte hiru euskal hiriburutako udaltzaingoak adierazitako istripuak soilik; 2006 euskal hiriburuetakoa, Irungoak, Santurtzikoak, Sestaokoak eta Basaurikoak; 2007 euskal hiriburuetakoa, Irungoak, Beasaingoak eta Basaurikoak; 2008 euskal hiriburuetakoa, Irungoak, Santurtzikoak eta Sestaokoak; 2009 euskal hiriburuetakoa, Irungoak, Barakaldokoak, Santurtzikoak, Sestaokoak, Lezokoak eta Zarautzekoak; 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014 euskal hiriburuetakoa, Irungoak, Barakaldokoak, Santurtzikoak, Sestaokoak eta Zarautzekoak; 2015, 2016 eta 2017 euskal hiriburuetakoa, Barakaldokoak, Santurtzikoak, Sestaokoak eta Zarautzekoak; 2018 euskal hiriburuetakoa, Barakaldokoak eta Santurtzikoak; 2019 euskal hiriburuetakoa, Barakaldokoak, Errenteria eta Ordizia). Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Saileko Istripuen Urtekari Estatistikoak.



8.1. grafikoa Ertzaintzak eta Udaltzaingoak<sup>1</sup> 2000 eta 2019 artean EAEko bide-azpiegituretan erregistratutako biktimadun istripuak eta biktimak.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak




<sup>1</sup> 2005 arte hiru euskal hiriburutako udaltzaingoak adierazitako istripuak soilik; 2006 euskal hiriburuak, Irun, Santurtzi, Sestao eta Basauri; 2007 euskal hiriburuak, Irun, Beasain eta Basauri; 2008 euskal hiriburuak, Irun, Santurtzi eta Sestao; 2009 euskal hiriburuak, Irun, Barakaldo, Santurtzi, Sestao, Lezo eta Zarautz; 2010, 2011, 2012, 2013 eta 2014 euskal hiriburuak, Irun, Barakaldo, Santurtzi, Sestao eta Zarautz; 2015, 2016 eta 2017 euskal hiriburuak, Barakaldo, Santurtzi, Sestao eta Zarautz; 2018 euskal hiriburuak, Barakaldo eta Santurtzi; 2019 euskal hiriburuak, Barakaldo, Santurtzi, Errenteria eta Ordizia.

Iturria: Trafiko Istripuen Urtekari Estatistikoa. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza.

Europako bide-segurtasunari dagokionez, EAE lehen postuan finkatu da. Horrela, 2017ko datuei erreparatuta (EB-28rako argitaratu den azken informazioa), EAEen errepideko heriotzen kopurua milioi bat biztanleko (18 hildako) txikiena izan zen, Europar Batasuneko herrialdeetakoarekin alderatuta. Atzetik daude Suedia (25), Erresuma Batua (28), Danimarka (30) eta, urrunago, Espainia (39). Errepideko heriotzen Europako batez bestekoa 49koa da milioi biztanleko, Euskadin erregistratutakoa baino askoz handiagoa.

8.2. grafikoa Bide-istripuetan hildakoen kopurua milioi bat biztanleko EB-28n. 2017



Fuente: EU Transport in Figures. Statistical Pocketbook 2019 Trafiko Istripuen Urtekari Estatistikoa. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza; EIN.

2019an lurralde historikoen arabera banakatuta, Ertzaintzak erregistratutako istripuak soilik aztertu dira, eta egiaztatu da Arabak EAE osoan gertatutako biktimadun istripuen % 15,3 biltzen dituela. Lesioen larritasunari dagokionez, Araban zirkulazio-istripuek eragindako heriotzen % 19,5 eta larri zauritutakoen % 24,3 daude. Zauritu arinak % 15,3 dira.

Bizkaiari gertatzen diren biktimak eragin dituzten istripuen % 46,1; lesioen bat izan zuten pertsonen % 46,3, hain zuzen ere. Bizkaiari hildakoak EAE osoko % 43,9 dira, eta larri zauritutakoak, berriz, % 33,9.

8.1. taula Ertzaintzak erregistratutako biktimadun trafiko-istripuak, lurralde historikoaren arabera. 2019.

Lurraldea	Biktimadun istripuak		Biktimak							
			Guztira		Hildakoak		Zauritu larriak		Zauritu arinak	
	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%	Kopurua	%
Araba	404	15,3	578	16,1	8	19,5	74	24,3	496	15,3
Bizkaia	1.213	46,1	1.662	46,3	18	43,9	103	33,9	1.541	47,5
Gipuzkoa	1.017	38,6	1.346	37,6	15	36,6	127	41,8	1.204	37,1
<b>EAE, guztira</b>	<b>2.634</b>	<b>100</b>	<b>3.586</b>	<b>100</b>	<b>41</b>	<b>100</b>	<b>304</b>	<b>100</b>	<b>3.241</b>	<b>100</b>

Oharra: 24 ordu baino lehen hildakoak.


Iturria: Trafiko Istripuen Urtekari Estatistikoa. Eusko Jaurlaritzako Trafiko Zuzendaritza.

Azkenik, Gipuzkoak EAEko errepideetan erregistratutako biktimak eragin dituzten istripuen % 38,6 biltzen ditu. Istripua izan duten pertsonak hiru lurralde historikoen % 37,6 dira. Gipuzkoako bideetan hildakoak EAE osoko % 36,6 dira. Larri zauritutakoen pisua % 41,8koa da, eta arin zauritutakoenak, berriz, % 37,1.

### 8.1.2. Bide-pilaketa

EAEen bide-pilaketak eragiten dituzten faktoreen artean, aipagarria da ibilgailu pribatuen bidezko mugikortasunak izandako igoera; izan ere, motorizazio-indizeak etengabe egin du gora laurogeita hamarreko hamarkadatik, eta urte jakin batzuetan bakarrik eten da igoera hori. 2019an igo egin da motorizazio-indizea ibilgailuen parkea areagotu delako (2018an baino % 1 handiagoa), eta 1.000 biztanleko 458,6 turismo izatera iritsi da. Horri lotuta, aipagarria da, pilaketa-arazoak larriagotu egiten direla zirkulazioan dabilen ibilgailu kopuruak gora egiten duenean, jakina.

8.3. grafikoa Turismo-parkea eta motorizazioa. 1998-2019 bilakaera.



Iturria: Trafikoko Zuzendaritza Nagusia eta EIN. GIS -Garraioaren Informazio Sistema (OTEUS).





EAEko bideko pilaketen arazoak erakusten dituzte txosten hauek: “Trafikoaren Bilakaera Bizkaiko Errepideetan”<sup>22</sup> (Bizkaiko Foru Aldundiak egina) eta “Gipuzkoako Errepideetako Zirkulazio Neurketen Informazioa”<sup>23</sup> (Gipuzkoako Foru Aldundiak egina).

Bizkaiari dagokionez, zirkulazio-ahalmen handiko bide-sarea kontrolatzeko zenbait gunetan eman den zerbitzu-mailaren arabera urtean banatu diren orduak hartu dira kontuan azterketa egiteko. Horri dagokionez, gogoratu behar da zerbitzu-maila A-tik F-ra bitartean sailkatu dugula: A-k ona adierazten du, eta F-k, berriz, pilaketa askokoa. Horrenbestez, azterketa honetan, E mailatik gora, errepidean pilaketak daudela ulertuko dugu.

2019an Bizkaiko errepideen zerbitzu mailaren arabera banaketak erakusten du bideen % 1,82 E mailan daudela, eta % 0,24 F multzoan daudela; hau da, zirkulazio-ahalmen handiko bide-sareak funtzionamenduan emandako urteko ordu kopuru osoaren % 2,06tan bide-pilaketako arazoak izan dira.

8.2. taula Funtzionamenduan emandako orduak, zerbitzu-mailaren arabera. 2019.

Gunea	Zerbitzu-maila							Orduak, guztira
	Errepidea	A	B	C	D	E	F	
21a1 Kaxtresana G. -Gurutzeta G. (BI-S)	A-8	3.304	1.247	2.179	1.911	117	2	8.760
21a2 Kaxtresana G. -Gurutzeta G. (S-BI)	A-8	3.244	1.197	2.413	1.715	188	3	8.760
45a1 Arrontegiko zubia (BI-Getxo)	N-637	3.382	1.439	2.297	1.444	162	36	8.760
45a2 Arrontegiko zubia (Getxo-BI)	N-6370	3.302	1.365	1.926	1.824	247	96	8.760
81a1 Erandio G. -Unibertsitate G. (BI-Getxo)	BI-637	4.539	1.789	1.689	724	18	1	8.760
81a2 Erandio G. -Unibertsitate G. (Getxo-BI)	BI-637	3.824	1.326	1.790	1.525	253	42	8.760
99a1 Enekuri G. -Artxandako tunelak	N-637	4.426	1.512	1.881	749	191	1	8.760
99a2 Artxandako tunelak -Enekuri G.	N-637	4.379	1.560	1.703	901	216	1	8.760
179a1 Sestao G. -Trapagaran G. (BI-S)	A-8	3.291	1.250	2.780	1.270	159	10	8.760
179a2 Trapagaran G. -Sestao G. (S-BI)	A-8	3.345	1.271	2.273	1.633	201	37	8.760
183A Areeta -L.P. Santander	A-8	3.855	2.876	1.882	146	0	1	8.760
Orduak, guztira		40.891	16.832	22.813	13.842	1.752	230	96.360
Guztizko orduak zerbitzu-mailaren arabera banatuta, ehunekotan		42,44	17,47	23,67	14,36	1,82	0,24	100
E eta F mailen batura. Guztizko orduen gainean duen parte-hartzea, ehunekotan		--	--	--	--		2,06	--

Iturria: Trafikoaren Bilakaera Bizkaiko Errepideetan. Bizkaiko Foru Aldundia.

Azterketa 2010-2019 aldira zabaldua ikusten da Bizkaiko zirkulazio-ahalmen handiko errepideek izan duten pilaketa maila gora egiten ari dela 2014tik.

8.3. taula Bide-pilaketaren bilakaera. 2010-2019.

	2010	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019
E eta F mailen batura. Guztizko orduen gainean duen parte-hartzea, ehunekotan	1,85	1,59	1,16	1,02	1,13	1,15	1,44	1,45	1,79	2,06

Iturria: Trafikoaren Bilakaera Bizkaiko Errepideetan. Bizkaiko Foru Aldundia.

Gipuzkoako bideetako pilaketa-egoera aztertzeke, batez besteko abiadura neurtzen da bide-sareko zenbait tartetan, auto higikorren metodoa erabilita (metodo horretan, neurtzeko autoak edo auto higikorak abiadura hau izango du, aztertutako bideetan: auto higikorak aurreratzen dituen

<sup>22</sup> Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu:

[http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem\\_Codigo=6322&Idioma=CA](http://www.bizkaia.eus/home2/Temas/DetalleTema.asp?Tem_Codigo=6322&Idioma=CA)

<sup>23</sup> Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu:

[http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DWIBideAzpiegiturakWEB/listaDocumentos.do?lista=5&apart=5&js=S&anti\\_cache=1418142005274](http://w390w.gipuzkoa.net/WAS/CORP/DWIBideAzpiegiturakWEB/listaDocumentos.do?lista=5&apart=5&js=S&anti_cache=1418142005274)

ibilgailuen kopurua auto higikorra bera aurreratzen dutenenaren berdina izateko modukoa). Sistema honekin, batez besteko abiadura txikiagoa izatea pilaketa maila handiagoarekin lotzen da.

Gipuzkoako interes nagusiko sareko tartetean neurtutako batez besteko abiaduren bilakaerari dagokionez, aipagarria da N-121-A errepidean, A-15eko 4 tartetik 3tan, AP-8ko 7 tartetatik 4tan, N-1eko 4 tartetatik 3tan eta N-634ko 6 tartetako 4tan, batez besteko abiaduraren jaitsiera erregistratu dela, eta horrek esan nahi du pilaketak handitu direla. Aldiz, batez besteko abiadura handitu egin da AP-1ean eta N-638an, eta hori pilaketa txikiagoak izateari dago lotuta.

8.4. taula Batez besteko abiaduren bilakaera, tarteka, Gipuzkoako interes nagusiko sarean (km/h). 2018-2019.

Errepidea	Hasierako kilometro-puntua	Amaierako kilometro-puntua	Luzera (km)	Batez besteko abiadura (Km/h)	
				2018	2019
A-15	139,8	156,6	16,8	87	85
	159,9	164,4	5,5	93	95,5
	164,4	167,2	2,9	98	97,5
	167,2	169,3	2,1	91	89
AP-1	114,3	133,0	18,8	106	107,5
	133,0	146,2	13,2	106,5	106,5
AP-8	0,0	7,4	7,4	84,5	82,5
	7,4	15,5	8,1	88,5	89,5
	15,5	25,5	10,0	103	104
	25,5	38,2	12,7	99,5	98
	38,2	54,6	16,4	99	96,5
	54,6	69,7	15,1	95,5	96,5
N-121-A	69,7	74,9	5,2	94,5	91,5
	68,5	75,1	6,6	67,5	64,5
N-1	405,3	416,0	10,7	81	81
	416,0	436,8	20,8	90,5	88,5
	436,8	447,7	10,9	87	85,5
	447,7	454,4	6,8	76,5	74
N-634	0,0	4,0	4,0	57,5	59
	4,0	19,1	15,1	47	45
	19,1	29,9	10,8	47	46
	29,9	44,3	14,4	49,5	50,5
	44,3	57,8	13,5	58	54
	57,8	66,0	8,2	56	53,5
N-638	0,0	2,5	2,5	45	49

Iturria: Gipuzkoako Errepideetako Zirkulazio Neurketen Informazioa.

Gipuzkoako oinarritzko sarean, batez besteko abiadura moteldu diren tartekak dira nagusi, eta horrek esan nahi du pilaketak handitu egin direla. Hala ere, GI-41 errepidean, GI-636an eta GI-631eko 4 tartetatik 2tan, handitu egin da batez besteko abiadura, eta horrekin batera, 3 tartek ez dute batez besteko abiaduran aldaketarik izan 2018tik. Horrek esan nahi du errepide horietako pilaketak gutxitu egin direla.



8.5. taula Batez besteko abiaduraren bilakaera oinarriko sarean (km/h). 2018-2019.

Errepidea	Hasierako kilometro-puntua	Amaierako kilometro-puntua	Luzera (km)	Batez besteko abiadura (Km/h)	
				2018	2019
GI-11	0,0	2,3	2,3	71,5	70,5
	0,0	5,5	5,5	97,5	87
	5,5	7,2	1,7	79,0	80
	7,2	11,0	3,8	78,0	77,5
GI-20	11,0	15,7	4,7	85,0	82
	0,0	1,9	1,9	47,5	44,5
	1,8	3,8	1,9	67,0	65
GI-40	0,0	3,0	3,0	56,5	62,5
GI-41	18,0	27,2	9,2	50,0	49,5
	27,2	36,0	8,8	67,5	67,5
	36,0	44,5	8,5	56,5	56,5
	44,5	56,3	11,8	64,5	62,5
GI-627	0,0	3,8	3,8	65,5	64,5
	3,8	13,6	9,8	57,0	57
	13,6	19,1	5,5	44,0	45
	19,1	34,5	15,5	50,5	55
GI-631	0,0	11,2	11,2	95,0	--
	11,2	22,1	10,9	53,5	--
	22,1	24,6	2,5	63,5	--
	29,8	35,2	5,4	68,0	--
GI-632	0,0	17,2	17,2	55,5	57
GI-636	0,0	4,7	4,7	44,5	37,5
	4,7	7,9	3,2	53,0	50,5
GI-638					

Iturria: Gipuzkoako Errepideetako Zirkulazio Neurketen Informazioa.

Amaitzeko, urtero bezala, nabarmendu behar da, Europako Batzordearen “Garraioa 2050”<sup>24</sup> estrategia globalaren arabera, pilaketek barne-produktu gordinaren % 1 inguruko kostua dakarkiotela Europari urtero, eta horrek kezka handia sortzen duela. Gainera, aurreikuspenek diote salgaien garraio-jarduerak, 2005eko datuen aldean, % 40 inguru gehiago izango direla 2030ean (eta % 80 baino gehiago 2050ean). Bidaiarien garraioa ere % 34 gehituko dela aurreikusi da (% 51, 2050ean).

### 8.1.3. Ingurumena

#### a) Zarata

Garraio-jarduerak kutsadura akustikoa sortzen du, eta horrek biztanleriaren osasunean eta bizikalitatean ondorio kaltegarriak ditu. Zentzu horretan, kutsadura akustiko horrek sortzen dituen ondorio kaltegarrien artean, hauek dira azpimarragarrienak: interferentziak loan, ahozko komunikazioan eta eguneroko jardueran, bai eta ondorio psikologiko eta fisiologiko kaltegarriak ere.

Ondoren, EAEko<sup>25</sup> hiru hiriburuei eragiten dieten ingurumen-zaratako fokuen Zarataren Mapa Estrategikoetan lortutako emaitza nagusiak aurkeztuko dira. Mapak lortzeko foku hauek aztertu

<sup>24</sup> MEMO Garraioa 2050: [http://europa.eu/rapid/press-release\\_MEMO-11-197\\_es.pdf](http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-11-197_es.pdf)

<sup>25</sup> Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistemaren webgunea: <http://sicaweb.cedex.es/mapas-consulta-fase3.php>




dira: kaleetako eta errepideetako bide-zirkulazioa, tren-zirkulazioa eta industria-jarduera<sup>26</sup>. Erabili den kaltetutako biztanleriaren adierazleak kontuan hartzen ditu zarataren mapak 4 metroko altuerako fatxadetan.

Hiru euskal hiriburuetan gauz eragiten du gehien zaratak. Hala, kalitate-helburutik ( $L_n=55$  dBa) gaineko zarata-mailen eraginpean dagoen biztanleria % 30ekoa da Bilbon, % 12koa Donostian eta % 10ekoa Gasteizen.

Kaleetako bide-zirkulazioa da zarataren foku nagusia hiru udalerrietan. Bide-zirkulazioak eragindako zarataren emaitzak guztizko zaratak lortutakoaren antzekoak dira. Bilbon, zirkulazio handieneko bideek zarata-maila handiak dituzte, eta hiritik ateratzeko eta hirira sartzeko bideak nabarmentzen dira. Gipuzkoako hiriburuko bideko zarata-fokuek biztanleriaren % 7ri eragiten diote, 4 metrora kaltetutako biztanleriaren adierazlearen arabera. Arabako hiriburuan, bideko zirkulazioak biztanleriaren % 9ri eragiten dio. Udalerri honetan, tranbiak eragin akustikoa du tranbiari begira dauden eraikinen fatxadetan, batez ere goizez eta arratsaldez.

8.4. grafikoa EAEko hiru hiriburuetan bide-zirkulazioak sortutako zarataren eraginpean dagoen biztanleria<sup>1</sup>. 2017.



<sup>1</sup> 4 metroko altuerara zarataren eraginpean dagoen biztanleria, 5 dB(A)-ko tartetan.

\* Donostian kaltetutako biztanleria dago, baina 51 pertsona baino gutxiago dira. 0 balioak kaltetutako biztanleriaren egoerak adieraz ditzake, baina 1 baliora iristen ez direnak ehunekotan biribilduz.

Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <http://sicaweb.cedex.es/mapas-consulta-fase3.php>, Gasteizko Udala, Bilboko Udala eta Donostiako Udala.

<sup>26</sup> Gasteizen, bideko zirkulazioan aintzat hartzen dira kaleak eta tranbia. Bilbon, tranbiako lineek sortutako zarata tren-zirkulazioaren baitan aintzat hartzen da. [http://europa.eu/rapid/press-release\\_MEMO-11-197\\_es.pdf](http://europa.eu/rapid/press-release_MEMO-11-197_es.pdf)




- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Tren bidezko zirkulazioak eragindako zarataren eraginpean dagoen biztanle kopurua oso txikia da, minimoa. Zehazki, Bizkaiko hiriburuan, Basurto/Zorrotza esparruan biltzen da, eta neurri txikiagoan, Ibaiondon eta Abandon. Donostian, foku horren eragina handiagoa da arratsaldez gauz baino. Gauz % 1ekoa baino ez da. Gasteizen, batez ere salgai-trenen ondorioz dago jendea zarataren eraginpean.

Bestalde, ez dago industria-jarduerak eta portu-jarduerak sortutako zarataren eraginpean dagoen biztanleriarik. Gipuzkoako aglomerazioan, mailarik kaltegarrienak zarata-fokuetatik gertu dauden etxebizitza bakartuetan aurkitu dira.

8.5. grafikoa EAEko hiru hiriburuetan tren-zirkulazioak sortutako zarataren eraginpean dagoen biztanleria<sup>1</sup>. 2017.



<sup>1</sup> 4 metroko altuerara zarataren eraginpean dagoen biztanleria, 5 dB(A)-ko tartetan.

\* Donostian kaltetutako biztanleria dago, baina 51 pertsona baino gutxiago dira. 0 balioak kaltetutako biztanleriadun egoerak adieraz ditzake, baina 1 baliora iristen ez direnak ehunikotan biribilduz.

Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <http://sicaweb.cedex.es/mapas-consulta-fase3.php>, Gasteizko Udala, Bilboko Udala eta Donostiako Udala.

Bilbon, zarataren eraginpean dagoen biztanleriaren analisiak aditzera ematen du hauek direla esparrurik kaltetuenak, mapan ikus daitekeen bezala: Deustu, Abando eta Basurto/Zorrotza eta Errekalde. Aitzitik, zarataren eraginik txikiena Otxarkoaga/Txurdinaga eta Uribarri esparruetan dute.

8.6. grafikoa Bilboko erdiguneko bide-zirkulazioaren zarataren mapa estrategikoa. Lden. 2017.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak




Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <http://sicaweb.cedex.es/mapas-consulta-fase3.php> eta Bilboko Udala.

Donostian, gauez maila akustiko altuenak (kaltegarriena, 60 eta 65 dB(A) artean) bide hauetan daude: Tolosa hiribidea, Zumalakarregi hiribidea, Zarautz, Lugaritz, Kontxa pasealekua, Zubieta, Askatasuna hiribidea, San Martin, Boulevard Zumardia, Hernani, Urbieta, Easo, Prim, Gernikako Arbolaren pasealekua, Carlos I.aren hiribidea, Antso Jakitunaren hiribidea, Izoztegi-Pedro Manuel Collado pasealekua, Madril hiribidea, Zorroaga pasealekua, Loiolako Erribera pasealekua, Zurriola hiribidea, Federico García Lorca pasealekua, Frantzia pasealekua, Colón pasealekua, Nafarroa hiribidea, Galtzada Nagusia, Mirakruz, Ategorrieta hiribidea, Jose Elosegi Alkatearen hiribidea, Pasai San Pedro hiribidea, Otxoki pasealekua eta Buenavista hiribidea.

8.7. grafikoa Donostiako bide-zirkulazioaren zarataren mapa estrategikoa. Lden. 2017.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak




Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <http://sicaweb.cedex.es/mapas-consulta-fase3.php> eta Donostiako Udala.

Gasteizen, hauek dira kaleetako bide-zirkulazioaren ondoriozko zaratak gehien kaltetutako eremuak: Salburua bulebarra, Zaramaga-Madril-Aragoi-Jacinto Benavente, Zabalzana hiribidea-Euskal Herria bulebarra-Juan Garai, Mariturri bulebarra-Antonio Machado eta Bremen.

8.8. grafikoa Gasteizko bide-zirkulazioaren zarataren mapa estrategikoa. Lden. 2017.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak



Iturriak: Kutsadura Akustikoari buruzko Informazio Sistema: <http://sicaweb.cedex.es/mapas-consulta-fase3.php> eta Gasteizko Udala.

Eustatek 2016an argitaratutako “Ingurumenari eta Familiei buruzko Inkesta”<sup>27</sup> izeneko txostenetik ateratako informazioaren arabera, EAEko etxebizitzaren % 8,3k lehorreko garraioarekin lotutako zarata-arazoak zituen 2015ean; arazoa zertxobait handiagoa zen Bizkaian (etxebizitzaren % 9,3k), haren atzetik Gipuzkoan (etxebizitzaren % 8,4k) eta arinagoa Araban (etxebizitzaren % 4,9k).

**Zarata**

- Hiru euskal hiriburuetan gauez eragiten du gehien zaratak. Hala, kalitate-helburutik (Ln=55 dBa) gaineko zarata-mailen eraginpean dagoen biztanleria % 30ekoa da Bilbon, % 12koa Donostian eta % 10ekoa Gasteizen.
- Kaleetako bide-zirkulazioa da zarataren foku nagusia. Tren bidezko zirkulazioak eragindako zarataren eraginpean dagoen biztanle kopurua oso txikia da, minimoa.

**b) Klima-aldaketa**

Klima-aldaketaren aurkako borrokan, beharrezkoa da herrialde guztien konpromisoa, eta horretarako, urtero bilerak egiten dituzte Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioko eta Kyotoko Protokoloko aldeek.

<sup>27</sup> Informazio gehiago lortzeko, kontsultatu: [http://es.eustat.eus/estadisticas/tema\\_456/opt\\_0/ti\\_Medio\\_ambiente\\_-\\_Familias/temas.html](http://es.eustat.eus/estadisticas/tema_456/opt_0/ti_Medio_ambiente_-_Familias/temas.html)



Madriilen izan dira, 2019ko abenduan, Txileren presidentetzapean, Klima Aldaketari buruzko Nazio Batuen Esparru Konbentzioko aldeek (COP25) eginiko hogeita bosgarren bilera eta Kyotoko Protokoloko aldean konferentziako hamabosgarren saioa, bilera gisa

Hona hemen Konbentzioko aldeek adostutako ekintza-klimatikoaren mugarri batzuk:



Berotegi-efektua duten gasen igorpenak

- 2018koak dira argitaratutako datu berrienak, eta datu horien arabera, garraio-sektorearen CO<sub>2</sub> isuriak % 1,4 jaitsi dira 2017tik, eta haien kuota % 34 igo da EAEn sortutako isurien guztizkoan.
- Garraio-sektorearen isurien % 96 inguru errepide bidezko garraioarekin lotuta daude. Horietatik % 60 inguru turismoek sortzen dituzte eta gainerako % 40a salgaien garraioak (ibilgailu astunek zein arinek).




2019an aldaketa klimatikoaren borrokari lotutako hainbat proiektu jarri dira EAEn abian; adibidez, hauek:

- Asteklima antolatu da, Euskadiko Klima Aldaketaren lehen astea, eta horren harira, ehun ekimen inguru antolatu dira gizartea arazo honen inguruan kontzientziatzeko.
- Aldaketa klimatikora egokitzearen inguruko LIFE Urban Klima proiektura batu da. Ekintzak hiru arlotakoak dira: itsasertza, ibaien arroak eta hiri-eremuak.
- Krisi klimatikoari aurre egiteko neurriak NBEko Klimaren Goi Bileran eta New Yorkeko Klimaren Astean aurkeztu ditu neurriak.
- Klima Aldaketari buruzko Euskal Autonomia Erkidegoko Legearen Aurreproiektuaren parte-hartze prozesua egin da.
- Natura Ondare eta Klima Aldaketa Zuzendaritzak diru-laguntzen deialdia egiten du, natura-ondarearen zainketa buruzko ezagutza sortzeko proiektuak egiten dituzten erakunde pribatuentzat. Proiektuek Natura 2000 Sareari, habitat naturalei eta erdinaturalei, mehatxatutako flora eta fauna basatien espezieei edo natura-ondareko beste elementu batzuei buruzkoak izan behar dute.

BEGen guztizko isuriei buruz eskuragarri dauden datu berrienak 2018ari dagozkio. Ekitaldi hartan, isuriak, guztira, 19 milioi tonara gerturatu ziren; termino erlatiboetan esanda, % 3,6 jaitsi ziren 2017tik. Horrek esan nahi du isuriak murriztu egin zirela jarduera ekonomikoa areagotzen zen bitartean (EAeko BPG % 4,3 igo zen 2017tik).

2018an, Kyotoko Protokolorako erreferentziatzko indizea oinarri-urtearen atzetik ehuneko 8,9 puntutan zegoen.

8.9. grafikoa Berotegi-efektuko gasen isuriak EAEn, sektorearen arabera. 2018 (%).




\*Energia-sektorean inportatutako energia elektrikoa sartzen da.

Iturria: Berotegi-efektuko gasen isurketen inbentarioa. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018. Eusko Jaurlaritza.

BEGen guztizko isuriak sektoreka banatuta ikusten da garraioa dela berotegi-efektuko gasen igorle handiena (guztizkoaren % 34), eta gainditu egiten duela energiaren sektorea (% 33,7), inportatutako energia elektrikoa sartuta. Hirugarren lekuan industria dago eta BEGen % 17,9 dagokio.

Garraio-sektoreak 2018an izandako bilakaera aztertuta, aipagarria da isuriak % 1,4 jaitsi direla urtetik urtera 6,4 milioi tona CO<sup>2</sup> baliokidea gaindituta.

8.10. grafikoa Berotegi-efektuko gas-isurien bilakaera EAEn, jarduera-sektorearen arabera. 1990-2018 (%).



\* Energia-sektorearen igorpen zuzenak (inportatutako energia elektrikoa gabe). \*Energia-sektorearen igorpenak, inportatutako energia elektrikoa aintzat hartuta.


Iturria: Berotegi-efektuko gasen isurketen inbentarioa. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018. Eusko Jaurlaritza. Eusko Jaurlaritza.

Une honetako isuriak oinarri-urtearekin (Kyotoko Protokoloa) alderatuta ikusten da garraio-sektorearen isuriak % 133,4 areagotu direla, eta hala, sektoreko igoerarik handiena izan dutela. Bigarren lekuan zerbitzuen arloa dago % 97,4ko igoerarekin, eta horren atzetik, energiaren sektorea –inportatutako elektrizitatearen isuriak kontuan hartu gabe– % 36,6ko igoerarekin. Azkenik,

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

laugarren lekuan, bizitokiaren sektorea (% 36). Energiaren sektorean inportatutako elektrizitatearen etortzarikoa isuriak sartzen baditugu, % 13,9 jaisten da maila.

8.11. grafikoa Garraio-sektorearen BEG isuriak EAEn. Bilakaera. 1990-2018.



Iturria: Berotegi-efektuko gasen isurketen inbentarioa. Euskal Autonomia Erkidegoa. 2018. Eusko Jaurlaritza.

Aurreko urteetan bezala, honako jarduerak hauek nabarmendu behar dira garraio-sektoreak klima-aldaketan duen eragina murrizteko hartu dituen neurrien artean: ibilgailu industrial arinen eta autoen gaineko zergak haiek isurtzen dituzten CO<sub>2</sub> igorpenen arabera modulatzeko, ibilgailu elektrikoetarako laguntzak ematea, bioerregaien erabilera hedatzea eta ibilgailu hibrido edo elektrikoena.

2019an EAEn Garraio eta Mugikortasun Efizientearen Aldeko Inbertsioak Sustatzeko Laguntzen Programa onartu da. Programa horren helburu nagusia honako hauek sustatzea da: garraio-bide eraginkorrenak sustatzeko ekintzak, energia berriztagarrien erabilera, energia aldetik eraginkorragoak diren teknologien erabilera eta kargatze elektrikorako eta erregai alternatiboak eskaintzeko beharrezko diren azpiegiturak erabilgarri jartzea. Laguntza-deialdiaren indarraldia 2019ko abenduaren 31n amaitu zen.


**c) Energiaren kontsumoa<sup>28</sup>**

2019an energiaren kontsumoa 4.989 mila tonakoa (ktep) izan da EAEn, eta hala, urtetik urtera % 1,2 jaitsi da. Azterketa azken hamarkada honetara zabaldua, 2009-2019 aldira alegia, garraioaren sektoreak % 21,4ko igoera izan du energiaren azken kontsumoan, eta igoera, batez ere, errepideko mugikortasunaren eskaria handitu izanak ekarri du.

<sup>28</sup> 2011n, Eurostat metodologiaren arabera, elektrizitatearen ekoizpenerako baterako sorkuntzarako instalazioetan erabiltzen den energiaren zatia eraldaketa-sarreretan erregai-kontsumo gisa kontabilizatu zen. Beroa ekoizteko erabilitako erregaiaren zatia, berriz, kontsumitzailearen sektorean zuzenean kontabilizatu zen, hark baliatzen du eta. Horrez gainera, energia-erlaketako kontsumo horiek azken kontsumora eskualdatze horretan, beroa ez zen kontabilizatu eraldaketa-irteeratzat deribatutako energia gisa, ez eta azken sektoreetako kontsumo-energia ere. Edonola ere, energia-kontsumoaren urtetik urterako analisia homogeneoa da, kopuruak berriz kalkulatu baitziren 2010etik hona, metodologia berriaren arabera.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraio-bide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak


8.12. grafikoa Energiaren azken kontsumoa sektoreka. 2009-2019 bilakaera.



Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2019. EEE.

Garraio-sektoreko energiaren azken kontsumoa 2.165 ktep-ekoa izan da 2019an. Beraz, termino erlatiboetan, % 0,6 jaitsi da eta hala, eten egin da 2011n hasitako goranzko joera. EAeko energia-kontsumoan sektore bakoitzak duen parte-hartzeari erreparatuta ikusten da garraioaren sektoreak kontsumo osoaren % 43,4 osatzen duela eta pisurik handiena duen arloa dela.

8.13. grafikoa EAeko energia-kontsumoaren banaketa, jarduera-sektorearen arabera. 2019 (%).




Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2019. EEE.

Azterketa azpisektoreka eginda, errepideko garraioak (publikoa eta pribatua) sektoreko energia-kontsumoaren % 94,7 hartzen du (1990ean % 91,3). Aireko garraioak askoz pisu txikiagoa du: sektorearen kontsumoaren % 4,2. Azkenik, trenbide eta itsasoko garraioak, biek batera, garraio-sektoreak sortutako energia-gastuaren % 1,1 osatzen dute.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

8.14. grafikoa Energia-kontsumoaren banaketa garraio-sektorean. 2019.



Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2019. EEE.

2019an garraio-sektorean igo egin da petrolio-produktuetatik eratorritako energiarekiko mendekotasuna. Hala, gasolioek, gasolineek, kerosenoek eta GLPk, guztira, sektorearen energia-kontsumoaren % 93,1 hartzen dute (2018an % 92,8). Bioerregaiak % 6,2ko kuotara iritsi dira, eta hala, 2018an erregistratutako parte-hartzea baino pixka bat txikiagoa izan dute (% 6,5). Sektorearen baitan energia-iturrien desoreka hori egoteak CO<sub>2</sub>-ren igorpen masiboa eragin du, petrolioaren deribatuen errekuntzaz sortua; hori dela eta, berotegi-efektuko gasen emisio gehien isurtzen duten sektoreen artean lehenengo postuan da garraioa.


#### Energia-kontsumoaren adierazleak

- Garraio-sektorearen energia-kontsumoak euskal kontsumo guztiaren % 43,4 osatzen du.
- Azken hamarkadan, % 22,8 igo da energia-kontsumoa garraioaren sektorean. Aldiz, EAEko energia-kontsumoa % 7,7 jaitsi da.
- 2019an garraio-sektorearen faktura energetikoa 3.167,9 milioi eurokoa izan da eta % 3,8ko igoera izan du aurreko ekitalditik.

Hiru lurralde historikoek igoerak izan dituzte energiaren kontsumoan 2009-2019 aldian. Zehazki, Araban energia-kontsumoa % 26,6 igo da eta sektoreko gutzitzkoaren % 20,6ko kuota du. Bizkaian, % 8,7koa izan da igoera, eta sektoreko gutzitzkoaren % 36,7 osatu du. Azkenik, Gipuzkoaren energia-kontsumoa % 32 igo da, eta hala, sektoreko gutzitzkoaren % 42,4ra iritsi da.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak


8.15. grafikoa Energia-kontsumoa garraio-sektorean, lurraldearen arabera. 2009-2019.



Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2019. EEE.

2019an garraio-sektoreko energiaren kostua 3.168 milioi eurokoa izan da; hala, urtetik urtera % 3,8ko igoera izan du.

8.16. grafikoa Garraio-sektorearen energia-fakturaren bilakaera EAEn: 2009-2019 bilakaera.



Iturria: Euskadi Energia, Datu Energetikoak 2019. EEE.

2019an jaitsi egin da bioerregaien kontsumoa eta petrolioaren baliokide diren 133,8 mila tonakoa izan da. Termino erlatiboetan, % 4,9 jaitsi da aurreko ekitalditik. Bilakaera horrek ez du eragozten 2020. urterako Euskadiko Estrategia Energetikoko helburua betetzea. Estrategia horren helburua garraio-sektorean petrolioaren energia-mendekotasuna murriztea da.

Pertsonen garraio kolektiborako udal-zerbitzua kudeatzen duten hiru konpainiatako autobus-flotaren ezaugarriei begiratuta, Gasteizko Transportes Urbanos de Vitoria-Gasteiz konpainiak biodiesela erabiltzen duten 75 ibilgailu eta 10 unitate hibrido ditu. Bizkaiko hiriburuan, Bilbobusen flota 141 autobusek osatzen dute. Horietatik % 94,3ren kasuan, erabiltzen duten erregaiak biodiesela du nahastuta % 5etik gorako proportzioan. Aipagarria da gorakada izan dutela autobus-hibridoek kopuruak (2 unitate 2018an, 76 unitate 2019an) eta elektrikoek (2018an 4 eta 2019an 6). Gipuzkoan, Dbus-ek 136 autobusekin eskaintzen du zerbitzua. Horietatik 44 elektrikoak edo hibridoak dira, eta gainerakoak (92) konbentzionalak (gasolioa).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak**
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

Azkenik, administrazio publikoek garraioaren arloan energia modu eraginkorrean erabiltzeko hartu dituzten neurrien artean, beste urte batez, aipatzekoak dira prestatu diren hiri-mugikortasuneko planak eta modu eraginkorrean gidatzeko profesionalentzako nahiz profesionalak ez direnentzako ikastaroak, EEEK (Energia Euskal Erakundea) eta IDAEk (Energia Dibertsifikatu eta Aurrezteko Erakundea) sustatuak. Era berean, aipatu beharrekoa da CIC energiGUNEk bioerregaiak garatzeko ikerketaren inguruan egindako lana.

## 8.2. Garraio jardueraren joerak EAEn

EAEko aldagai jakin batzuek izandako bilakaera aztertuta, ondorio batzuk atera daitezke Euskadiko mugikortasunari eta garraioaren jasangarritasunari lotuta.



### Mugikortasuna

- EAEn igo egin da mugikortasuna: joan-etorriak % 8,1 areagotu ziren 2011tik 2016ra, eta igoera handiena garraiobide jasangarriek izan dute (oinezkoak, bizikleta...).
- Autoa gero eta gutxiago erabiltzen da, nahiz eta egonkortu egin den, nolabait: ibilgailu pribatuen eguneroko lekualdatzeak 2011an guztizkoaren % 35,8 ziren; 2016an, berriz, % 35,2.
- Ibilgailuen parkea etengabe ari da handitzen, baina krisi-urteek nolabaiteko geldialdia ekarri diote EAEko motorizazio-indizeari. Duela sei urtetik hasita, etenik gabe egin du gora motorizazio-mailak, eta 2019an motorizazioaren marka hautsi da.
- Bide-sarearen hedapena. 2000-2018 aldian, zirkulazio-ahalmen handiko bideek % 26,1eko gorakada izan zuten. 2018an bide horiek Euskadiko bide-azpiegiturretan zuten parte-hartzea % 15ekoa zen, eta 2000. urtean, berriz, % 11,4koa.
- Hiri-esparruan, garraio kolektiboko zerbitzuetan (autobusa eta trenbidea) % 50,3 handitu da pertsonen mugikortasuna 2000-2019 aldian.
- Handitu egin da ahalmen handiko hiriko eta metropoli-inguruko garraio publikoaren eskaera. Zehatzago esanda, Bilboko Metroaren erabiltzaileak % 69 ugartu dira 2000tik 2019ra. Hala ere, azken urte hauetan moteldu egin da bidaiari kopuruaren igoera hori. Igoera nabarmenak izan dira Bilbo eta Gasteizko tranbia-zerbitzuetan ere.
- Igoera adierazgarria izan da EAE jatorri edo xede duen aireko zirkulazioan, eta % 118 handitu da 2000-2019 aldian. 2019an urtetik urterako +% 8,8ko aldakuntza izan da.
- EAEn, salgaien itsasoko zirkulazioaren parte-hartzea handitu egin da; 2003tik 2019ra % 16,2ko kuota izatetik % 24,1ekoa izatera igaro da.

### Jasangarritasuna: garraioaren jasangarritasunarekin lotutako beste alderdi batzuk

- Azken hamarkadan, % 22,8 igo da energia-kontsumoa garraioaren sektorean. Azken urtean, % 0,6 jaitsi da eta eten egin da, horrela, 2011tik zekarren goranzko joera.
- Erregai fosilen mendekotasun txikiagoa duten energia-ereduetarantz bilakatzea, garraio-sektorean gero eta bioerregai gehiago erabiliz. 2019an eten egin da goranzko joera, jaitsi egin baita energia mota horren erabilera (-% 4,9 aurreko ekitalditik). Aipagarria da 2018an % 47,1 igo zela energia horien kontsumoa 2017tik.



# **Garraioaren eta Mugikortasun Jasangarriaren Esparruko Helburuak**

**9.**

## 9. Garraioaren eta mugikortasun jasangarriaren esparruko helburuak



Eusko Jaurlaritzak Euskadin garraio-eredu jasangarri bat lortzeko bidean aurrera egitea du helburu. Horregatik, Euskadiko Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplana<sup>29</sup> egin du.

Plan berriak jarraipena ematen dio “Garraio Jasangarriaren 2002-2012 Gidaplanari”<sup>30</sup> eta bat dator liburu honetan zehaztutako europar irizpideekin: Liburu Zuria - Europako Garraio Politika 2010erako<sup>31</sup>. Halaber, bat dator Hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzaile baterako Estrategia-Europa 2020 izeneko estrategiarekin. Era berean, garapen jasangarriko 2030 Agendak osatzen du. Nazio Batuen Batzar Nagusiaren Ebazpen bidez onartu zen 2015eko irailaren 25ean.

Kapitulu honetan, Europar Batasunak egindako “Liburu Zuria: Europar espazio bakarrerako ibilbide-orria: garraio-politika lehiakor eta jasangarri baterako bidea”<sup>32</sup> izeneko lanean ezarritako helburuen laburpena eskaintzen da. Era berean, “Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplanean” jasotako helburu eta estrategia nagusiak aipatuko ditugu.

Amaitzeko, Eusko Jaurlaritzak, Euskadin garraio-eredu gero eta jasangarriago bat planifikatzeko bidean, 2019ko ekitaldian zehar gauzatutako jarduerak zehaztuko dira.

### 9.1. Europar Batasunaren Liburu Zuriaren helburu nagusiak

“Liburu Zuria: Europar espazio bakarrerako ibilbide-orria: garraio-politika lehiakor eta jasangarri baterako bidea” liburuak, 2011ko martxoan argitaratua, Europako Batzordeak Europar Batasuneko garraio-sistemaren etorkizunari dagokionez zer ikuspegi duen azaltzen duen dokumentu estrategiko berria da, eta orobat, hurrengo hamar urteetarako agenda politikoa zehazten du.

Ildo horretan, liburuan hamar helburu zehaztu dira, ekintza politikoak orientatzeko eta Europako garraio-sistema lehiakor eta jasangarri baterako bidea neurtzeko diseinatu direnak.

#### Erregai eta propulzio-sistema jasangarri berriak garatzea eta erabiltzea

- 2030. urterako, hiriko garraioan propulzio-sistema arrunta duten autoen erabilera erdira jaitea; 2050erako, pixkanaka-pixkanaka desagerraraztea; 2030erako, hirigune nagusietako logistika-elementuek CO<sub>2</sub>-ren igorpenik egin ez dezaten lortzea.
- 2050erako, aireko garraioaren sektorean, erregai jasangarri hipokarbonikoen erabilera % 40ko mailara iristea; 2050erako, Europar Batasuneko CO<sub>2</sub> igorpenak, itsas garraioaren sektorean erabiltzen diren galdaren fuel-olioak eragindakoak, % 40 gutxitzea (eta ahal bada, % 50).

<sup>29</sup> Informazio gehiagorako: <http://www.euskadi.eus/plan-director-del-transporte-sostenible/web01-a2kudeak/es/>

<sup>30</sup> Informazio gehiagorako: [http://www.bizkaia.eus/fitxategiak/07/Mediatika/3\\_Plan%20Director%20Transporte%20Sostenible%202002-2012\\_cas.pdf?hash=64add5a4cb06a627466a2075a8a59c32](http://www.bizkaia.eus/fitxategiak/07/Mediatika/3_Plan%20Director%20Transporte%20Sostenible%202002-2012_cas.pdf?hash=64add5a4cb06a627466a2075a8a59c32)

<sup>31</sup> Informazio gehiagorako: Liburu Zuria - Europako garraio-politika 2010. urteari begira

<sup>32</sup> Informazio gehiagorako: Garraioaren Liburu Zuria - Europako garraio-gune bakar baterako ibilbide-orria

**Kate logistiko multimodalaren errendimendua optimizatzea, baita energiaren ikuspegitik erabilera eraginkorragoak bultzatuz ere**

- Gaurtik 2030era bitartean, errepide bidezko garraioaren % 30 beste modu batzuetara aldatzen saiatzea (adibidez, tren bidezko garraiora edo itsas nabigazio bidezkoa), salgaiak garraiatzeko korridore eraginkorrak eta ekologikoak baliatuz; 2050erako, % 50etik gora finkatu da helburua. Helburu hori lortzeko, ezinbestekoa izango da azpiegitura egokia garatzea.
- 2050erako, Europako abiadura handiko trenen sarea osatzea. 2030erako, abiadura handiko trenbideen sarearen luzera hirukoiztea, eta estatu kide guztietan trenbide-sare trinkoari eustea. 2050ean, bidaiarien distantzia ertaineko garraioaren zatirik handiena trenez egin beharko litzateke.
- 2030erako, Europako oinarritzko garraio-sarea izatea, Europar Batasuneko eremu guztia hartuko duena, multimodala eta guztiz operatiboa. Garraio-sare horrek goi-mailako kalitatea eta ahalmena izan behar ditu 2050erako, eta dagozkion informazio-zerbitzuak.
- Gaurtik 2050era bitartean, oinarritzko sareko aireportu guztiak trenbide-sarearekin lotzea, ahal dela abiadura handiko trenbide-sarearekin; itsas portu nagusiek salgaiak garraiatzeko trenbide-sistemarekin behar bezalako lotura dutela bermatzea, eta ahal denean, baita barruko bide nabigagarrien sistemarekin ere.

**Garraioaren eta azpiegitura-erabilera eraginkortasuna handitzea, informazio-sistemak eta merkatuan oinarritutako pizgarriak baliatuz**

- 2020rako aireko zirkulazioa kudeatzeko azpiegitura modernizatuko Europako sistema (SESAR)<sup>33</sup> ezartzea, eta Abiaziorako Europako Eremu Bateratua eraikitzen amaitzea. Garraioa kudeatzeko sistema baliokideak ezartzea errepide, itsas eta ibai bidezko garraioetarako (ERTMS<sup>34</sup>, ITS<sup>35</sup>, SSN y LRIT<sup>36</sup>, RIS<sup>37</sup>). Europako satellite bidezko nabigazio-sistema orokorra ezartzea (Galileo).
- 2020rako, garraio multimodalaren informaziorako, kudeaketarako eta ordainketarako Europako sistema baten esparrua ezartzea.
- Gaurtik 2050era bitartean, errepide bidezko garraioan hildakorik ez («zero hildako») izateko helburura hurbiltzea. Helburu horren harira, EBk errepideko biktimak 2020rako erdira jaisteko helburua ezarri da. EB mota guztietako garraioen segurtasunean eta babesean munduko lehena dela ziurtatzea.
- «Erabiltzaile ordaintzailea» eta «kutsatzen duenak ordaindu egiten du» printzipioak bere osotasunean betetzeko bidean aurrera egitea, eta sektore pribatuak konpromisoa hartzea desorekak deuseztatzeko (diru-laguntza kaltegarriak barne), diru-sarrerak sortzeko eta etorkizunean garraioan inbertsioak egitea bermatzeko.



<sup>33</sup> Europako ATM Gida Planaren arabera: [https://ec.europa.eu/transport/modes/air/sesar/deployment\\_en](https://ec.europa.eu/transport/modes/air/sesar/deployment_en)

<sup>34</sup> Europako ERTMS ezarpen-planaren arabera: ikus Batzordearen C (2009) 561 Erabakia.

<sup>35</sup> EasyWay 2 ezarpen-planaren arabera: ikusi Batzordearen C (2010) 9675 Erabakia.

<sup>36</sup> 2002/59/EE Zuzentaraua, itsasoko trafikoari buruzko jarraipen- eta informazio-sistema komunitario bat ezartzeari buruzkoa (L 208 EO, 2002.8.5ekoa), 2009/17/EE Zuzentaruak aldatua (L 131 EO, 2009.5.28koa).

<sup>37</sup> Ikus 2005/44/EE Zuzentaraua.

## 9.2. Garraio Jasangarriaren Gidaplanaren helburuak eta estrategiak

### Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplana

2017ko ekainean, Euskal Autonomia Erkidegoko “Garraio jasangarriaren 2030 Gidaplana” onartu zen. 2002-2012 aldirako egin zen planari jarraipena ematen dion plana da, eta 2011n Europar Kontseiluak egindako Garraioaren Liburu Zurian ezarritako Europako norabideari jarraitzen dio, baita Hazkunde adimendun, jasangarri eta integratzaile baterako Europa 2020 Estrategiarekin ere. Halaber, garapen jasangarriko Agenda 2030ekin ere osatuko da, Nazio Batuen Erakundeak Batzar Nagusiak onartua 2015ko irailean. Garraio Jasangarriaren Gidaplanaren misioa da garraio-eredu jasangarri eta integratua lortzea Euskadiren kohesio sozialerako eta garapen sozioekonomikorako tresna moduan.

Sei helburu nagusi zehaztu dira, eta bakoitza behar bezala mugaturik dago. Estrategiak, bestalde, helburu bat baino gehiago lortzeko erabil daitezke.

#### 1. Helburua. Ekonomia-garapena jasangarria, adimenduna eta arduratsua sustatzea

Europako politikaren ildoak jarraituz, helburu hau ekonomia-hazkundera sustatzean datza, eta garraioaren eragin kaltegarriak murriztean, ekonomia-garapenaren eta garraioaren eskariaren handitzearen arteko lotura deseginez. Horretarako, ongi planikatutako eta antolatutako garraio-sare jasangarri bat garatu behar da, eta sare horrek administrazioen, enpresen eta, oro har, euskal gizartearen lankidetzeta eta koordinazioa izan behar ditu.

##### 1. Helbururako Estrategiak:

- Gizarte- eta ekonomia-garapeneko kultura jasangarria sustatzea, administrazioen, enpresen eta gizartearen bidez garraioa koordinatuta planifikatuz eta antolatuz.
- Euskadin garraioaren lehiakortasuna sustatzea.
- Garraio-sistema aurreratua eta kostuak barneratzeko irizpideak oinarri dituen sustatzea.

#### 2. Helburua. Irisgarritasun unibertsala sustatzea, lurralde-plangintza egokiarekin bat

Irisgarritasunak gero eta protagonismo gehiago izango du datozen urteetan. Batez ere biztanleriaren zahartzeak baldintzatuko du joera hori, mugikortasunari dagokionez. Horregatik, garraio-sistema irisgarria eta lurralde-plangintza egokia izatea funtsezko helburuak dira. Pertsonen nahiz salgaien mugikortasun-beharrak ase beharko dira, baina hurrengo belaunaldien gaitasuna arriskuan jarri gabe.

##### 2. Helbururako Estrategiak:

- Garraio jasangarria sustatzea irisgarritasuna bermatuz, lurralde-plangintza jasangarriarekin koordinatuta.
- Mugikortasunaren eskaria garraio jasangarriko alternatiben bidez kudeatzea.
- Jarduera sortzen duten gune nagusietan aurrera egitea irisgarritasuna eta mugikortasun jasangarria lortzeko.



### 3. Helburua. Garraio-moduen arteko bestelako oreka sustatzea

Helburu hau Euskadiko garraio-moduen erabileran beste oreka jasangarriago bat ezartzean datza. Horretarako, intermodalitatea sustatuko da pertsonen nahiz salgaien garraiorako, eta ekonomiari, gizarteari eta ingurumenari dagokionez jasangarriagoak diren garraio-moduak sustatuko dira, hala nola itsasoko garraioa eta trenbide bidezkoa. Hala, isuriak murriztuko dira, eta Euskadiren ingurumen-helburuak eta -betebeharrak betetzen lagunduko da. Zehazki, Euskadiko trenbide-sarea, dentsitate handia izan arren, XIX. mendean diseinatutako trazadurekin eta funtzionalitateekin bat dator. Beraz, modernizazioa behar du, trenbideak garraiobide moduan erabilera handiagoa izan dadin.

#### 3. Helbururako Estrategiak:

- Intermodalitatearen garapena sustatzea, pertsonen garraioan nahiz salgaienean, bidaiarien garraio-sare publikoa koordinatua eta barneratua garatuz, bai eta azpiegitura logistiko multimodalaren sare bat ere.
- Garraio-jasangarriagoen erabilera sustatzea, batez ere trenbide-sistemarena.
- Garraioaren petrolioaren ordeztu energia alternatiboaren erabilera sustatzea, ingurumen-inpaktua eta etorkizunean energia horren gabeziak eragin dezakeen zaurgarritasuna murriztuz.

### 4. Helburua. Euskadiren kokapen estrategikoa sustatzea Europan

Euskadik kokapen estrategikoa du Europan eta haren balioa azpimarratu behar du, joan-etorrian dabilzan fluxuen kudeatzaile gisa ez ezik, kontinenteko komunikazioen nodo logistiko intermodalaren kudeatzaile gisa ere. Abantaila hori ustiatzeko, kalitateko azpiegitura logistiko bat behar da, lehiakorra eta intermodala, eta erakunde publikoek eta pribatuek azpiegitura horretan lagundu behar dute.

#### 4. Helbururako Estrategiak:

- Euskadik Europan duen kokapen estrategikoari garrantzia ematea, ez joan-etorrian dabilzan fluxuen kudeatzaile gisa soilik, baita kontinenteko komunikazioen nodo logistiko intermodalaren kudeatzaile gisa ere.
- Basque Country Logistics ereduaren ezartzea, erakunde publikoen eta pribatuen arteko lankidetzaren bidez, gure enpresek gero eta merkatu globalizatuago batean lehiatzeko aukera izan dezaten.
- Aireportu-garraio irisgarriagoa, barneratuagoa eta lehiakorragoa lortzeko bidea jorratzea.



## 5. Helburua. Garraio-sistemen erabilera eraginkorra eta arduratsua sustatzea

Gero eta beharrezkoagoa da garraio-sistema eraginkor, barneratu eta koordinatu bat izatea, eta gizartean garraio-sistemaren erabilera arduratsuaren kontzientzia sortzea. Ildo horretan, gero eta herrialde gehiago ari dira berriz antolatzen garraio publikoaren finantzazio-eredua, Europako ildoei jarraikiz, eta zerbitzuak eta azpiegiturak epe luzerako eraginkortasuna eta jasangarritasuna abiapuntutzat hartuz kudeatzen dituzte.

### 5. Helbururako Estrategiak:

- Gizartean, erakundeetan eta enpresetan kontzientzia sortzea, ekonomiaren, gizartearen eta ingurumenaren ikuspuntutik jasangarria den garraioaren beharrari buruz.
- Garraio-sistema jasangarri bat sustatzea, eraginkortasuna xede hartuta garraio-zerbitzuak, azpiegiturak eta loturak eraikiz, bermatuta eta mantenduta.
- Garraio publikoaren finantzazio-sistema bat diseinatzea, garraioaren jasangarritasuna bermatu eta eraginkortasuna maximizatuko duena.

## 6. Helburua. Garraio publikoaren sistema barneratua garatzea

Beharrezkoa da garraio-sistema bateratu eta koordinatu bat garatzea, intermodalitatea sustatuz, eskaintza koordinatuz, tarifen bateratzea garatuz eta garraio publikora irisgarritasuna erraztuz ordainketa-sistema modernoan eta errazen bidez. Tarifen bateratzea gaketat jotzen da garraio-sistema bateratu bat izateko, intermodalitatea sustatuko duena, eta horren ondorioz, jasangarriagoa izango dena. Garraio publikoaren sistema bateratzeko eta kohesionatzeko, agintari eskumendunek koordinatu eta lerrokatu egin beharko dute.

### 6. Helbururako Estrategiak:

- Garraio publikoaren erabilera sustatzea eskaintzaren plangintza koordinatuaren bidez, eta kosteen egiturari, estaldura-ratioei eta tarifa-sistemari dagokionez helburuzko erreferentziatzeko esparru prestatuz.
- Ekonomikoki jasangarria den garraio publiko bateratuaren eredu bat garatzea.

## 9.3. Euskadirako garraio-eredu jasangarri baterantz

XI. legegintzaldirako gobernu-programak Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplan hau jasotzen du bere konpromisoen artean. Gidaplaneako ekimenak jasotzen ditu eta gidaplanean ezarritako helburuak lortzen laguntzen du, batez ere, berotegi-efektuko gas isurien % 20 murrizteari dagokionez.

Garraio Jasangarriaren Gidaplanak xede du garraio-eredu jasangarri eta integratzaile bat lortzea, Euskadiko gizarte-kohesiorako eta gizarte- eta ekonomia-garapenerako tresna gisa. Garraioak zeharkako izaera duenez, gidaplan hau aplikatzean, aintzat izan behar dira Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Saila, eta zehazki, Garraio Sailburuordetza partaide izan dituzten 15 plan estrategikoak nahiz sail arteko 54 plan osagarriak.

Garraio Jasangarriaren 2030 Gidaplan berria 2017ko ekainaren 13an onartu zen.



## 9.4. 2019ko jarduerak

Garraioaren **planifikazioari eta garapenari** dagokionez, jarraipena eman zaie Garraioaren 2030 Gidaplaneko jarduerari. Era berean, Euskadiko Errepideen Hirugarren Plan Orokorren izapidetzea amaitu zen eta Mugikortasun Elektrokoaren Plan Integralean ezarritako ekintzekin jarraitu da.

2019an *Euskadiko Garraio Agintaritzak* bilera hauek egin ditu: osoko bilkurak urtarrilean eta abenduan, bat-barik-mugi txartelen arteko elkarreragintasanari buruzko txostenak eta taxiaren sektorearen gaur egungo gakoak eta aukerak aztertzen dituen analisirako txostena (urtarrila). Eusko Jaurlaritzak sustatutako “Errepedetik salgaiak garraiatzeko estibatzeari buruzko euskal gida” egin zuen ISEC-ek (Kargen Segurtasunerako Institutua), sektoreko hainbat eragile eta instituziorekin elkarlanean, EAEn lurreko karga estimatzeari buruzko gomendio-gida bat aurkezteko helburuz. Gainera, Sailaren webgunean (Salgaien Garraioa eta Logistika atala) argitaratuta dago, eta modu osagarrian, estibatzea eta amarratzea kalkulatzeko aplikazio digital bat sortzeko bidean da garraiolariari eta kargatzaileei prozesu hori errazteko eta sinplifikatzeko.

Erakundeen arteko koordinaziorako hainbat jarduera egin dira sektorearen kalitatea eta efizientzia sustatzeko xedez: Lurretikako Garraioen Antolaketari buruzko Arautegiaren berrikuntzen inguruko dibulgazio-jardunaldiak (ekaina); garraiolariari, kargatzaileei eta Ertzaintzako agenteei zuzendutako estibatze egokiaren inguruko jardunaldiak lau aldiz (azaroa eta abendua); eta mugikortasuna genero-ikuspegitik jorratzen duen jardunaldiak (abendua). Gainera, Moveuskadi plataforma modernizatzen jarraitu da, hain justu, mugikorretarako App berri baten bidez.

**Euskadiko Garraio Behatokiak (OTEUS)** lanean jarraitu du garraio jasangarriko politika garatzeko tresnak eta organismoak sustatzen. Bestalde, 2019an Euskadiko Garraio Behatokiak Euskadiko garraioari buruzko oinarriko informazioa sortu du, eta horretarako Garraioaren Informazio Sistema jorratzen jarraitu da eta Euskadiko Garraioaren Panoramika urteko txostena egin da.

Plangintzan, “Garraio Jasangarriaren Gidaplan”-ari dagokionez, 2019an aurreikusitako ekintzak egiten jarraitu da.

Planifikazioari dagokionez, beste erabaki batzuk ere azpimarratzekoak dira:

- 2017-2028 aldirako Euskadiko Errepideen III Plan Orokorra tramitatzen amaitu da.
- Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Lege Proiektua onartu da.

Jarraian, Eusko Jaurlaritzak 2019an garraioaren alorrean garatutako jarduera esanguratsuenak jasotzen dira, egungo Garraio Jasangarriaren Gidaplanak definitzen duen helburukako egituraren arabera sailkatuta:

**1. helburua**  
**Ekonomia-garapena jasangarria, adimenduna eta arduratsua sustatzea.**

**Garraioaren Sektorearen Modernizaziorako Programa**

- Salgaien eta bidaiarien garraio-sektorean kalitatea eta lehiakortasuna hobetzeko helburuak faktore horiek handitzeko hainbat jarduera biltzen ditu bere baitan. 2019an laguntza-programak garatu dira, gai hauen ingurukoak: jarduera uztea, elkartegintza sustatzea, kalitate- eta ingurumen-sistemak ezartzea, eta sektorea zenbait esparrutan modernizatzea, hala nola teknologia berrien ezarpenean (lokalizazio- eta kontrol-sistemak, segurtasun-elementuak, haurrak lotzeko sistemak).



**Prestakuntza sustatzea eta indartzea**

- 2019an itsas sektorean profesionalak eta graduatu ondoko ikasleak trebatzeko jardura hauek nabarmentzen dira:
  - Deustuko Unibertsitatearekin hitzarmen bat sinatu da. Nabarmentzekoak dira Itsas eta Portu Enpresen Kudeaketa eta Itsas Zuzenbideko Masterra, Deustuko VII. Itsas Foroa eta Prestige kasuaren egungo egoera aztertzen duen jardunaldia.
  - Euskal Herriko Unibertsitatearekin sinatutako hitzarmenaren barnean “El Saltillo” itsasontziaren kudeaketarekin lagundu da eta udan euskal portuetan haren presentzia handitu da.
  - Itsas Garraioko, Lurreko eta Multimodaleko Aldizkari Juridikoaren 23. eta 24. aleak editatu dira.
  - Nautikako ikasleen praktiketan prestakuntzaren programazioaren eta Short Shippingaren sustapenarekin jarraitu da. Horren ondorioz, praktiketako ikasleen kopurua eta ontzian igarotzen duten hilabeteen kopurua dezente igo dira. Bi lerroek praktiketako ikasleen prestakuntzan bat egiten dutenez, Euskal Untzijabeen Elkartearekin aztertu da bi ildoak “Nautikako ikasleen praktikak” ekintzapean bateratzea.
  - Uniportekin eta Bilbao Exhibition Centrerekin batera lankidetzat egin da, besteak beste, 2019ko otsailean egin den World Maritime Week prestatzeko.
  - Sektoreko elkarte profesionalentzako diru-laguntza izendunen kudeaketak hasi ziren, Juan Sebastian Elkanok munduari lehen aldiz itzulua eman izanaren 500. urteurrenaren oroitzapenezko ekitaldiak prestatzeko, 2019an egin baitira.
- Sektorearen prestakuntzaren eta profesionalizazioaren esparruan jarduketak egin dira, kontuan izanda prestakuntza sektoreko lehiakortasuna hobetzeko gakoa dela. Harremanak izan dira garraioaren alorreko prestakuntza eskaintzen duten hainbat erakunderekin eta Euskal Institutuaren Logistika eta Mugikortasun Jasangarriko Logistika masterrari babesak ematen jarraituko da.
- Salgai arriskutsuen errepide bidezko garraiorako Seguritasun ikuskari izateko hautaprobetarako deialdi bat egin da, titulua lortzeko nahiz hura berritzeko; 2019ko abenduaren 28an egin ziren probak.
- Deialdi bat egin da errepide bidezko salgaien eta bidaiariaren nazioko eta nazioarteko garraiorako lanbide-gaitasunaren titulua lortzeko. Eskerak izapidetu ziren eta tituluak eman; probak 2019ko urriaren 5ean egin ziren.







### 2. helburua

#### Irisgarritasun unibertsala sustatzea, lurralde-plangintza egokiarekin bat

##### Errepide plana

- 2017-2028 aldirako Euskadiko Errepideen III. Plan Orokorra tramitatzen amaitu da, Planaren Ingurumen-ebaluazio estrategikoa adierazten duen 2019ko irailaren 11ko Ebazpenaren bidez eta 2019ko abenduaren 18ko Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Antolamendurako Batzordearen aldeko derrigorrezko txostena eginda.
- 2019an Estatuko Administrazioak errepideen arloan EAERI egindako transferentzien prozesua amaitu da, AP-68 autobideko dagokion zatia apirilaren 30eko 71/2019 Dekretuaren bidez eskualdatuta. Ondoren, abenduaren 17ko 196/2019 Dekretuaren eta abenduaren 17ko 197/2019 Dekretuaren bidez eta 27/1983 Legea aplikatuz, dagokion eskualdatzea egin zaie Arabako eta Bizkaiko Foru Aldundiei.
- Errepideentzat aplikagarriak diren bide-zoruei buruzko araudiaren esparruan, zoladuretarako nahasketa berrien ezaugarritzeari buruz indarrean dagoen araudia berrikusten eta eguneratzen jarraitu da; bide-zoruaren ezaugarriak aztertzeo irizpideak zehazten jarraitu da, bidearen iraunkortasuna eta segurtasuna hobetzeko; egindako bide-zoruen jokabideari jarraipena egin zaio; eta material alternatiboak eta diseinu jasangarriagoak aztertu dira.
- 2019an hainbat arau-proposamen egin eta eztabaidatu da, eta litekeena da Bide-zoruen Mahaia horiei buruzko informazioa eman ondoren, egungo Bide-zoruen Arauaren aldaketa bat ekartzea.

### 3. helburua

#### Garraio-moduen arteko beste oreka bat sustatzea

##### Trena indartzea

- Helburu nagusietako bat da tren-zerbitzu lehiakorra eskaintzea ibilgailu pribatuaren alternatiba moduan. Horretarako, diru-laguntza eman zaio ET/FV sozietate publikoari, SAU, bere zerbitzua hobe dezan. Sozietate publiko horrek tren, tranbia eta errepide bidezko pertsonen eta tren bidezko salgaien garraiorako zerbitzua ematen du. Laguntza honen bidez, modu lehiakorrean maiztasun eta pertsonentzako kalitate, segurtasun eta erosotasun handiagoa izatea lortu nahi da.

##### Eusko Tren XXI. Plana

- 2019. urtean zehar, Bizkaian, bidea bitan banatzeko lanak eta eraikuntza-lanak amaitu dira Ermuko geltoki berriari eta birmoldatze-lanak Derioko geltokian.
- Zornotza eta Gernikako geltokien birmoldaketa-lanak hasi dira, baita Larrondo eta Sondika arteko katigamendu berriaren lanak ere.
- Horrez gain, Durango trenbidea lur azpitik sartu ondoren geratu den zonaldea urbanizatzeko lanak egin dira eta Derio-Zamudio, Errotaberri-San Lorentzo eta Sagarbideko tuneleko bide-zatiak berri dira.
- Gipuzkoan, Santa Klarako trenbide-pasabidea kentzeko lanak amaitu dira Zarautzen eta Altzako geltokiaren gaineko lurra urbanizatu dira Donostiako Udalarekin batera.
- Era berean, Hendaia geltoki berriaren lanak abiarazi dira SNCFrekin adostuta.
- Azkenik, Topoaren Donostiako lurpeko pasabidearen (Lugaritz-Easo) obrek jarraitu zuten.

##### Euskal Trenbide Sare berria

- 2006ko apirilaren 24an, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak, Estatuko Administrazio Orokorrak eta Adifek lankidetzaren hitzarmen bat sinatu zuten Euskal Trenbide Sare Berria eraikitzeko (2017ko abenduaren 27an aldatu zen hitzarmen hori). Hitzarmen horren arabera, Eusko Jaurlaritzak bere gain hartu zuen "Euskal Y" sarearen Bergararik Irunera bitarteko Gipuzkoako adarra (Donostiara sartzen den tartearen barne) eraikitzeko proiektuak idaztea, lan horiek zuzentzea, kontratatzea eta gauzatzea, bai eta adar horretako desjabetze-espeditenteen kudeaketa administratiboan laguntzea ere.

<ul style="list-style-type: none"> <li>Hortaz, Euskal Trenbide Sarea (ETS) erakundeak, maiatzaren 21eko 6/2004 Legeak esleitzen dizkion eginkizunak betez, bere gain hartu zituen eraikuntza-proiektuek, desjabetzeen kudeaketak eta lanen eskumeneko zuzendaritzak eragindako gastuak eta Gipuzkoako adarra eraikitzeak sortutako beste gastu batzuk.</li> <li>2019an tarte hauetako obrek jarraitu zuten: Antzuola-Ezkio/Itsaso (mendebaldea), Urnieta-Hernani, Herrialde-Zizurkil eta Zizurkil-Andoain. Halaber, Hernani-Astigarraga zatiaren lehiaketa berriari ekiteko, lanak hasi dira larrialdi-lanetan eta jarduera gehigarrietan.</li> </ul>
<p><b>Bilboko Hiri Trenbidea</b></p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Bilboko Hiri Trenbidearen 1. linean Ibarbengoako aparkalekuko obrek jarraitu zuten.</li> <li>Hainbat azterlan eta proiektu egin ziren Bilboko Hiri Trenbidearen 4. eta 5. lineen inguruan.</li> <li>Bilboko esperantza kaleko frontoia berriz jartzeko lanak hasi dira, eta horiek Bilboko Hiri Trenbideko 3. linean eragin dute.</li> <li>Konponketa-lanak hasi ziren Bilboko Hiri Trenbideko 2. linea eraikitzean kaltetutako Santurtziko Antonio Alzaga kaleko 2, 4 eta 8 zenbakietako lokal eta etxebizitzetako kalte guztiak konpontzeko.</li> <li>Bilboko Hiri Trenbidea (1. eta 2. lineak) finantzatu ahal izateko, 39.000.000 euroko diru-laguntza eman zitzaion Bizkaiko Garraio Partzuergoari, Bizkaiko Foru Aldundiak eman zion diru-kopuru bera, hain zuzen.</li> <li>Azkenik, Euskal Trenbide Sareak Bilboko Metropoliko Trenbidearen gaineko eraikuntzako eta ekipamenduko proiektuetarako kudeaketak egin zituen, bai eta lanen eta instalazioen zuzendaritza, ikuskaritza eta kontrol teknikoko lanak ere.</li> </ul>
<p><b>Bilboko Portuko salgaien joan-etorria erraztea</b></p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>2019an I. Fasearen (Serantes-Olabeaga tunela) informazioa-azterlanaren aldaketa egiten hasi zen, 2017ko uztailaren 12an Bilboko Trenbidearen Hegoaldeko Saihesbidea eraikitzeke Lankidetzaren Hitzarmenari jarraikiz eta Sustapen Ministerioarekin, Ogasuna eta Funtzio Publiko Ministerioarekin eta ADIFekin elkarlanean, Bilboko Hegoaldeko Trenbide Saihesbidea eraikitzeke.</li> <li>II. Faseko informazio-azterlana idazten jarraitu da (Barakaldo-Basauri) saihesbide hori eraikitzeke.</li> </ul>
<p><b>Kable bidezko garraioa</b></p>
<ul style="list-style-type: none"> <li>Garraio publikoari ematen zaion babesaren baitan dago Igeldoko Funikularra. 2014an Kultura Ondare izendatu zuten, maiatzaren 27ko 84/2014 Dekretuaren bidez. 2019an Monte Iguelde enpresa prestatzen jarraitu da, zerbitzua emakida-pleguan ezarritako baldintzetan ematen jarrai dezan, zerbitzuaren jarraipena bermatze aldera. Azpiegituraren jabeen eta Eusko Jaurlaritzaren arteko harremanari eragiten dioten ebazpen judizialak egiteko daude oraindik.</li> </ul>





### Intermodalitatea eta elkarreragingarritasuna

- Pertsonak garraiatzen dituzten turismo-ibilgailuei dagokienez, EAEko ibilgailuen alokairu-zerbitzua arautu da, bereizgarriei buruzko 2019ko ekainaren 28ko Aginduaren bidez eta zerbitzua emateko baldintzei buruzko abenduaren 17ko 200/2019 Dekretuaren bidez.
- Euskadiko garraio publikoaren antolaketarekin lotuta eta garraio Txartel Bakarra lortzeko helburuaren baitan, aurrera egin da Euskadin aldi berean dauden hiru garraio-txartelen Elkarreragingarritasuna martxan jartzeko prozesuan: Bat, Barik eta Mugi. Tartean sartutako erakundeek hartzen zuten parte proiektu honetan: Bizkaiko Garraio Partzuegoak, Gipuzkoako Garraio Agintaritzak, Arabako Foru Aldundiak, Euskotrenek eta Eusko Jaurlaritzaren Garraio Plangintza Zuzendaritzak.
- Euskal Autonomia Erkidego osorako txartel bakarra ezartzea lehentasunezko helburua da legegintzaldi honetarako.
- 2019an Mugi txartelaren elkarreragingarritasun-garapenekin jarraitu zen 1. eta 2. lineetarako. Orobat, abian jarri zen Gasteizko hiri-garraio operadorearen, Tuvisaren, elkarreragingarritasuna.
- Era berean, lan egin zen hiru lurralde historikoetako konpentsazio-zentroak koordinatzeko eta eguneratzeko.
- EAEko Plataforma Logistiko Intermodalen sustapenerako eta garapenerako estrategiaren baitan Basque Country Logistics marka txertatu da. Marka horren helburua da plataforma logistiko multimodal eta multipolar bat instrumentalizatzea Iberiar penintsularen eta Europar Batasunaren arteko salgaien joan-etorriak egituratzeko nodo nagusi gisa. 2019an hainbat jarduera eta aurkezpen egin dira Autonomian, Estatuan eta Europan.
- Dagoeneko abian den zentro logistikoei babesa ematea ekarpen ekonomikoan gauzatu da, horietan sozietateko partaidetza izatearekin batera.

### Inbertsioak egitea portu-azpiegituretan, eta gaur egungo azpiegitura mantentzea EAEn eskumeneko portuetan

- Portu-azpiegituretan egindako inbertsioan, hauek dira hiru obra nagusiak:
  - Bizkaian, Xixili kaia konpontzea eta sendotzea eta Bermeko Erroxape portuko zonaldeko merkataritza-moilaren zolaketa eta bertako zerbitzuak berriz jartzea. Azpimarratzekoa da “Xixili kaiaren konpontze- eta indartze-lanak” proiektuari lotutako obretan aldaketak tramitatzeko presazko beharra, hasieran esleitutako eraikuntza-proiektuan aurreikusi ez ziren eta obra horretan gertatu diren hainbat ezbeharrei aldi baterako estaldura administratibo eta ekonomikoa emateko.
  - Gipuzkoan, Hondarribiko Portuko kaiaren egitura lehengoratzeko. Obrek kaiko egitura egokitzeaz gain, kai-muturraren egiturazko atala konpondu eta indartu dute, hala kaiaren segurtasuna bermatzeko –aintzat hartuta zein erraz kaltetzen duen giroak– eta kai-muturra etorkizuneko itsas denboraleetatik babesteko.
  - Gipuzkoan, Donostiako portuko hegoaldeko bokaleko dikea egonkortzen auzitegia. Obra haiek egiteko, alde batetik, hegoaldeko dikearen muturraren behealdean 31 paldo ezarri dira, egituraren egonkortasuna erabat ziurtatzeko. Halaber, paldoak lotzeko trabaketa-habe bat ere egin da, dikea haren gainean bermatzeko, bai eta pantaila gisa funtziona dezan ere, zimenduen higadura-prozesuak jarraitzea saihesteko.
- Horrez gain, dragatze-jarduerak egin dira portuetan, nabigazio- eta ainguratzeko baldintza egokiak mantentzeko.
  - Ondarroako (Bizkaia) portuan, esku-hartzea egin da portuko bokalean, sarbide-kanalean eta ibaiaren kanpoaldean dagoen zonaldean, hau da, sedimentuak metatzeko eta sakontasun-arazoak izateko joera gehien duten zonaldean. Obra 2018ko ekitaldian lizitatu eta esleitu zen.



- “Orioko Herriko Plazako kaia handitzeko” obren lizitazioa eta esleipena, Orioko Udalarekin sinatutako lankidetzeta-hitzarmen batek babestuta. 2020ko ekitaldian gauzatuko diren lanak dira; arrantza-kaia handitzeko helburua dute eta egungo moila ibaiaren gainean 56,65 metro luzatzea du helburu. Hiruki-formako luzapena izango da, 6 metroko zabalera maximoa izango du eta plataforma berri bat osatuko du. Ondoren, Udalak bi norantzatako bide hori urbanizatuko du. Era berean, Zuzendaritza Fakultatiboa Laguntza Teknikoari lotutako hitzarmena lizitatu eta esleitu da.
- Jarduera ugari egin dira “EAEko portuen elektrizitate- eta argitze-instalazioen eta itsasozabalizajearen mantenu osoa, zaintza, konponketa eta hobetzea” proiektuko hitzarmenak erabiliz eta obra zibilen eta mantenurako eta kontserbaziorako itsas obren bi “Esparru Markoak” erabiliz. Jarduera horiek nabarmen lagundu dute gastu-espediente txikiak arintzen eta tramitatzen.
- Publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren bidez, “Hondarribiko portuko Arrain Lonjarako sarbide berria” egiteko lanak lizitatu dira. Hala ere, ez da haiek esleitzerik izan, kontratazio-espedientea izapidetzean izandako gorabehera administratiboengatik. Hori dela eta, 2020ko ekitaldira atzeratuko da lanok formalizatzea eta gauzatzea.
- Ondorengo proiektuak idatzi dira:
  - Getariako Txoritonpe eraikinaren estalkia lehengoratzeko.
  - 5 tonako garabi bat ordezkatzeko Hondarribiko portuan.
  - Portuko garabia ordezkatzeko Getariako portuan.
  - Babeseko dikearen geruza nagusia indartzea Bermeon.
  - EAEko portuetan lau urtez behingo mantenu-dragatzeko egitea; horrek sakoneren mantentze-lanak kontratatze eta gauzatzeko prozesua arinduko du.
- Zera lizitatu eta esleitu da:
  - Hondarribiko eta Getariako portuetako babes-dikeak konpontzea eta indartzea; dokumentu horren idazketa 2020ko lehenengo hiruhilekoan amaituko da.
  - Artibai ibaiko ezkerreko bideratze-kaia lurreztatzea Ondarroako portuan, zeina dagoeneko idatzi baita.
- Hainbat proiekturen idazketa hasia da:
  - Zerbitzu-pabiloi berria Donostiako portuko kai berrian.
  - Ur gaziaren instalazioak ezartzea Ondarroako portuko arrain-lonja berrian.
  - Mutrikuko portuan, arrantzaleen etxoleen zaharberritzea, erabilera berrietara egokitzeko.
- Elantxobeko Portuaren Plan Bereziari hasierako onespina eman zaio, eta Getariako portuko Plan Bereziaren eta Bermeoko portuko Plan Bereziaren 3. moldaketaren tramitazioarekin jarraitu da.
- Ur-kiroletarako instalazioen mantenuari eta kudeaketari dagokionez, “Donostiako Portaaviones lonjako eraikinaren erabilera berrientzako egokitze-lanak” lanak amaitu dira. Obra horrek euskal portuetako eraikin ikonikoenetako baten erabateko birgaitzea ekarri du, eta horri esker, jarduera berriei tokia egin zaie eraikin horretan.
- Hauek dira jarduketa azpimarragarrienak Euskadiko Kirol Portuek (EKP) kudeatutako dartsenetan:
  - Hondarribiko zubi-garabiaren edo travellift delakoaren zuloa handitzeko proiektuaren idazketa. Helburua da zuloa egokitzea ontziek goititzeko eta uretaratzeko operazioetan irisgarritasun- eta segurtasun-baldintza hobek izan ditzaten.
  - Pantalana bat berrezartzea Donostiako portuan, eta Donostiako eta Debako portuetan pantalana bat jartzea sartzerakoan ontzitegiko maniobrak errazteko.
  - Hondarribiko portuko zonalde jakinetako zoladura konpontzea.
  - Ur- eta elektrizitate-kontsumoaren kontrolerako sistema bat ezartzea Hondarribiko, Donostiako eta Bermeoko portuetan. Horretarako, aurreordainketako dorretxoak ezarriko dituzte portuetako zonalde teknikoetara sartzeko.
  - Donostiako portuetako garabia ordezkatzeko, aurrekoaren egoera txarrak eraginda.
  - Orioko portuko argizatze publikoko luminaria kontsumo baxuko LED sistema batekin ordezkatzeko.
  - Hondarribiko portuko hornigailuaren onartzaileak berritzea Hondarribiko portuan.



- Plentziako ibaiko amarratzen berrantolaketa-lanak gauzatzeko proiektua eta proiektu horren gauzapenaren lizitazio-prozedurari ekitea.
  - Lekeitioko portuaren berrantolaketa-proiektuaren berrikusketa eta egokitzapena egitea bere hurrengo lizitaziorako.
  - Plentziako portuaren proiektuaren barneko dartsena konpontzeko eta egokitzeko aurreproiektua garatzea eta gauzpen-proiektua idazten hastea bere hurrengo lizitaziorako.
- 2019n Bizkaiko portuetan ur-laminak eta lurreko gainazalak garbitzeko indarrean zegoen kontratua gauzaten jarraitu da: Mundakan, Bermeon, Armintzan eta Plentzian, eta mantendu egin da bera 24 hilabetez luzatzea, hau da, 2021. urtera bitarte. Ondarroa, Lekeitio, Ea eta Elantxobeko portuetan indarrean dagoen kontratua betetzen jarraitu da.
  - Gipuzkoako portuetan ez da posible izan garbiketaren lizitazioa egoki egitea, kontratua 2018n amaitu baitzen. Behar bezalako zerbitzua eman da eta amaitu zenetik garaiz ordaindu da, baina, aldi berean, kontratazio-espediente berria kudeatzen jarraitu da. Azkenik, 2019ko azaroan, “Ontziek eragindako lur nahiz ur azaleko hondakinen bilketa Gipuzkoako portuetan (2019-2020)” kontratu berri bat esleitu da. Baliabide berri bat aurkeztu izanak espediente hori gauzaten hasia du. Espedientea ebatzea, formalizatzea eta indarrean sartzea 2020ko lehenengo hiruhilekorako aurreikusten da.
  - EAEko eskumenekoak diren portuen segurtasun- eta zaintza-zerbitzuari dagokionez, 2018an Bermeoko, Ondarroako, Lekeitioko eta Mundakako portuetan zerbitzu hori emateko zegoen kontratua amaitu da. 2018ren erdialdera kontratazio berria abiarazi zen, baina administrazio-helegite batek prozedura etetea eragin zuen; beraz, kontrataziorako espediente berria urte horren amaieran jarri zen martxan. Zerbitzua behar bezala eman da eta amaitu zenetik garaiz ordaindu da, baina kontratazio-espedientearen ebazpena 2019. urte osoan zehar luzatu da. Azkenik, kontratu berria hurrengo ekitaldiko lehen hilabetean abiaraztea aurreikusi da.
  - Donostiako portuko segurtasunari eta zaintzari dagokionez, 2019. urtean indarrean zegoen kontratua gauzaten jarraitu da.
  - Portuen kudeaketari dagokionez, nabarmentzekoa da Bermeko Portu Instalazioak babesteko ebaluazioa egin dela, eta ebaluazio horretan oinarrituta egin dela Portu Instalazioen Plana, zeina onartua izan baita.
  - Hainbat bilera egin dira Portuaren kontsulta-batzordearekin, eta bazorde horretan jakinarazi da portua babesteko ebaluazioa.
  - Itsasoko Barne Planak garatzen eta martxan jartzen jarraitu da, barne uretako erregai-isurketen tratamendua hobetzeko asmoz.
  - Bermeoko portuko merkataritza-trafikoari dagokion dokumentuen kudeaketa telematikoari dagokionez, DUEPORT sistema ezarri da 2019ko ekitaldian.

#### Aireko garraioaren plangintza eta garapena

- EAEko Aireportuak Kudeatzeko Plana amaitu zenetik (2014) eta horretan zein EAEko hiru lurralde historikoetan kokatutako aireportuen Marketin plan irekietan oinarrituta (Loiu, Hondarribia eta Forondako aireportuak), Aireportuak Koordinatzeko Batzordea eratu da. Era berean, horrek Aireportuetako Lantalde Teknikoa sortzea bultzatu zuen eta haren eginkizunak ezarri zituen, aireportu bakoitzak (beraien eremuan eta EAEn baitan) sustatzen laguntzen duten ekimen teknikoak ekarri, aztertu eta aukeratzeko, negozio-bolumena igo dadin epe motz zein luzera.
- Hiru aireportuetan, Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak lan-mahaia eratu da Aena, SA enpresarekin eta aireportuak sustatzeko hiru sozietaterekin, lankidetzako egoera berriak identifikatzeko aldera, hiru aireportuen arteko lotura naturala sustatuz “aireportu bat, hiru terminal” lelopean.
- Mantendu egin dira euskal hiriburuak Aireportuak Sustatzeko Sozietateei emandako laguntzak.



**4. helburua**  
Euskadiren kokapen estrategikoa sustatzea European

**Ardatz atlantikoa indartzea komunikazio-ardatz gisa**

- Eusko Jaurlaritzak Europar Batasuneko Itsas Eskualde Periferikoen Konferentziaren baitako Arku Atlantikoaren Batzordean (AAB) parte hartu du, garraio arloan politika bateratuak sustatzeko. Ildo horretan, Garraio Plangintzaren Zuzendaritzak Arku Atlantikoaren Garraiorako Taldean parte hartu du.
- Akitania-Euskadi-Nafarroa euroeskualdeari dagokionez, lanean jarraitu da Transfermuga proiektuarekin jarraitzeko, euroeskualdeko garraioaren eskaintza intermodalaren integrazioan aurrera egiteko, eta horretarako azpiegiturak egokitu dira irisgarritasuna hobetzeko, muga-arteko intermodala indartu da eta beste garraiobide batzuk (itsasontziak, bizikleta...) barne hartzen dituen open data politikan lan egin da.

**5. helburua**  
Garraio-sistemen erabilera eraginkorra eta arduratsua sustatzea

- Garraio Iraunkorraren 2030 Gidaplana onartu da. Gidaplanaren helburua da barneratze multimodala erreferentziatzeko esparru izatea eta garraioa lurralde-politikaren zatitzat hartzea oinarri dituen garraio-politika bat ezartzeko.
- Garraio Iraunkorraren 2030 Gidaplana abiapuntutzat harturik eta Eusko Jaurlaritzak jada idatzitako edo idazten ari den beste plan estrategiko eta sektorial batzuekin osatuz, 2019an Planean aurreikusitako ekintzak egiten jarraitu da.
- Lankidetzan egin da Energiaren Euskal Erakundearekin (EEE), Mugikortasun Elektrikoaren Plan Integrala egiteko prozesuan. Eusko Jaurlaritzak 2019an onartu du plan hori.
- Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren Lege Proiektua onartu zuen Gobernu Kontseiluak 2019ko abenduaren 3an; ondoren, Legebiltzarrerara igorri zen hark promulga zedin. Euskadiko Mugikortasun Jasangarriaren legeak tarifen diseinurako eta operadoreak koordinatzeko berdinak diren elementu guztiak barneratu ahal izango ditu, eta hala, zerbitzuen prestazioa bermatuko da, operadoreen ekonomia- eta teknologia-lankidetzako mekanismoak egingo dira, eta ingurumenerako jasangarriagoak diren garraiobideak eta klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzen duten energia garbien erabilera sustatuko dira.

**6. helburua**  
Garraio publikoaren sistema barneratua garatzea

**Hiriko garraioan tren-eskaintza hobetzea**

- Hiri-bilbean tranbiak proiektatu dira garraioaren sistema osoan txertatu behar duen beste hiriko garraiobide baten moduan; hala, eskaintza eskarira egokitu da. Beraz, erakunde guztietako langile teknikoz osatutako mahaien esparruan egin behar dira mugikortasunaren inguruko analisiak. Premisa horiek oinarri hartuta, Gasteizen tranbia Salburuara eta Zabalganara handitzeko eta Bilbon tranbia Boluetaraino hedatzeko azterlanak eta proiektuak idazten ari dira.
- Era berean, Tranbia Gasteizko Unibertsitateraino handitzeko obrek jarraitu dute.
- Gasteizen BEI tranbiak gordetzeko (autobus elektriko adimendun bat) toki bat ezartzeko eraikuntza-proiektua idatzi da, eta Latinoamerika plazaren inguruko errailak egokitzeko proiektua idazteari ekin zaio.

# **EAEko Garraio Sektorearen Funtsezko Adierazleak**

**10.**

## 10. EAEko garraio sektorearen funtsezko adierazleak

0	Laburpen Exekutiboa	<b>1. adierazlea</b>	<b>2003</b> (EJSN-1993, 1. berrik.)	<b>2017</b> <sup>38</sup> (EJSN-2009 eta EKS-10)	<b>2018</b> <sup>38</sup> (EJSN-2009 eta EKS-10)	<b>2019 (a)</b> <sup>38</sup> (EJSN-2009 eta EKS-10)	<b>Aurrerapen maila</b>		
1	Testuinguru Orokorra	<b>Garraioaren produktibitatea (BEGd/Enplegua)</b>	55,3 mila euro lanean ari den pertsonako	74,5 mila euro lanean ari den pertsonako	77,1 mila euro lanean ari den pertsonako	75,7 mila euro lanean ari den pertsonako	19-03	19-18	
2	Bilakaera Orokorra						% 36,9	% -1,8	
3	Errepide Bidezko Garraioa	<b>2. adierazlea</b>	<b>2003</b> (EJSN-1993, 1. berrik.)	<b>2017</b> <sup>38</sup> (EJSN-2009 eta EKS-10)	<b>2018</b> <sup>38</sup> (EJSN-2009 eta EKS-10)	<b>2019 (a)</b> <sup>38</sup> (EJSN-2009 eta EKS-10)	<b>Aurrerapen maila</b>		
4	Tren Bidezko Garraioa	<b>Garraioaren sektorearen parte-hartzea EAEko BEGd-n (BEGd garraioa/BEGd ekonomia)</b>	% 4,80	% 4,66	% 4,69	% 4,62	19-03	19-18	
5	Aire Bidezko Garraioa						-0,18	-0,07	
6	Itsaso Bidezko Garraioa								
7	Beste Garraiobide Batzuk	<b>3. adierazlea</b>		<b>2005</b>	<b>2017</b>	<b>2018</b>	<b>2019</b>	<b>Aurrerapen maila</b>	
8	Ondorio eta Joera Nagusiak	<b>Salgaien garraioa, garraiobidearen arabera</b>	<b>Errepidea</b>	% 80,8	% 74,2	% 73,3	% 74,7	19-05	19-18
9	Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria		<b>Trenbidea</b>	% 3,0	% 1,5	% 1,4	% 1,1		
10	<b>Funtsezko Adierazleak</b>		<b>Airekoa</b>	% 0,0	% 0,0	% 0,0	% 0,0		
11	Eranskinak		<b>Itsasokoa</b>	% 16,2	% 24,3	% 25,3	% 24,1	+7,9	-1,2

2019an garraioaren produktibitateak 75,7 mila euroko jaitsiera izan du lanean ari den pertsonako, eta euskal ekonomia osoari begiratuta, berriz, 78,4 mila euroko igoera izan du lanean ari den pertsonako. 2003ko datuekin alderatuta, sektorearen produktibitateak bilakaera positiboa izan du (+% 36,9). Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, % 1,8 jaitsi da sektorekako produktibitatea, eta ekonomia osoa aintzat hartuta, berriz, % 0,8 igo da.

2019an garraio sektoreak EAEko BEGdean duen kuota % 4,62koa izan da. Garraioaren BEGd-k euskal ekonomian duen parte-hartzea ehuneko 0,18 puntu jaitsi da 2003tik. Kuota 0,07 puntu jaitsi da 2018tik.

2019an errepidez egiten den salgaien garraioak du parte-hartze handiena (% 74,7), eta atzetik ditu itsasoko garraioa (% 24,1) eta, azkenik, tren-zirkulazioa (% 1,1). 2018ko datuekin alderatuta, salgaien errepideko lekualdatzeak ehuneko 1,4 puntu igo dira; aldiz, jaitsi egin da itsasoko garraioaren (ehuneko 1,2 puntu) eta trenbidekoaren kuota (-% 0,3). 2005arekin alderatuta, errepidez garraiatutako kargak ehuneko 6,1 puntuko jaitsiera izan du, eta trenez garraiatutakoena 1,9 puntu jaitsi da. Itsas garraioari dagokiona, aldiz, 7,9 puntu igo da.

<sup>38</sup> EKS-10ean ezarritako metodologiaren arabera lortutako datuak. Beste batzuen artean, hauek biltzen ditu: I+Gko eta ekoizpenerako gastuak, norbere azken kontsumorako. 2010-2013 urteen artean, batez besteko urteko % 1,3ko igoera eragin zuen garraioaren eta biltegiatzearen azpisektorean, eta % 4,5ekoa EAEko ekonomia orokorrean, legez kanpoko jardueren estimazioa barneratzearen aparteko efektuarengatik.



4. adierazlea		2003	2017	2018	2019	Aurrerapen maila	
		(Bidaiariak, milakotan)				19-03	19-18
Pertsonen mugikortasuna, garraiobidearen arabera	Errepidea	116.380	121.349	123.450	125.765	+% 8,1	+% 1,9
	Trenbidea	126.453	135.916	139.740	143.970	+% 13,9	+% 3,0
	Airekoa	3.228	5.325	5.881	6.399	+% 98,2	+% 8,8
	Itsasokoa	119	187	201	161	+% 35,3	-% 19,9

2019an pertsonen errepideko mugikortasuna 125,8 milioi pertsonara gerturatu da (2018an baino +% 1,9); trenaren bidezko garraioan 144 milioi joan-etorri inguru erregistratu dira (aurreko ekitaldian baino % 3 gehiago); aireko zirkulazioak 6,4 milioi lekualdatze izan ditu (aurreko urtean baino % 8,8 gehiago), eta euskal portuetako erabiltzaileak 161 mila pertsonara jaitsi dira (2018an baino % 19,9 gutxiago).

Denbora-tarte luzeagoari begiratuta (2003-2019), garraibide guztiak bilakaera positiboa izan dute. Hala, bidaiarien bolumena % 98,2 igo da aireko zirkulazioan, % 35,3 igo da itsasoko garraioan, % 13,9 trenbidekoan eta % 8,1 errepidekoan.

5. adierazlea		2006		2017		2018		2019		Aurrerapen maila			
		X	M	X	M	X	M	X	M	19-06	19-18		
Kanpoko merkataritza, garraiobidearen arabera	Errepidea	% 63,0	% 38,1	% 59,0	% 47,2	% 57,6	% 45,7	% 60,6	% 46,0	-2,4	+7,8	+3,0	+0,2
	Trenbidea	% 0,0	% 0,4	% 0,2	% 1,2	% 0,1	% 1,0	% 0,1	% 1,2	+0,1	+0,8	0,0	+0,2
	Airekoa	% 1,9	% 1,7	% 3,5	% 3,2	% 3,2	% 2,6	% 3,5	% 2,8	+1,6	+1,1	+0,3	+0,2
	Itsasokoa	% 29,2	% 56,1	% 37,3	% 48,2	% 39,1	% 50,6	% 35,4	% 49,9	+6,2	-6,2	-3,7	-0,7
	Bestelakoak	% 0,0	% 0,0	% 0,1	% 0,2	% 0,0	% 0,0	% 0,4	% 0,1	0,4	0,1	0,4	+0,1

2019an garraio-sektoreak errepidez egin dituen esportazioek guztizkoaren % 60,6 osatu dute, eta inportazioen kuota, berriz, % 46koa izan da. Itsasoko garraioan, esportazioek atzerrira egiten diren erosketaren % 35,4ko pisua dute eta inportazioek, berriz, % 49koa.

2006ko datuekin eginiko alderaketak erakusten du itsasoko esportazioen parte-hartzea ehuneko 6,2 puntu igo zela eta inportazioetan, berriz, kuotaren igoera handiena errepideko zirkulazioan erregistratu da (+% 7,8 puntu).

2019an, 2018ko datuekin alderatuta, garraibide guztietan igo dira esportazioak eta inportazioak, itsasoko garraioan izan ezik (ehuneko - 3,7 puntu esportazioetan eta ehuneko -0,7 puntu inportazioetan).

6. adierazlea	2002	2016	2017	2018	2019	Aurrerapen maila	
						19-02	19-18
Energia-kontsumoa garraio-sektorean	1.590 ktep	2.013 ktep	2.130 ktep	2.178 ktep	2.165 ktep	% 36,2	% -0,6

2015-2020 Ingurumen Esparru Programaren helburu estrategikoen arabera, baliabideen erabilera eraginkorra eta kontsumo arduratsua sustatu behar dira.

Garraio-sektorearen energia-kontsumoa % 36,2 handitu da 2002tik 2019ra, aipatutako helburu estrategikoak ezarritakoaren aurkako norabidean. 2019an jaitsi egin da garraioaren energia-kontsumoa (2018tik % 0,6) eta aldaketa hori jarduera ekonomikoak izandako norabidearen aurkakoa da (EAEEn % 2,2 igo da BPG 2018tik).

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraibide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak
- 11 Eranskinak

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 **Funtsezko Adierazleak**
- 11 Eranskinak

7. adierazlea	1990	2008	2016	2017	2018	Aurrerapen maila	
						18-90	18-17
<b>Berotegi-efektuko gasen igorpenak garraio-sektorean</b>	2.717 mila tona CO <sub>2</sub> baliokide	5.713 mila tona CO <sub>2</sub> baliokide	6.139 mila tona CO <sub>2</sub> baliokide	6.533 mila tona CO <sub>2</sub> baliokide	6.440 mila tona CO <sub>2</sub> baliokide	% 137,0	-%1,4

Kyotoko Protokoloaren helburua berotegi-efektuko gasen igorpenak % 8 murriztea da 2008-2012 aldirako, 1990. urteko igorpenak oinarritzat hartuta.

1990-2018 aldian, garraio-sektoreak sortutako BEGen isuriak % 137,0 igo dira, eta bilakaera hori Kyotoko Protokoloan garraioarengat ezarritako helburuaren aurkakoa da. 2018an % 1,4 jaitsi ziren garraioaren BEGen isuriak, eta jarduera ekonomikoa, berriz, hazi egin zen (BPG +% 4,3 igo zen 2018an 2017tik).

8. adierazlea		2004	2019 <sup>39</sup>	Aurrerapen maila	
				19-04	
<b>Garraioaren kanpoko kostuak</b>	<b>Errepidea</b>	2.753 milioi €	1.598 milioi €	- % 42,0	
	<b>Trenbidea</b>	72 milioi €	67 milioi €	- % 6,9	
	<b>Airea</b>	--	157 milioi €	--	
	<b>Itsasoa</b>	--	836 milioi €	--	

Eskura dauden azken datuen arabera, 2019an garraioaren kanpoko kostuak 2.659 milioi euro ingurukoak izan ziren.

2004. urteari dagokionez, errepide bidezko garraioaren kanpoko kostuak % 42 murriztu ziren, eta trenbide bidezko garraioarenak % 6,9. Kontuan hartu behar da 2004ko kostuak 2004ko eta 2019ko prezioen bilakaeraren arabera eguneratu direla.

9. adierazlea	2006	2017	2018	2019	Aurrerapen maila	
					19-06	19-18
<b>Batez besteko gastua pertsonako, batez besteko gastua familiako eta gastu osoa garraioan</b>	<b>Pertsona:</b> 1.665 €	<b>Pertsona:</b> 1.471 €	<b>Pertsona:</b> 1.493 €	<b>Pertsona:</b> 1.558 €	<b>Pertsona:</b> -% 6,4	<b>Pertsona:</b> +% 4,4
	<b>Familia:</b> 4.355 €	<b>Familia:</b> 3.500 €	<b>Familia:</b> 3.547 €	<b>Familia:</b> 3.692 €	<b>Familia:</b> -% 15,2	<b>Familia:</b> +% 4,1
	<b>Guztira:</b> 3.520.592 €	<b>Guztira:</b> 3.157.112 €	<b>Guztira:</b> 3.211.711 €	<b>Guztira:</b> 3.364.929 €	<b>Guztira:</b> -% 4,4	<b>Guztira:</b> +% 4,8

2019an pertsona bakoitzak garraioan, urtean, 1.558 euroko gastua egin du batez beste; familiako gastua 3.692 eurokoa izan da; eta guztizko gastua, 3,4 milioi € ingurukoa.

2006tik garraio-gastua jaitsi egin da, bai pertsonako zenbatekoan (-% 6,4), bai familiako gastuan (-% 15,2) eta guztizko zifran (-% 4,4).

Aurreko ekitaldiarekin alderatuta, garraioaren sektoreak hiru ratioetan izan ditu igoerak. Hala, 2018ko datuekin alderatuta, pertsonako batez besteko gastua % 4,4 igo da, familia-unitate bakoitzekoa % 4,1 igo da eta guztizkoa % 4,8.

<sup>39</sup> EAEko garraioaren kanpo-kostuak eguneratzea. Lurralde Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Saila. Garraio Plangintzaren Zuzendaritza. Eusko Jaurlaritza

10. adierazlea	1998	2017	2018	2019	Aurrerapen maila	
					19-98	19-18
<b>Motorizazio-indizea</b>	366,6 turismo 1.000 biztanleko	456,6 turismo 1.000 biztanleko	456,0 turismo 1.000 biztanleko	458,6 turismo 1.000 biztanleko	+% 25,1	+% 0,6

2019an EAeko motorizazio maila 458,6 turismotara iritsi da mila biztanleko.  
Motorizazio-indizea % 25,1 igo da 1998tik. Aurreko urtearekin alderatuta, motorizazio maila % 0,6 igo da.

- 0 Laburpen Exekutiboa
- 1 Testuinguru Orokorra
- 2 Bilakaera Orokorra
- 3 Errepide Bidezko Garraioa
- 4 Tren Bidezko Garraioa
- 5 Aire Bidezko Garraioa
- 6 Itsaso Bidezko Garraioa
- 7 Beste Garraiobide Batzuk
- 8 Ondorio eta Joera Nagusiak
- 9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria
- 10 Funtsezko Adierazleak**
- 11 Eranskinak

**Eranskinak**

**11.**

## 11. Eranskinak

### 11.1. Legediaren berrikuntzak 2019an: Europakoak, estatukoak eta EAEkoak

#### 11.1.1. Europako legediaren berrikuntzak

##### a) Zuzentarauak

###### Errepide bidezko garraioa

- 2019/1161 Zuzentaraua (EB), 2019ko ekainaren 20koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, zeinak aldatzen baitu 2009/33/EE Zuzentaraua, errepideko garraio-ibilgailu garbi eta eraginkorrak sustatzeari buruzkoa (2019/07/12ko EBAO, L 188, 116/130. or.).
- 2019/1936 Zuzentaraua (EB), 2019ko urriaren 23koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, zeinak aldatzen baitu 2008/96/EE zuzentaraua, bide-azpiegituren segurtasuna kudeatzeari buruzkoa (2019/11/26ko EBAO, L 305, 1/16. or.).

###### Itsasoko eta ibaieko garraioa

- 2019/883 Zuzentaraua (EB), 2019ko apirilaren 17koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, itsasontziek sortutako hondakinak entregatzeko portu-instalazio hartzaileei buruzkoa. Zuzentarau horrek aldatzen du 2010/65/EB Zuzentaraua eta indargabetu egiten du 2000/59/EE Zuzentaraua (2019/06/07ko EBAO, L 151, 116/142. or.).
- 2019/1159 Zuzentaraua (EB), 2019ko ekainaren 20koa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, zeinak aldatu egiten baitu 2008/106/EE Zuzentaraua, itsas lanbideetarako gutxieneko prestakuntza mailari buruzkoa, eta indargabetu egiten du 2005/45/EE Zuzentaraua, estatukideek itsasoko pertsonen emandako tituluak elkarri aitortzeari buruzkoa (2019/07/12ko EBAO, L 188, 94/105. or.).
- 2019/1834 Zuzentaraua (EB), 2019ko urriaren 24koa, Europako Batzordearena, zeinak aldatu egiten baititu Kontseiluaren 92/29/EEE Zuzentaruaren II. eta IV. eranskinak egokitzapen teknikoek dagokienez (2019/10/31ko EBAO, L 279, 80/97. or.).

Iturria: Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala.

Laburpen Exekutiboa	0
Testuinguru Orokorra	1
Bilakaera Orokorra	2
Errepide Bidezko Garraioa	3
Tren Bidezko Garraioa	4
Aire Bidezko Garraioa	5
Itsaso Bidezko Garraioa	6
Beste Garraiobide Batzuk	7
Ondorio eta Joera Nagusiak	8
Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria	9
Funtsezko Adierazleak	10
<b>Eranskinak</b>	<b>11</b>

b) Erregelamenduak

0 Laburpen Exekutiboa

1 Testuinguru Orokorra

2 Bilakaera Orokorra

3 Errepide Bidezko Garraioa

4 Tren Bidezko Garraioa

5 Aire Bidezko Garraioa

6 Itsaso Bidezko Garraioa

7 Beste Garraiobide Batzuk

8 Ondorio eta Joera Nagusiak

9 Helburuak eta Mugikortasun Jasangarria

10 Funtsezko Adierazleak

11 Eranskinak

Errepide bidezko garraioa

- 2019/501 Erregelamendua (EB), 2019ko martxoaren 25ekoa, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, zeinak ezartzen baititu salgaien eta bidaiarien errepideko garraioaren oinarriko konexioak bermatzeko arau amankomunak, Europar Batasunetik Britainia Handiko Erresuma Batua eta Ipar Irlanda ateratzeari lotuta (2019/03/27ko EBAO, L 85I, 39/48. or.).
- 2019/1892 Erregelamendua (EB), 2019ko urriaren 31koa, Europako Batzordearena, zeinak aldatu egiten baitu 1230/2012 Erregelamendua motordun ibilgailuetarako eta horien atoiatarako kabina luzangak eta gailu nahiz ekipamendu aerodinamikoak dituzten motordun ibilgailu jakin batzuen mota-homologaziorako baldintzei dagokienez (2019/11/12ko EBAO, L 291, 17/41. or.).
- 2019/1939 Erregelamendua (EB), 2019ko azaroaren 7koa, Europako Batzordearena, zeinak aldatu egiten baitu 582/2011 Erregelamendua (EB) honako gai hauetan: isurien estrategia osagarriak (AES), ontziko diagnostiko sistemari (DAB) eta ibilgailua konpontzeari eta haren mantentze-lanak egiteari buruzko informaziorako sarbidea, motorraren abiarazte hotzeko aldietako isuriak neurtzea eta partikula kopurua neurtzeko isuriak neurtzeko sistema eramangarriak erabiltzea, ibilgailu astunei dagokienez (2019/11/25eko EBAO, L 303, 1/24. or.).
- 2019/254 Erregelamendu Delegatua (EB), 2018ko azaroaren 9koa, Europako Batzordearena, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1315/2013 Erregelamenduaren III. eranskina egokitzeari buruzkoa. Bigarren Erregelamendu hori Europar Batasunak Europa barneko garraio-sarea garatzeari buruz dituen orientabideei buruzkoa da (2019/02/14ko EBAO, L 43, 1/14. or.).

Tren bidezko garraioa

